EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

**LEHENDAKARITZA**
*Azterlan eta Lege Araubide Zuzendaritza*
*Prospekzio Soziologikoen Kabinetea*

**PRESIDENCIA**
*Dirección de Estudios y Régimen Jurídico*
*Gabinete de Prospección Sociológica*

# Irakurketa ohiturak aisialdian

# *Hábitos de lectura en el tiempo libre*

**2005eko Otsaila**

***Febrero 2005***



*http://www.euskadi.net/estudios_sociologicos*

# Aurkibidea / *Índice*


**SARRERA** / *INTRODUCCIÓN* .................................................. **1**

**LABURPENA** / *SÍNTESIS* .................................................. **4**

**A – IRAKURKETA OHITURA ETA MAIZTASUNA** / *HÁBITO Y FRECUENCIA DE LECTURA* .................................. **11**

- **Irakurketarekiko gustua** / *Gusto por la lectura* .................................... 12
- **Irakurketaren helburu nagusia** / *Principal objetivo de la lectura* .......... 14
- **Irakurketa maiztasuna** / *Frecuencia de lectura* .................................... 16
- **Ez irakurtzeko arrazoiak** / *Razones para no leer* .................................. 18
- **Denbora librean irakurtzeko arrazoi nagusiak** / *Razones principales para leer en el tiempo libre* ................................... 21
- **Irakurtzen emandako denbora astegunetan eta asteburu eta jai egunetan** / *Cantidad de tiempo dedicado a la lectura en día laborable, fines de semana y festivos* .................................................... 24
- **Irakurgaien euskarria** / *Soporte de los materiales de lectura* ............... 27

**B – EGUNKARIEN IRAKURKETA OHITURAK** / *HÁBITOS DE LECTURA DE PERIÓDICOS* ........................... **29**

- **Egunkarien irakurketa maiztasuna** / *Frecuencia de lectura de periódicos* .................................................. 30
- **Irakurtzen den egunkari mota** / *Tipo de periódico que se lee* ............ 33
- **Irakurtzen den egunkari kopurua astegunetan eta asteburu eta jai egunetan** / *Cantidad de periódicos leídos en día laborable, fines de semana y festivos* .......................................................................... 35
- **Irakurtzen den egunkarien hizkuntza** / *Idioma de los diarios que se leen* ........................................................ 38

**C – ALDIZKARIEN IRAKURKETA OHITURAK** / *HÁBITOS DE LECTURA DE REVISTAS* ................................ **40**

- **Aldizkarien irakurketa maiztasuna** / *Frecuencia de lectura de revistas* .......................................................... 41
- **Irakurtzen den aldizkari mota** / *Tipo de revista que se lee* ................. 43
- **Irakurtzen den aldizkarien hizkuntza** / *Idioma de las revistas que se leen* ...................................................... 46

**D – KOMIKI EDO TEBEOEN IRAKURKETA OHITURAK** / *HÁBITOS DE LECTURA DE CÓMICS O TEBEOS* .................. **48**

- **Komiki edo tebeoen irakurketa maiztasuna** / *Frecuencia de lectura de cómics o tebeos* ............................................ 49
- **Irakurtzen den komiki edo tebeoen hizkuntza** / *Idioma de las cómics o tebeos que se leen* .......................................... 51

**E – LIBURUEN IRAKURKETA OHITURAK** / *HÁBITOS DE LECTURA DE LIBROS* .................................. **53**

- **Etxean dagoen liburu kopurua** / *Dotación de libros en el hogar* ......... 54
- **Liburuen irakurketa maiztasuna** / *Frecuencia de lectura de libros* ............................................................. 56
- **Urtean zehar irakurtzen den liburu kopurua** / *Número de libros leídos anualmente* .................................................... 58
- **Irakurtzen den liburu mota** / *Tipo de libros que se leen* ...................... 60
- **Maiztasun handienez irakurtzen diren literatur generoak** / *Géneros literarios que se leen con mayor frecuencia* ........................... 62
- **Irakurtzen den liburuen hizkuntza** / *Idioma de los libros que se leen* ............................................................. 65
- **Liburuen aukeraketarako irizpideak** / *Criterios para la elección de los libros* ................................................. 67

**ZEHAZTASUN TEKNIKOAK** / *FICHA TÉCNICA* ......................... **70**

# Sarrera / *Introducción*

## Helburuak eta informazioaren iturria / *Objetivos y origen de la información*

Euskal Autonomia Erkidegoko (EAEko) biztanleek **aisialdian dituzten irakurketa ohiturak** ezagutzea da txosten honen helburua. Horretarako txostena bost multzotan egituratu da: lehenengoan herritarrek irakurketa ohiturari buruz dituzten iritziak eta irakurketa maiztasuna aztertu dira; hurrengo lauretan berriz, egunkarien, aldizkarien, komikien eta liburuen irakurketa ohitura zehatzak landu dira, hurrenez hurren. Estatuko biztanleekin konparatuta nolako antzekotasunak eta aldeak ditugun ere jakin nahi izan dugu eta mota horretako datuak izan ditugun ataletan. Horrela aztertutako datuekin konparazio geografikoak egin ahal izan ditugu.

Lan honetako emaitzak **2004ko irailaren bukaeran eta urria hasieran** Euskal Soziometroen bildumaren 26. ikerketan erabilitako galdesortan berariaz sartutako galdera multzo batetik datoz.

El objetivo del presente informe es conocer los hábitos de lectura en su tiempo libre de la población de la Comunidad Autónoma del País Vasco (CAPV). Para ello el informe se estructura en cinco bloques: en el primero se analiza la opinión de la población en torno a los hábitos y frecuencia de lectura; en los cuatro siguientes el análisis corresponde a los hábitos de lectura de periódicos, revistas, cómics y libros, respectivamente. Hemos querido conocer las semejanzas y diferencias respecto a los habitantes del Estado y en algunos aspectos tenemos datos para comparar. De esta forma realizaremos comparaciones geográficas con algunos datos analizados.

Los resultados de este trabajo proceden de un bloque de preguntas *ad hoc* incluidas en el cuestionario del estudio nº 26 de la serie de Sociómetros Vascos, **realizado a finales de setiembre y principios de octubre de 2004**.

## Kolektibokako azterketa / *Análisis por colectivos*

Inkestaren datuak biztanleriaren osotasunean ez ezik **segmentazio soziodemografiko eta sozioekonomikoen arabera** ere aztertu dira, inkestako talde desberdinen artean desberdintasun adierazgarriak daudenean. Ondokoak dira aldagai horiek (sortutako azpitaldeak letra etzanean azaltzen dira):

- Lurraldea: *Araba*, *Bizkaia* eta *Gipuzkoa*.
- Sexua: *gizonezkoa* eta *emakumezkoa*.
- Adin taldeak: *18-29*, *30-45*, *46-64* eta *65 urte edo gehiago*.
- Udalerriaren tamaina: *txikia* (<10.000 biztanle), *ertaina* (10.000-120.000 biztanle) eta *hiriburua* (>120.000 biztanle: Vitoria-Gasteiz, Bilbao eta Donostia-San Sebastián).
- Ikasketa maila: *lehen mailakoak baino gutxiagokoak*, *lehen mailakoak* (lehen mailakoak, oinarrizko batxilergoa, OHO), *bigarren mailakoak* (lanbide heziketa, goi-mailako batxilergoa, IEE, BBB, UBI), goi-mailakoak (diplomaturak, lizentziaturak, doktoretzak, graduondokoak).
- Hautemandako klase soziala: *baxua* (langileen klasea), *ertaina*, *altua* (ertaina-altua edo diruduna), ed/ee.

Los datos de la encuesta son analizados, no sólo desde los totales poblacionales, sino también en base a segmentaciones sociodemográficas y socioeconómicas, en función de las diferencias significativas entre los diversos colectivos sociales. Las variables diferenciadoras consideradas (y los subcolectivos formados, que aparecen en cursiva) son las siguientes:

- Territorio: *Araba*, *Bizkaia* y *Gipuzkoa*.
- Sexo: *varón* y *mujer*.
- Grupos de edad: *18-29*, *30-45*, *46-64* y *65 o más años*.
- Tamaño de municipio: *pequeño* (<10.000 habitantes), *mediano* (10.000-120.000 habitantes) y *capital* (>120.000 habitantes: Vitoria-Gasteiz, Bilbao y Donostia-San Sebastián).
- Nivel de estudios: *menores que primarios*, *primarios* (primarios, bachiller elemental, EGB), *secundarios* (profesionales, secundarios, bachiller superior, REM, BUP, COU), *superiores* (diplomaturas, licenciaturas, doctorados, postgrados).
- Clase social sentida: *baja* (media-baja u obrera), *media*, *alta* (media-alta o acomodada), *ns/nc*.

- Irakurle mota: *ohikoa* (astean bi edo hirutan baino gehiagotan irakurtzen dutenak) eta *aldizkakoa* (noizean behin edo gutxitan irakurtzen dutenak)

Horietaz gain irakurketa hizkuntza aztertzerakoan ondorengoa ere hartu da kontuan:

- Euskararen jakintza: *ez* (ez daki ezer), *zerbait* ( zenbait hitz edo zerbait daki), *bai* (nahikoa ondo edo zuzen hitz egiten daki).

- Tipo de lector(a): *habitual* (leen al menos dos o tres veces por semana) o *ocasional* (leen de vez en cuando o raramente).

Además de las anteriores variables, al analizar el idioma de lectura se ha tenido en cuenta también la siguiente variable:

- Conocimiento del euskera: *no* (nada), *algo* (sólo palabras o algo), *sí* (bastante bien o correctamente).

# Laburpena / *Síntesis*

## Puntuz puntu / *Punto por punto*

### *ZENBAT GUSTATZEN ZAIE HERRITARREI IRAKURTZEA?*

EAEko biztanleen artean irakurzaletasuna nahikoa hedatua dago, herritarren %25eri asko eta beste % 27ri nahikoa gustatzen baitzaie irakurtzea. Gainera, %27ri pixka bat gustatzen zaie eta, aldiz, %14ri oso gutxi eta beste %6ri batere ez.

### *ZEIN DA IRAKURKETAREN HELBURU NAGUSIA?*

Irakurketak bete behar duen helburu nagusiaz galdetu zaienean herritarren iritzia nahiko banatuta agertu zaigu: %32k informatzea dela diote, %30ek denbora pasatzea eta beste %31k irakastea edo formatzea.

### *IRAKURKETA MAIZTASUNA AISIALDIAN*

EAEko biztanle gehienek (%91k) euren aisialdiaren zati bat prentsa, aldizkariak, komiki edo tebeoak eta liburuak irakurtzen igarotzen dutela diote eta soilik %9k ez dutela inoiz edo ia inoiz irakurtzen. Zehatzago, %60k egunero edo ia egunero irakurtzen omen dute, %14k astean bi edo hirutan, beste %14k noizean behin eta %3k gutxitan.

Bestalde, irakurleek (biztanleen %91 direla kontuan hartuz) astegunetan eta asteburu edo jaiegunetan irakurtzen oso antzeko denbora igarotzen dute, nahiz eta asteburu eta jaiegunetan irakurtzeari batere denborarik eskaintzen ez diotenak astegunetan baino pixka bat gehiago diren. Ildo honetan, astegunetan %12k hamabost minutu baino gutxiago igarotzen dituzte irakurtzen, %29k hamabost minutu eta ordu erdi artean, beste %29k ordu erdi eta ordu bete artean, %21ek ordubete eta bi ordu artean eta %5ek hortik gora.

### *ZEIN DIRA EZ IRAKURTZEKO ETA IRAKURTZEKO ARRAZOI NAGUSIAK?*

Alde batetik, inoiz edo ia inoiz irakurtzen ez duten herritarrek ondoko arrazoiak aipatu dituzte horretarako: ez zaiela gustatzen, interesatzen (%34k), osasun arazoak, ikusmen txarra eta abar (%34k), ohiturarik eza (%30ek), denbora faltagatik (%29k), liburu eta aldizkarien prezioagatik (%1ek) eta beste arrazoi batengatik (%10ek).

Beste aldetik, herritar irakurleek ondoko arrazoiengatik irakurtzen dutela aipatu dute: informatua egoteko (%72k), denbora pasatzeko (%63k), formatzeko (%16k), gauza berriak ikasteko, kultura hobetzeko (%15ek). Askoz gutxiagok aipatu dute ikasketengatik (%5ek), lan arrazoiengatik (%3k) eta beste arrazoi batzuengatik (%2).

### *¿CUÁNTO LE GUSTA LEER A LA CIUDADANÍA?*

El gusto por la lectura está bastante extendida en la población de la CAPV, pues al 25% de la ciudadanía le gusta mucho leer y a otro 27% bastante. Además, al 28% le gusta algo y por el contrario, al 14% muy poco y a otro 6% nada.

### *¿CÚAL ES EL OBJETIVO PRINCIPAL DE LA LECTURA?*

La opinión de la población respecto a cuál consideran que es el objetivo principal que debe cumplir la lectura está bastante dividida: el 32% opina que es informar, el 30% distraer y otro 31% formar o educar.

### *FRECUENCIA DE LECTURA EN EL TIEMPO LIBRE*

La mayoría de los habitantes de la CAPV (91%) afirman dedicar una parte de su tiempo libre a leer la prensa, las revistas, los cómics o tebeos y libros y únicamente un 9% afirman que no leen nunca o casi nunca. Más concretamente, el 60% señala leer todos o casi todos los días, el 14% dos o tres días por semana, otro 14% de vez en cuando y el 3% raramente.

Por otro lado, las y los lectores (considerando que son el 91% de la población) dedican un tiempo similar a la lectura los días laborables como los fines de semana y festivos, a pesar de que son algunos más quienes no dedican nada de tiempo a la lectura los fines de semana y festivos. En este sentido, los días laborables el 12% dedica menos de quince minutos a leer, el 29% entre quince y treinta minutos, otro 29% entre treinta minutos y una hora, el 21% entre una y dos horas y el 5% más tiempo.

### *¿CUÁLES SON LAS RAZONES PRINCIPALES PARA NO LEER Y PARA LEER?*

Por un lado, las y los ciudadanos que no leen nunca o casi nunca señalan las siguientes razones para no hacerlo: no les gusta ni interesa (34%), problemas de salud, mala visión, etc (34%), no tener hábito (30%), falta de tiempo (29%), el precio de los libros, revistas... (1%) y por otra razón (10%).

Por otro lado, la gente lectora ha mencionado que lee por las siguientes razones: para estar informado (72%), entretenerse (63%), formarse (16%), aprender cosas nuevas, mejorar su cultura (15%). Son muchos menos quienes han mencionado por motivos de estudio (5%), profesionales (3%) y otro tipo de razones (2%).

### *IRAKURGAIEN EUSKARRIA*

Irakurtzen diren testuak batez ere paperean irakurtzen dira (%82k), askoz gutxiagok bi euskarrietan -paperean eta ordenagailuan- (%17k) eta are gutxiagok ordenagailuan bakarrik (%1ek).

### *ZENBATERO ETA ZENBAT EGUNKARI IRAKURTZEN DITUZTE IRAKURLEEK?*

EAEko irakurleen gehiengoak egunero edo ia egunero irakurtzen dituzte egunkariak (%57k), %13k astean hiru edo lau aldiz eta %18k astean behin edo bitan. Gainera, %3k hilean zenbaitetan eta %1ek hilean behin baino gutxiagotan irakurtzen dituzte eta, aldiz, %7k inoiz edo ia inoiz ez.

Astegunetan egunkariak irakurtzen dituztenen %74k egunkari bat irakurtzen dute, %16k bi eta beste %2k hiru edo gehiago. Aldiz, %7k ez dute bat bera ere irakurtzen. Asteburu eta jaiegunetan, ordea, gutxiago dira bat irakurtzen dutenak (%64) edota bat ere irakurtzen ez dutenak (%4) eta gehiago, ordea, bi irakurtzen dituztenak (%26).

### *ZEIN EGUNKARI MOTA IRAKURTZEN DITUZTE ETA ZEIN HIZKUNTZETAN?*

Astean behin gutxienik egunkariak irakurtzen dituztenen artean (EAEko biztanleen %80,6 direla kontuan izanik) %98k informazio orokorrekoak irakurtzen dituzte, %29k kiroletakoak eta soilik %12k ekonomikoak.

Bestalde, irakurtzen diren egunkari horien hizkuntzei dagokienez, gaztelaniazkoak nagusi direla dakusagu (irakurleen %98k irakurtzen baitituzte), %18k irakurtzen dituzte euskaraz idatzitakoak eta bakarrik %2k beste hizkuntzetakoak.

### *IRAKURLEEK ZENBATERO IRAKURTZEN DITUZTE ALDIZKARIAK?*

EAEko irakurleen %4k (ia) egunero irakurtzen dituzte aldizkariak, %5ek astean hiru edo lau aldiz eta beste %24k astean behin edo bitan. Hilean zenbaitetan irakurtzen dituzte %14k, hilean behin edo bitan %13k eta maiztasun gutxiagorekin beste %15ek. Gainontzeko %25ek inoiz ez edo ia inoiz ez dituzte irakurtzen.

### *ZEIN ALDIZKARI MOTA IRAKURTZEN DITUZTE ETA ZEIN HIZKUNTZATAN?*

Aldizkaririk irakurtzen duten irakurleek (EAEko herritarren %54,2 direla kontuan hartuz) informazio orokorrekoak (%35ek) eta prentsa arrosa, txutxumutxuetakoak (%35ek) irakurtzen dituzte batez ere. Jende gutxiagok irakurtzen dituzte zientzia eta kultur dibulgaziokoak (%14k) eta kiroletakoak (%11k). Gainontzeko aldizkari mota bakoitza (motorraz, modaz, osasunaz, telebista gidak, dekorazioaz, musikaz, teknikoak, bidaietakoak, zinemaz, ekonomikoak, bestelakoak) irakurleen %10k baino gutxiagok

### *SOPORTE DE LOS MATERIALES DE LECTURA*

Los textos de lectura se leen sobre todo en papel (el 82%), mucho menos en los dos soportes –papel y ordenador- (17%) y aún menos, únicamente en el ordenador (1%).

### *¿CON QUÉ FRECUENCIA Y CUÁNTOS PERIÓDICOS LEEN LAS Y LOS LECTORES?*

La mayoría de las y los lectores de la CAPV leen periódicos todos o casi todos los días (57%), el 13% dos o tres veces por semana y el 18% una o dos veces por semana. Además, otro 3% los leen varias veces al mes y un 1% con menor frecuencia y en cambio, el 7% no los lee nunca o casi nunca.

El 74% de quienes leen periódicos los días laborables leen un periódico, el 16% dos y otro 2% tres o más. Por el contrario, el 7% no leen ninguno. Sin embargo, los fines de semana y festivos son menos quienes leen uno (64%) o no leen ninguno (4%) y aumentan, por el contrario, quienes leen dos (26%).

### *¿QUÉ TIPO DE PERIÓDICOS LEEN Y EN QUÉ IDIOMAS?*

El 98% de quienes leen periódicos al menos una vez por semana (considerando que son el 80,6% de la población de la CAPV) leen periódicos de información general, el 29% deportivos y únicamente un 12% económicos.

Por otro lado, respecto al idioma en el cual se lee la prensa, observamos que se leen principalmente en castellano (los leen el 98% de las y los lectores), el 18% leen los escritos en euskera y solamente un 2% en otros idiomas.

### *¿CON QUÉ FRECUENCIA LEEN REVISTAS LAS Y LOS LECTORES?*

El 4% de las y los lectores de la CAPV leen revistas (casi) a diario, el 5% tres o cuatro veces por semana y otro 24% una o dos veces por semana. El 14% los leen varias veces al mes, el 13% una o dos veces al mes y otro 15% con menor frecuencia. El restante 25% no los leen nunca o casi nunca.

### *¿QUÉ TIPO DE REVISTAS LEEN Y EN QUÉ IDIOMAS?*

Las y los lectores de revistas (teniendo en cuenta que son el 54,2% de la población de la CAPV) leen sobre todo revistas de información general (35%) y prensa rosa, del corazón (35%). Son menos quienes leen las de ciencia y divulgación cultural (14%) y las deportivas (11%). Cada uno de los siguientes tipos de revistas (motor, moda, salud, guías de televisión, decoración, musicales, técnicas, de viajes, cine, económicas, otras) son leídas por menos del 10% de las y los lectores.

Respecto al idioma de las revistas que se leen, observamos que se leen

irakurtzen dituzte.

Halaber, irakurtzen diren aldizkari horien hizkuntzei dagokienez, gaztelaniazkoak nagusi direla dakusagu (%99k irakurtzen dituzte), euskarazkoak %8k irakurtzen dituzte eta soilik %3k beste hizkuntzetakoak.

### *IRAKURLEEK ZENBATERO IRAKURTZEN DITUZTE KOMIKI EDO TEBEOAK?*

EAEko irakurleek ez dute kasik komiki edo tebeorik irakurtzeko ohiturarik, %84k ez baitituzte inoiz edo ia inoiz irakurtzen. Aldiz, irakurtzen dituztenen maiztasuna ondokoa da: egunero edo ia egunero (%1ek), astean hiru edo lau alditan (%1ek) astean behin edo bitan (%2k), hilean zenbaitetan (%2k), hilean behin edo bitan (%3k) eta gutxiagotan (%6k).

### *ZEIN HIZKUNTZATAN IRAKURTZEN DITUZTE KOMIKI EDO TEBEOAK?*

Egunkari eta aldizkarien kasuetan bezala, irakurtzen diren komiki edo tebeoen artean gaztelaniazkoak dira nagusi (%96k hala irakurtzen baitituzte), %16k euskarazkoak eta bakarrik %5ek beste hizkuntzetan idatzitakoak.

### *ZENBAT LIBURU (TESTU LIBURUAK KANPO) DITU JENDEAK BERE ETXEAN?*

Ia EAEko herritar guztiek dute libururen bat etxean, soilik %2 baita etxean bat ere liburik ez duela dioena (eskolako testu liburuak kontuan hartu gabe). Honela, %24k 21 eta 50 liburu artean dituzte, inkestatuen %27k 51 eta 100 liburu artean eta inkestatuen %24k 101 eta 500 liburu artean; gainera, 500 liburutik gora (%6k) baina 10 liburu baino gutxiago (%7k) eta 11 eta 20 artean (%10ek).

### *ZENBATERO ETA ZENBAT LIBURU IRAKURTZEN DITUZTE IRAKURLEEK?*

EAEko irakurleen %25ek egunero edo ia egunero irakurtzen dituzte liburuak, %10ek astean hiru edo lau aldiz, %14k astean bi edo hirutan, %10ek hilean zenbaitetan eta %7k hilean behin edo bitan irakurtzen dituzte. Hori baino maiztasun txikiagoarekin irakurtzen dituzte beste %10ek eta azkenik, %25ek inoiz edo ia inoiz ez dituzte irakurtzen.

Liburuk irakurtzen duten herritarrek (EAEko biztanleen %68,4 direla kontuan hartuz) ondoko liburu kopurua irakurtzen dute urtero: %37k bat eta hiru artean, %28k lau eta zazpi artean, %16k zortzi eta hamabi artean eta beste %16k hamahiru liburu edo gehiago.

principalmente en castellano (pues los leen el 99%), en euskera los leen el 8% y únicamente el 3% en otros idiomas.

### *¿CON QUÉ FRECUENCIA LEEN LAS Y LOS LECTORES CÓMICS O TEBEOS?*

Las y los lectores de la CAPV no tienen hábito de lectura de cómics o tebeos, así el 84% no los leen nunca o casi nunca. En cambio, la frecuencia de lectura de quienes lo hacen es la siguiente: todos o casi todos los días (1%), tres o cuatro veces por semana (1%), una o dos veces por semana (2%), varias veces al mes (2%), una o dos veces al mes (3%) y con menor frecuencia (6%).

### *¿EN QUÉ IDIOMAS LEEN LOS CÓMICS O TEBEOS?*

Igual que en el caso de los periódicos y las revistas los cómics y tebeos se leen principalmente en castellano (el 96% los leen así), el 16% en euskera y únicamente el 5% los escritos en otros idiomas.

### *¿CUÁNTOS LIBROS (EXCEPTO LOS LIBROS DE TEXTO) TIENE LA GENTE EN SUS HOGARES?*

Casi la totalidad de la población de la CAPV tiene algún libro en su hogar, pues únicamente son el 2% quienes declaran no tener ningún libro (exceptuando los libros de texto) en su hogar. Así, el 24% tienen de 21 a 50 libros, el 27% de las y los encuestados tienen de 51 a 100, el 24% de éstos de 101 a 500 libros; además, tienen más de 500 libros el 6% pero menos de 10 libros el 7% y de 11 a 20 (10%).

### *¿CON QUÉ FRECUENCIA Y CUÁNTOS LIBROS LEEN LAS Y LOS LECTORES?*

El 25% de las y los ciudadanos lectores de la CAPV leen libros a diario o casi a diario, el 10% tres o cuatro veces por semana, el 14% dos o tres veces por semana, el 10% varias veces al mes y el 7% una o dos veces al mes. Los leen con menor frecuencia otro 10% y por último, el 25% no los leen nunca o casi nunca.

Las y los ciudadanos que leen libros (considerando que son el 68,4% de la población de la CAPV) leen anualmente el siguiente número de libros: el 37% de uno a tres, el 28% de cuatro a siete, el 16% de ocho a doce y otro 16% trece o más libros.

### *¿QUÉ TIPO DE LIBROS Y GÉNEROS LITERARIOS LEEN? ¿CÚALES SON LOS CRITERIOS PARA LA SELECCIÓN DE LOS LIBROS?*

El 88% de las y los lectores de libros leen literatura (novela, poesía...) o libros de entretenimiento, el 28% libros de historia o arte, el 23% de consulta y referencia (enciclopedias, diccionarios...), el 18% libros profesionales, técnicos, el 13% libros de

***ZEIN LIBURU MOTA ETA LITERATURA GENERO IRAKURTZEN DITUZTE? ZEINTZU DIRA LIBURUAK AUKERATZEKO IRIZPIDEAK?***

Liburu irakurleen %88k literatura (nobela, poesia...) edo entretenimenduzko liburuak irakurtzen dituzte, %28k historia edo arte liburuak, %23k kontsulta eta erreferentziazkoak (entziklopediak, hiztegiak...), %18k liburu profesional, teknikoak, %13k testu liburuak eta %15ek bestelakoak.

Bestalde, literatura eta entretenimenduzko liburuen irakurleek (EAEko biztanleen %60,2 direla kontuan izanik) nobela orokorrean irakurtzen dute gehienbat (%55ek), nobela historikoa (%30ek), abentura nobela (%24k), nobela beltza, poliziakoa (%17k), best-sellerrak (%14k), biografiak (%13k), zientzia fikzioa (%11k) eta dibulgazioa, informaziozkoa (%10ek). Gutxiagok irakurtzen dituzte nobela sentimentala, amodiozkoa (%9k), saiakera (%7k), sukaldaritza liburuak (%6k), ipuinak, narrazio laburrak (%6k), poesia (%5), haur eta gazte literatura (%2k), antzerkia (%1ek) eta bestelakoak (%5ek).

Halaber, liburu horien irakurleek zein liburu irakurriko duten erabakitzeko orduan ondorengo irizpideei jarraitzen diete: euren irizpide propioari (%68k), familiartekoen edo lagunen iritziari (%21ek), komunikabideetako informazioari (%5ek), irakasle edota adituen iritziari (%2k) eta bestelako irizpideei (%1ek).

***ZEIN HIZKUNTZETAN IRAKURTZEN DITUZTE LIBURUAK IRAKURLEEK?***

Bestelako irakurgai motekin (egunkari, aldizkari, komiki edo tebeoak) gertatzen den moduan, liburuak ere nagusiki gaztelaniaz irakurtzen dira (%99k hala irakurtzen dituzte), %15ek irakurtzen dituzte euskarazko liburuak eta bakarrik %6k beste hizkuntzetan idatzitakoak.

texto y un 15% libros de otro tipo.

Por otro lado, las y los lectores de literatura y entretenimiento (considerando que son el 60,2% de la población de la CAPV) principalmente leen novela en general (55%), novela histórica (30%), novela de aventuras (24%), novela negra, policíaca (17%), best-seller (14%), biografías (13%), ciencia ficción (11%) y libros de divulgación, información (10%). Hay menos gente que lee novela sentimental, de amor (9%), ensayo (7%), libros de cocina (6%), cuentos, relatos breves (6%), poesía (5%), literatura infantil y juvenil (2%), teatro (1%) y de otro tipo (5%).

Así mismo, las y los lectores de dichos libros siguen los siguientes criterios a la hora de decidir el tipo de lectura: su propio criterio (68%), la orientación de familiares o amigos (21%), la información de los medios de comunicación (5%), la orientación de profesores o expertos (2%) u otros criterios (1%).

***¿EN QUÉ IDIOMAS LEEN LOS LIBROS LAS Y LOS LECTORES?***

De la misma forma que sucede con el resto de lecturas (periódicos, revistas, cómics o tebeos), también los libros se leen principalmente en castellano (el 99% los leen así), el 15% leen libros en euskera y solamente un 6% los escritos en otros idiomas.

## Estatuarekin alderatuz / *Respecto al Estado*

EAEko herritarren ustez irakurketaren helburu nagusiek izan behar dute informatzea, denbora pasatzea eta irakastea, formatzea. Hiru helburu horiek hemen neurri bertsuan aipatu dituzte eta Espainiako Estatuko biztanleen iritziz, ordea, helburua irakastea, formatzea litzateke nagusiki.

EAEko jendeak Espainiako Estatukoak baino maiztasun handiagoarekin irakurtzen du euren aisialdian. Batetik, ohiko irakurleak dezente gehiago dira Euskadin eta bestetik, inoiz edo ia inoiz irakurtzen ez dutenak Estatuan baino gutxiago.

EAEn eta Espainiako Estatuan ez irakurtzeko arrazoiak antzeko ehunekoetan aipatzen dira, nahiz eta Estatuan gutxiago aipatu duten osasun arazoak, ikusmen txarra eta abar izatea. Bestalde, bai EAEko bai Estatuko irakurleek, irakurtzeko aipatu dituzten arrazoi

En opinión de la ciudadanía de la CAPV los objetivos principales de la lectura deben ser informar, distraer y formar o educar. Estos tres objetivos aquí se han mencionado en similar medida y en opinión de la población del Estado Español, por el contrario, principalmente sería formar o educar.

La gente de la CAPV lee con mayor frecuencia que la del Estado Español en su tiempo libre. Por un lado, son bastantes más las y los lectores habituales en Euskadi y por otro lado, son menos que en el Estado quienes no leen nunca o casi nunca.

Tanto en la CAPV como en el Estado Español se mencionan con similares porcentajes las razones para no leer, en cambio en el Estado se han mencionado menos los problemas de salud, la mala visión, etc. Por otro lado, el orden de las principales

nagusien hurrenkera bera da, baina hemen zerbait gehiago aipatu dute informatua egoteko eta denbora ondo pasatzeko irakurtzen dutela.

Oro har, EAEko irakurleek astegunetan Estatukoek baino denbora gehiago ematen dute irakurtzen eta, gainera, batere denborarik igarotzen ez dutenak hemen gutxiago dira. Aldiz, asteburu eta jaiegunetan bi lurraldeen arteko aldeak oso txikiak dira.

Alde batetik, EAEko irakurleek Espainiakoek baino maiztasun handiagoz irakurtzen dituzte egunkariak eta gainera, hemen gutxiago dira inoiz edo ia inoiz egunkaririk irakurtzen ez dutenak. Bestalde, irakurtzen den egunkari motaren arabera ez dago alderik euren artean. Halaber, egunkari irakurle horiek egunkari kopuru berdintsuak irakurtzen dituzte, nahiz eta asteburu eta jaiegunetan hemen bi egunkari irakurtzen dituztenak Estatuan baino pixka bat gehiago diren.

Beste aldetik, eta aldizkarien irakurketari dagokionez, EAEn inoiz edo ia inoiz aldizkaririk irakurtzen ez dutenak Espainiako Estatuan baino gutxiago dira. Bestalde, bi lurraldeetan irakurtzen diren aldizkari moten banaketa ia berdina da, baina hemen prentsa arrosa pixka bat gutxiago irakurtzen da.

Azkenik, EAEko eta Espainiako Estatuko irakurleen liburuen irakurketa maiztasuna oso antzekoa da, egunero edo ia egunero horiek irakurtzen dituztenak Estatuan pixka bat gehiago diren arren. Bestalde, hemen literatura edo entretenimenduzko liburuek, kontsulta edota erreferentzia liburuek eta bestelakoek Estatuan baino irakurlego kopuru zabalagoa dute. Hala ere, literatura eta entretenimendu liburuen irakurleek irakurtzen dituzten generoak alderatuz, ez dugu ia alderik antzematen. Halaber, batzuk eta besteek literatura eta entretenimenduzko liburuak aukeratzeko erabiltzen dituzten irizpideen artean ez dago alderik.

razones para leer citadas por las y los lectores de la CAPV y del Estado es el mismo, aunque aquí han mencionado algo más que leen para informarse y para distraerse.

En general, las y los lectores de la CAPV dedican más tiempo a la lectura los días laborables que las y los del Estado, y además, quienes no le dedican nada de tiempo son menos aquí. En cambio, las diferencias entre los dos territorios los fines de semana y festivos son muy pequeñas.

Por un lado, las y los lectores de la CAPV leen los periódicos con mayor frecuencia que los de España y además, aquí son menos quienes no los leen nunca o casi nunca. Por otro lado, no hay diferencias entre ellos respecto al tipo de periódicos que se leen. Así mismo, dichos lectores leen un número similar de periódicos, a pesar de que los fines de semana y festivos aquí son más quienes leen dos periódicos que en el Estado.

Por otro lado, con respecto a la lectura de revistas, quienes no leen nunca o casi nunca revistas en la CAPV son menos que en el Estado Español. La distribución del tipo de revistas que se leen en un territorio y en otro es casi idéntica, pero aquí se lee ligeramente menos la prensa rosa.

Por último, la frecuencia de lectura de libros de las y los lectores de la CAPV y del Estado Español es muy similar, aunque son ligeramente más en el Estado quienes los leen diariamente o casi diariamente. Por otro lado, los libros de literatura o entretenimiento, los de consulta y referencia y los de otro tipo tienen aquí un público lector más amplio. Sin embargo, comparando los géneros que leen las y los lectores de literatura y entretenimiento casi no se observan diferencias. Así mismo, no hay diferencias en los criterios para la selección de los libros de literatura y entretenimiento utilizados por unos y otros.

## AZKEN BURUAN / *EN DEFINITIVA*

EAEko herritarren artean irakurzaletasuna hedatua dago, neurri handiagoan edo txikiagoan jende gehienak aisialdian irakurtzea gustuko baitu. Horretaz gain, herritarren gehiengoak bere aisialdiaren zati bat prentsa, aldizkariak, komikiak edo liburuak irakurtzen igarotzen dute.

Irakurtzen ez duten herritarrek, interesatzen, gustatzen ez zaiela, osasun arazoak, ikusmen txarra eta abar dutela, ohitura falta eta denborarik eza aipatu dituzte, batez ere, arrazoitzat. Bestalde, irakurtzen dutenek nagusiki denbora pasatzeko eta informatzeko irakurtzen dutela aipatu dute.

Oro har, irakurketari denbora dezentea eskaintzen diote irakurleek. Hala, horien erdiak baino gehiagok egunero ordu erditik gora ematen dute irakurtzen. Gainera,

La afición por la lectura está extendida entre la ciudadanía de la CAPV, pues en mayor o menor medida les gusta leer en su tiempo libre. Además de esto, la mayoría de la ciudadanía dedica una parte de su tiempo libre a la lectura de periódicos, revistas, cómics o libros.

La población que no lee ha mencionado sobre todo que no le interesa, ni le gusta, problemas de salud, mala visión, etc, la falta de hábito y de tiempo. Por otro lado, quienes sí leen han mencionado principalmente que lo hacen para entretenerse y para informarse.

En general, las y los lectores dedican bastante tiempo a la lectura. En este sentido, más de la mitad de ellos y ellas dedican más de media hora diaria a la lectura.

astegunetan eta asteburu eta jaiegunetan oso antzeko denbora pasatzen dute.

Irakurleen artean hedatuen dagoen irakurketa mota (inoiz edo ia inoiz irakurtzen ez dituztenak kontuan hartu gabe) egunkaria da, ondoren aldizkari eta liburuak datoz eta oso atzetik, komikiak edo tebeoak.

Egunkariei dagokienez, irakurleek informazio orokorreko egunkariak irakurtzen dituzte nagusiki eta gehiengoak egunkari bakarra, nahiz eta asteburuetan irakurleen laurdenak bi ere irakurtzen dituzten.

Aldizkariei dagokienez, batez ere informazio orokorrekoak eta prentsa arrosa, txutxumutxuetakoak irakurtzen dira.

Ia herritar denek euren etxeetan liburuік badutela diote. Alabaina, gutxiago dira liburuik irakurtzen dutela diotenak; horietatik gehiengoak literatura eta entretenimenduzko liburuak irakurtzen dituzte eta horien barnean nobela orokorrean eta nobela historikoa dira nagusi.

Aztertu ditugun irakurgai mota guztiak (egunkari, aldizkari, komiki edo liburuak) nagusiki gaztelaniaz irakurtzen dira. Honela, ia irakurle guztiek irakurtzen dituzte gaztelaniaz egunkariak, aldizkariak, komikiak eta liburuak. Horiek euskaraz irakurtzen dituztenak, ordea, gutxi dira, egunkarien kasuan besteetan baino zertxobait gehiago diren arren eta beste hizkuntzetan ez da kasik irakurtzen inolako irakurgairik.

Además, dedican un tiempo muy similar a leer los días laborables y los fines de semana y festivos.

El tipo de lectura más extendido entre las y los lectores (sin considerar a quienes no leen nunca o casi nunca) es el periódico, detrás están las revistas y libros y muy detrás, los cómics o tebeos.

Con respecto a los periódicos, principalmente se leen los periódicos de información general y la mayoría de las y los lectores leen un único periódico, aunque los fines de semana un cuarto leen incluso dos.

Con respecto a las revistas, sobre todo se leen las de información general y la prensa rosa, del corazón.

Casi toda la ciudadanía menciona que tienen algún libro en sus hogares. Son menos quienes declaran leer éstos; de ellos, la mayoría leen libros de literatura y entretenimiento y dentro de éstos principalmente novela en general y novela histórica.

## A - Irakurketa ohitura eta maiztasuna / *Hábito y frecuencia de lectura*

- Irakurketarekiko gustua / *Gusto por la lectura*
- Irakurketaren helburu nagusia / *Principal objetivo de la lectura*
- Irakurketa maiztasuna / *Frecuencia de lectura*
- Ez irakurtzeko arrazoiak / *Razones para no leer*
- Aisialdian irakurtzeko arrazoi nagusiak / *Razones principales para leer en el tiempo libre*
- Irakurtzen emandako denbora astegunetan eta asteburu eta jai egunetan / *Cantidad de tiempo dedicado a la lectura en día laborable, en fines de semana y festivos*
- Irakurgaien euskarria / *Soporte de los materiales de lectura*

# Irakurketa ohitura eta maiztasuna / *Hábito y frecuencia de lectura*

## Irakurketarekiko gustua / *Gusto por la lectura*

(GUZTIZKOAK / *TOTALES*)

| Zenbateraino gustatzen zaizu irakurtzea? / *¿Cuánto le gusta leer?* | 2004KO URRIA *OCTUBRE 2004* |
|---|---|
| BATERE EZ / *NADA* | 6 |
| OSO GUTXI / *MUY POCO* | 14 |
| PIXKA BAT / *ALGO* | 28 |
| NAHIKOA / *BASTANTE* | 27 |
| ASKO / *MUCHO* | 25 |
| ED-EE / *NS-NC* | 0 |
| (EHUNEKO BERTIKALAK) / *(PORCENTAJES VERTICALES)* | 100 |

Zenbateraino gustatzen zaizu irakurtzea? / *¿Cuánto le gusta leer?*




☑ EAEko biztanleen zati handi bati irakurtzea atsegin zaio. Zehazki, biztanleen %25ek diote asko gustatzen zaiela eta beste %27k nahikoa, bitartean soilik %14k diote oso gutxi gustatzen zaiela eta beste %6k batere ez. Gainontzeko %28k diote pixka bat gustatzen zaiela.

☑ A una gran parte de la población de la CAPV le gusta leer. Concretamente el 25% de la población dice que le gusta mucho leer y otro 27% bastante, mientras que apenas un 14% afirma que le gusta muy poco y otro 6% nada. Por último, el restante 28% señala que les gusta algo.

# Irakurketa ohitura eta maiztasuna / *Hábito y frecuencia de lectura*

## Irakurketarekiko gustua / *Gusto por la lectura*

(KOLEKTIBOKA / *POR COLECTIVOS)*

**Zenbateraino gustatzen zaizu irakurtzea? / *¿Cuánto le gusta leer?***

| | 2004KO URRIA *OCTUBRE 2004* | LURRALDEA / *TERRITORIO* | | | SEXUA / *SEXO* | | ADIN TALDEAK / *GRUPOS DE EDAD* | | | | UDALERRIAREN TAMAINA *TAMAÑO MUNICIPIO* | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | ARABA | BIZKAIA | GIPUZKOA | GIZONEZKOA *VARÓN* | EMAKUMEZKOA *MUJER* | 18-29 | 30-45 | 46-64 | ≥65 | TXIKIA *PEQUEÑO* | ERTAINA *MEDIANO* | HIRIBURUA *CAPITAL* |
| BATERE EZ / *NADA* | 6 | 4 | 7 | 6 | 8 | 5 | 6 | 5 | 5 | 10 | 8 | 7 | 4 |
| OSO GUTXI / *MUY POCO* | 14 | 12 | 14 | 15 | 15 | 13 | 13 | 13 | 14 | 18 | 11 | 17 | 12 |
| PIXKA BAT / *ALGO* | 28 | 29 | 30 | 25 | 30 | 26 | 30 | 23 | 32 | 27 | 28 | 28 | 28 |
| NAHIKOA / *BASTANTE* | 27 | 31 | 25 | 28 | 26 | 28 | 28 | 31 | 22 | 26 | 26 | 25 | 29 |
| ASKO / *MUCHO* | 25 | 24 | 24 | 26 | 22 | 28 | 23 | 28 | 27 | 19 | 26 | 23 | 27 |
| ED-EE / *NS-NC* | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| (EHUNEKO BERTIKALAK) / *(PORCENTAJES VERTICALES)* | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 |

| | IKASKETA MAILA *NIVEL DE ESTUDIOS* | | | | HAUTEMANDAKO KLASE SOZIALA *CLASE SOCIAL SENTIDA* | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | <LEHEN MAILAKOAK <PRIMARIOS | LEHEN MAILAKOAK PRIMARIOS | BIGARREN MAILAKOAK SECUNDARIOS | GOI-MAILAKOAK SUPERIORES | ALTUA ALTA | ERTAINA MEDIA | BAXUA BAJA |
| BATERE EZ / *NADA* | 14 | 7 | 5 | 1 | 4 | 5 | 10 |
| OSO GUTXI / *MUY POCO* | 24 | 18 | 13 | 3 | 6 | 13 | 18 |
| PIXKA BAT / *ALGO* | 36 | 30 | 29 | 18 | 27 | 28 | 28 |
| NAHIKOA / *BASTANTE* | 14 | 27 | 30 | 30 | 26 | 27 | 24 |
| ASKO / *MUCHO* | 12 | 18 | 23 | 47 | 36 | 26 | 20 |
| ED-EE / *NS-NC* | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| (EHUNEKO BERTIKALAK) / *(PORCENTAJES VERTICALES)* | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 |

☑ Irakurtzea asko edo nahikoa gustatzen zaienak beste taldeetan baino apur bat gehiago dira Araban eta Gipuzkoan, emakumeen artean eta, 30 eta 45 urte dituztenen artean. Ikasketa maila eta klase soziala igo ahala ere, gehiago dira irakurtzea oso edo nahikoa gustuko dutenak (goi-mailako ikasketak dituztenen artean %77 nabarmentzen direlarik).

☑ Irakurtzea oso gutxi edo batere gustuko ez dutenen artean 65 urtetik gora dituztenak (%28), bereziki lehen mailako ikasketarik ez dutenak (%38k) edota klase sozial baxukoak (%28) nabarmendu dira.

☑ Les gusta leer mucho o bastante en ligera mayor medida que al resto a las y los lectores de Araba y Gipuzkoa, a las mujeres y a quienes tienen entre 30 y 45 años. A medida que sube el nivel de estudios y la clase social también son más quienes les gusta leer (destacando el 77% entre quienes tienen estudios superiores).

☑ Entre quienes les gusta muy poco o nada leer destacan quienes tienen 65 años o más (28%), quienes no tienen estudios primarios (38%) y/o quienes son de clase social baja (28%).

# Irakurketa ohitura eta maiztasuna / *Hábito y frecuencia de lectura*

## Irakurketaren helburu nagusia / *Principal objetivo de la lectura*

(GUZTIZKOAK / *TOTALES*)

**Zure ustez zein izan behar da irakurketaren helburu nagusia? /**
*¿Cuál considera Ud. que debe ser el principal objetivo que debe cumplir la lectura?*

| | EAE 2004KO URRIA *CAPV OCTUBRE 2004* | ESPAINIAKO ESTATUA 2003KO IRAILA *ESTADO ESPAÑOL SEPTIEMBRE 2003 ** |
|---|---|---|
| INFORMATZEA / *INFORMAR* | 32 | 29 |
| DENBORA PASATZEA / *DISTRAER* | 30 | 21 |
| IRAKASTEA, FORMATZEA / *FORMAR O EDUCAR* | 31 | 44 |
| BESTE HELBURUREN BAT / *OTRO OBJETIVO* | 3 | 3 |
| ED-EE / *NS-NC* | 4 | 3 |
| (EHUNEKO BERTIKALAK) / *(PORCENTAJES VERTICALES)* | 100 | 100 |

* CIS (CENTRO DE INVESTIGACIONES SOCIOLÓGICAS), 2.537. IKERKETA:"IRAKURKETA OHITURAK", 2003KO IRAILA / *CIS (CENTRO DE INVESTIGACIONES SOCIOLÓGICAS): ESTUDIO Nº 2.537:"HÁBITOS DE LECTURA"", SEPTIEMBRE 2003*

Irakurketaren helburu nagusia / *Principal objetivo de la lectura*




☑ Irakurketak duen helburu nagusienaren inguruan herritarren iritzia hiru talde berdintsutan banatuta agertzen da: %32k informatzea dela diote, %31k heztea edo formatzea eta beste %30ek denbora pasatzea. Gainontzeko %3k beste helbururen bat duela diote.

☑ Espainiako biztanleen iritzia gurean bezain banaturik ez dagoela ikusi dugu: %44k heztea edo formatzea aipatzen dute lehen helburutzat, beste %25ek informatzea eta %21ek denbora pasatzea

☑ La opinión de la ciudadanía respecto al objetivo principal de la lectura se divide en tres grupos similares: el 32% dice que es informar, el 31% educar o formar y otro 30% distraer. El restante 3% dice que tiene otro objetivo.

☑ La opinión de la población española no se encuentra tan claramente dividida como la vasca: un 44% señalan como primer objetivo formar o educar, un 25% informar y otro 21% distraer.

# Irakurketa ohitura eta maiztasuna / *Hábito y frecuencia de lectura*

## Irakurketaren helburu nagusia / *Principal objetivo de la lectura*

(KOLEKTIBOKA / *POR COLECTIVOS*)

**Zure ustez zein izan behar da irakurketaren helburu nagusia?** / *¿Cuál considera Ud. que debe ser el principal objetivo que debe cumplir la lectura?*

| | 2004KO URRIA *OCTUBRE 2004* | LURRALDEA / *TERRITORIO* | | | SEXUA / *SEXO* | | ADIN TALDEAK / *GRUPOS DE EDAD* | | | | UDALERRIAREN TAMAINA *TAMAÑO MUNICIPIO* | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | ARABA | BIZKAIA | GIPUZKOA | GIZONEZKOA *VARÓN* | EMAKUMEZKOA *MUJER* | 18-29 | 30-45 | 46-64 | ≥65 | TXIKIA *PEQUEÑO* | ERTAINA *MEDIANO* | HIRIBURUA *CAPITAL* |
| INFORMATZEA / *INFORMAR* | **32** | 27 | 32 | 35 | 37 | 28 | 25 | 32 | 36 | 37 | 40 | 37 | 22 |
| DENBORA PASATZEA / *DISTRAER* | **30** | 29 | 32 | 27 | 26 | 33 | 31 | 30 | 27 | 32 | 23 | 29 | 35 |
| IRAKASTEA, FORMATZEA / *FORMAR O EDUCAR* | **31** | 41 | 28 | 32 | 31 | 31 | 35 | 31 | 34 | 23 | 31 | 27 | 36 |
| BESTE HELBURUREN BAT / *OTRO OBJETIVO* | **3** | 2 | 4 | 2 | 3 | 3 | 4 | 4 | 1 | 3 | 2 | 2 | 4 |
| ED-EE / *NS-NC* | **4** | 1 | 4 | 4 | 3 | 4 | 4 | 3 | 3 | 5 | 3 | 4 | 2 |
| (EHUNEKO BERTIKALAK) / *(PORCENTAJES VERTICALES)* | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 |

| | IKASKETA MAILA *NIVEL DE ESTUDIOS* | | | | HAUTEMANDAKO KLASE SOZIALA *CLASE SOCIAL SENTIDA* | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | <LEHEN MAILAKOAK <PRIMARIOS | LEHEN MAILAKOAK PRIMARIOS | BIGARREN MAILAKOAK SECUNDARIOS | GOI-MAILAKOAK SUPERIORES | ALTUA ALTA | ERTAINA MEDIA | BAXUA BAJA |
| INFORMATZEA / *INFORMAR* | 39 | 37 | 31 | 24 | 31 | 32 | 33 |
| DENBORA PASATZEA / *DISTRAER* | 30 | 29 | 30 | 30 | 25 | 31 | 28 |
| IRAKASTEA, FORMATZEA / *FORMAR O EDUCAR* | 23 | 29 | 32 | 39 | 37 | 31 | 32 |
| BESTE HELBURUREN BAT / *OTRO OBJETIVO* | 3 | 2 | 4 | 4 | 5 | 3 | 3 |
| ED-EE / *NS-NC* | 5 | 4 | 3 | 2 | 2 | 3 | 4 |
| (EHUNEKO BERTIKALAK) / *(PORCENTAJES VERTICALES)* | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 |

- Araba da batez bestekotik gehien aldentzen den lurraldea, irakurketaren hiru helburu nagusienen arteko aldeak handienak direlarik eta hurrenkera ere desberdina. Honela, heztea edo formatzea besteek baino gehiago aipatu dute (%41) eta informatzea (%27) gutxiago.
- Gizonek informatzea aipatu dute emakumeek baino neurri handiagoan (%37k eta %28k, hurrenez hurren) eta emakumeek gizonezkoek baino gehiago denbora pasatzea (%33k eta %26k, hurrenez hurren).
- Adina igo ahala, informatzea irakurketaren helburu nagusia dela uste dutenen kopurua gehitzen da. Bestalde, 65 urtetik gorakoen artean heztea edo formatzea helburu nagusitzat duten herritarrak beste taldeetan baino gutxiago dira (%23).
- Jendea bizi den herriaren tamaina jaitsi ahala, informatzea gehiago aipatzen dute eta denbora pasatzea gutxiago.
- Ikasketa maila igotzen den neurrian irakurketaren helburu nagusitzat informatzea gutxiago aipatzen da eta aldiz, irakastea, formatzea gehiago.
- Klase sozial altukoek besteek baino pixka bat gehiago aipatu dute heztea edo formatzea eta gutxixeago denbora pasatzea.

- Araba es el territorio que más se aleja de la media, donde son mayores las diferencias entre los tres principales objetivos de la lectura y también es distinto el orden. Así, mencionan más que el resto educar o formar (41%), y menos informar (27%).
- Los hombres mencionan más informar que las mujeres (37% frente al 28%) y las mujeres distraer (33% frente al 26%).
- A medida que aumenta la edad, aumentan quienes creen que el objetivo principal de la lectura es informar. Por otro lado, entre los y las mayores de 65 años son menos que en el resto de los grupos quienes creen que el objetivo principal es educar o formar (23%).
- A medida que disminuye el tamaño de la población de residencia, las y los encuestados mencionan más informar y menos distraer.
- A medida que aumenta el nivel de estudios de la gente se menciona menos el informar y más el formar o educar como principal objetivo de la lectura.
- Los y las de clase social alta mencionan ligeramente más el formar o educar y menos el distraer.

# Irakurketa ohitura eta maiztasuna / *Hábito y frecuencia de lectura*

## Irakurketa maiztasuna / *Frecuencia de lectura*

(GUZTIZKOAK / *TOTALES*)

**Esango didazu zehazki zenbatero ematen duzun zure denbora librearen zati bat prentsa, liburuak edo bestelakoak irakurtzen?** / *¿Podría decirme con qué frecuencia suele Ud. dedicar parte de su tiempo libre a la lectura en general, ya sea de prensa, libros, manuales, etc?*

| | EAE 2004KO URRIA / *CAPV OCTUBRE 2004* | ESPAINIAKO ESTATUA 2003KO IRAILA / *ESTADO ESPAÑOL SEPTIEMBRE 2003* * |
|---|---|---|
| EGUNERO EDO IA EGUNERO / *TODOS O CASI TODOS LOS DÍAS* | 60 | 23 |
| ASTEAN BI EDO HIRU EGUNETAN / *2 Ó 3 DÍAS POR SEMANA* | 14 | 25 |
| NOIZEAN BEHIN / *DE VEZ EN CUANDO* | 14 | 27 |
| GUTXITAN / *RARAMENTE* | 3 | 10 |
| INOIZ EDO IA INOIZ EZ / *CASI NUNCA O NUNCA* | 9 | 16 |
| ED-EE / *NS-NC* | 0 | 0 |
| (EHUNEKO BERTIKALAK) / *(PORCENTAJES VERTICALES)* | 100 | 100 |

* CIS (CENTRO DE INVESTIGACIONES SOCIOLÓGICAS) , 2.537. IKERKETA:"IRAKURKETA OHITURAK", 2003KO IRAILA / *CIS (CENTRO DE INVESTIGACIONES SOCIOLÓGICAS, ESTUDIO Nº 2.537:"HÁBITOS DE LECTURA"", SEPTIEMBRE 2003*




☑ EAEko biztanleen %60k bere aisialdian egunero edo ia egunero prentsa, liburuak edo bestelakoak irakurtzen dituztela diote eta %14k astean bi edo hirutan. Beste %14k noizean behin irakurtzen dutela diote eta %3k gutxitan. Soilik %9k diote ez dutela inoiz edo ia inoiz irakurtzen. Beraz, %74 ohiko irakurleak direla esan dezakegu (egunero edo ia egunero edo astean bi/hirutan irakurtzen dute), beste %17 aldizkako irakurleak (noizean behin edo gutxitan irakurtzen dute) eta %9 ez irakurleak (inoiz edo ia inoiz ez dute irakurtzen).

☑ Espainiako datuekin konparatuz oso alde handia antzeman dugu: ohiko irakurleak askoz gutxiago dira Estatuan hemen baino (%48), aldizkako irakurleen ehunekoa hazten da (%37) eta ez irakurleena kasik bikoitza da (%16).

☑ El 60% de la población de la CAPV dice leer en su tiempo libre prensa, libros u otros todos o casi todos los días, y un 14% dos o tres días por semana. Otro 14% declara leer de vez en cuando y un 3% raramente. Únicamente el 9% dice que no leen nunca o casi nunca. Por lo tanto, podemos considerar que el 74% son lectores habituales (leen todos o casi todos los días o dos/tres días por semana), el 17% son lectores ocasionales (leen de vez en cuando o raramente) y el 9% no lectores (leen casi nunca o nunca).

☑ Comparando con los datos de España observamos importantes diferencias: los lectores habituales son muchos menos en el Estado que aquí (48%), en cambio el porcentaje de lectores ocasionales asciende hasta el 37% y la de los no lectores casi se duplica (16%).

# Irakurketa ohitura eta maiztasuna / *Hábito y frecuencia de lectura*

## Irakurketa maiztasuna / *Frecuencia de lectura*

(KOLEKTIBOKA / *POR COLECTIVOS)*

**Esango didazu zehazki zenbatero ematen duzun zure denbora librearen zati bat prentsa, liburuak edo bestelakoak irakurtzen?** / *¿Podría decirme con qué frecuencia suele Ud. dedicar parte de su tiempo libre a la lectura en general, ya sea de prensa, libros, manuales, etc?*

| | 2004KO URRIA *OCTUBRE 2004* | LURRALDEA / *TERRITORIO* | | | SEXUA / *SEXO* | | ADIN TALDEAK / *GRUPOS DE EDAD* | | | | UDALERRIAREN TAMAINA *TAMAÑO MUNICIPIO* | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | ARABA | BIZKAIA | GIPUZKOA | GIZONEZKOA *VARÓN* | EMAKUMEZKOA *MUJER* | 18-29 | 30-45 | 46-64 | ≥65 | TXIKIA *PEQUEÑO* | ERTAINA *MEDIANO* | HIRIBURUA *CAPITAL* |
| EGUNERO EDO IA EGUNERO / *TODOS O CASI TODOS LOS DÍAS* | **60** | 62 | 57 | 65 | 63 | 58 | 56 | 65 | 65 | 52 | 60 | 59 | 62 |
| ASTEAN BI EDO HIRU EGUNETAN / *2 Ó 3 DÍAS POR SEMANA* | **14** | 16 | 15 | 13 | 15 | 14 | 20 | 16 | 10 | 11 | 17 | 14 | 14 |
| NOIZEAN BEHIN / *DE VEZ EN CUANDO* | **14** | 17 | 13 | 13 | 12 | 16 | 14 | 13 | 13 | 13 | 10 | 14 | 15 |
| GUTXITAN / *RARAMENTE* | **3** | 1 | 3 | 2 | 3 | 3 | 2 | 2 | 3 | 3 | 2 | 3 | 2 |
| INOIZ EDO IA INOIZ EZ / *CASI NUNCA O NUNCA* | **9** | 5 | 11 | 7 | 8 | 10 | 7 | 4 | 8 | 19 | 11 | 10 | 6 |
| ED-EE / *NS-NC* | **0** | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| (EHUNEKO BERTIKALAK) / *(PORCENTAJES VERTICALES)* | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 |

| | IKASKETA MAILA *NIVEL DE ESTUDIOS* | | | | HAUTEMANDAKO KLASE SOZIALA *CLASE SOCIAL SENTIDA* | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | <LEHEN MAILAKOAK <PRIMARIOS | LEHEN MAILAKOAK PRIMARIOS | BIGARREN MAILAKOAK SECUNDARIOS | GOI-MAILAKOAK SUPERIORES | ALTUA ALTA | ERTAINA MEDIA | BAXUA BAJA |
| EGUNERO EDO IA EGUNERO / *TODOS O CASI TODOS LOS DÍAS* | 39 | 55 | 63 | 78 | 79 | 63 | 52 |
| ASTEAN BI EDO HIRU EGUNETAN / *2 Ó 3 DÍAS POR SEMANA* | 12 | 16 | 17 | 11 | 7 | 15 | 14 |
| NOIZEAN BEHIN / *DE VEZ EN CUANDO* | 19 | 16 | 13 | 8 | 11 | 13 | 15 |
| GUTXITAN / *RARAMENTE* | 5 | 3 | 2 | 1 | 0 | 2 | 4 |
| INOIZ EDO IA INOIZ EZ / *CASI NUNCA O NUNCA* | 26 | 10 | 5 | 2 | 2 | 7 | 15 |
| ED-EE / *NS-NC* | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| (EHUNEKO BERTIKALAK) / *(PORCENTAJES VERTICALES)* | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 |

☑ Ohiko irakurleak (egunero edo ia egunero edo astean bi/hirutan irakurtzen dutenak) pixka bat gehiago dira Araba eta Gipuzkoan, gizonezkoen artean eta 65 urtez azpikoen artean (bereziki 30-45 urteko taldean). Ikasketa maila eta klase soziala igotzen diren neurrian ere ohiko irakurleen kopuruak nabarmen gora egiten du.

☑ Aldizkako irakurleen kopurua (noizean behin edo gutxitan irakurtzen dutenak) pixka bat handiagoa da tamaina ertaineko herrietan eta hiriburuetan. Halaber, kopuru hau gehitzen da ikasketa maila eta klase soziala jaitsi ahala ere.

☑ Ez irakurleen artean (inoiz edo ia inoiz irakurtzen ez dutenak) 65 urtetik gorakoak nabarmentzen dira (%19). Ez irakurleen kopurua igotzen da apur bat herriaren tamaina jaitsi ahala; are gehiago igotzen da ikasketa maila eta klase soziala jaitsi ahala (lehen mailako ikasketak baino gutxiago dituztenen artean %26k ez du inoiz irakurtzen eta goi-mailako ikasketak dituztenen artean %2k).

☑ Las y los lectores habituales (quienes leen (casi) todos los días o, dos o tres veces por semana) son más en Araba y Gipuzkoa, entre los hombres y en el grupo de 30-45 años. También asciende notablemente el número de lectores habituales a medida que asciende el nivel de estudios y la clase social.

☑ El porcentaje de lectores ocasionales (leen de vez en cuando o raramente) es ligeramente mayor en los municipios medianos y en las capitales. En el mismo sentido, a medida que disminuye el nivel de estudios y la clase social aumenta este porcentaje.

☑ Entre las y los no lectores (quienes no leen nunca o casi nunca) destacan quienes tienen 65 o más años (19%). El porcentaje de no lectores aumenta ligeramente a medida que disminuye el tamaño del municipio de residencia; aumenta aún más a medida que disminuye el nivel de estudios y la clase social (el 26% entre quienes tienen estudios menores a los primarios no leen casi nunca o nunca y el 2% entre quienes tienen estudios superiores).

# Irakurketa ohitura eta maiztasuna / *Hábito y frecuencia de lectura*

## Ez irakurtzeko arrazoiak / *Razones para no leer*

(GUZTIZKOAK / *TOTALES*)

**Zeintzuk dira inoiz ez edo ia inoiz ez irakurtzeko dituzun bi arrazoi nagusiak?** / *¿Cuáles son las dos razones principales por las que Ud. no suele leer nunca o casi nunca?* *

| IRAKURTZEN EZ DUTENAK BAKARRIK (BIZTANLEEN %9) *SÓLO QUIENES NO LEEN (9% DE LA POBLACIÓN)* | EAE 2004KO URRIA *CAPV OCTUBRE 2004* | ESPAINIAKO ESTATUA 2003KO OTSAILA *ESTADO ESPAÑOL FEBRERO 2003* ** |
|---|---|---|
| EZ ZAIZU GUSTATZEN, EZ ZAIZU INTERESATZEN / *NO LE GUSTA, NO LE INTERESA* | 34 | 34 |
| OSASUN ARAZOAK, IKUSMEN TXARRA, ETA ABAR/ *PROBLEMAS DE SALUD, MALA VISIÓN, ETC.* | 34 | 20 |
| EZ DUZU OHITURARIK / *NO TIENE HÁBITO* | 30 | 29 |
| DENBORA FALTAGATIK / *POR FALTA DE TIEMPO* | 29 | 28 |
| LIBURU, ALDIZKARI ETA ABARREN PREZIOAGATIK / *POR EL PRECIO DE LOS LIBROS, REVISTAS, ETC* | 1 | 1 |
| EZ DAUKAZU IRAKURGAIRIK ESKURA / *NO TIENE FÁCIL ACCESO A MATERIALES DE LECTURA* | 0 | 1 |
| BESTE ARRAZOI BATENGATIK / *OTRA RAZÓN* | 10 | 11 |
| ED-EE / *NS-NC* | 3 | 0 |

* ERANTZUNEN BATURA EZ DA 100 BI ARRAZOI ESKATZEN ZIRELAKO / *LAS RESPUESTAS NO SUMAN 100 PORQUE SE PEDÍAN DOS RAZONES.*

** CIS (CENTRO DE INVESTIGACIONES SOCIOLÓGICAS), 2.478 IKERKETA:"AISIALDIA ETA IRAKURKETA OHITURAK", 2003KO OTSAILA / *CIS (CENTRO DE INVESTIGACIONES SOCIOLÓGICAS): ESTUDIO Nº 2.478:"TIEMPO LIBRE Y HÁBITOS DE LECTURA"", FEBRERO 2003*




☑ Irakurtzen ez dutenek (biztanleen %9 direla kontuan izanik) horretarako aipatzen dituzten arrazoi nagusiak ondorengoak dira: osasun arazoak, ikusmen txarra eta abar (%34k), gustukoa ez izatea edo interesik ez izatea (beste %34k), ohiturarik eza (%30ek) eta denbora falta (%29k). Gutxiagok aipatu dituzte bestelako arrazoiak (%10ek) eta azkenik, liburuen prezioa (soilik %1ek). Gainontzeko %3k ez dakite edo ez dute erantzun.

☑ EAEn gehiago dira ez irakurtzeko osasun arazoak, ikusmen txarra eta abar aipatzen dutenak (%34) Estatuan baino (%20), gainontzeko arrazoiek antzeko ehunekoak jasotzen dituzte bi lurraldeetan.

☑ Las principales razones para no leer que mencionan los no lectores (teniendo en cuenta que son el 9% de la población) son las siguientes: problemas de salud, mala visión, etc. (34%), que no le guste o no le interese (otro 34%), la falta de hábito (30%) y de tiempo (29%). Son mucho menos mencionadas otras razones (10%) y por último, el precio de los libros (1%). El restante 3% no sabe o no contesta.

☑ En la CAPV son más quienes mencionan los problemas de salud, la mala visión, etc. para no leer (34%) que en el Estado (20%), mientras que el resto de las razones presentan porcentajes similares en los dos territorios.

# Irakurketa ohitura eta maiztasuna / *Hábito y frecuencia de lectura*

## Ez irakurtzeko arrazoiak / *Razones para no leer*

(KOLEKTIBOKA I / *POR COLECTIVOS I*)

**Zeintzuk dira inoiz ez edo ia inoiz ez irakurtzeko dituzun bi arrazoi nagusiak?** / *¿Cuáles son las dos razones principales por las que Ud. no suele leer nunca o casi nunca?* *

| IRAKURTZEN EZ DUTENAK BAKARRIK (BIZTANLEEN %9) / *SÓLO QUIENES NO LEEN (9% DE LA POBLACIÓN)* | 2004KO URRIA / *OCTUBRE 2004* | LURRALDEA / *TERRITORIO* | | | SEXUA / *SEXO* | | ADIN TALDEAK / *GRUPOS DE EDAD* | | | | UDALERRIAREN TAMAINA / *TAMAÑO MUNICIPIO* | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | ARABA | BIZKAIA | GIPUZKOA | GIZONEZKOA / *VARÓN* | EMAKUMEZKOA / *MUJER* | 18-29 | 30-45 | 46-64 | ≥65 | TXIKIA / *PEQUEÑO* | ERTAINA / *MEDIANO* | HIRIBURUA / *CAPITAL* |
| EZ ZAIZU GUSTATZEN, EZ ZAIZU INTERESATZEN / *NO LE GUSTA, NO LE INTERESA* | 34 | 40 | 31 | 38 | 39 | 30 | 55 | 39 | 34 | 23 | 39 | 33 | 31 |
| OSASUN ARAZOAK, IKUSMEN TXARRA, E.A / *PROBLEMAS DE SALUD, MALA VISIÓN, ETC.* | 34 | 36 | 39 | 21 | 31 | 36 | 1 | 8 | 25 | 61 | 37 | 32 | 34 |
| EZ DUZU OHITURARIK / *NO TIENE HÁBITO* | 30 | 42 | 28 | 30 | 30 | 30 | 42 | 45 | 25 | 23 | 31 | 30 | 29 |
| DENBORA FALTAGATIK / *POR FALTA DE TIEMPO* | 29 | 14 | 31 | 26 | 26 | 31 | 45 | 42 | 37 | 12 | 21 | 30 | 34 |
| LIBURU, ALDIZKARI ETA ABARREN PREZIOAGATIK / *POR EL PRECIO DE LOS LIBROS, REVISTAS, ETC* | 1 | 0 | 1 | 1 | 2 | 1 | 0 | 3 | 3 | 0 | 0 | 2 | 2 |
| EZ DAUKAZU IRAKURGAIRIK ESKURA / *NO TIENE FÁCIL ACCESO A MATERIALES DE LECTURA* | 0 | 0 | 1 | 0 | 0 | 1 | 0 | 0 | 0 | 1 | 0 | 1 | 0 |
| BESTE ARRAZOI BATENGATIK / *OTRA RAZÓN* | 10 | 15 | 10 | 10 | 10 | 11 | 1 | 0 | 15 | 15 | 15 | 10 | 6 |
| ED-EE / *NS-NC* | 3 | 3 | 1 | 7 | 3 | 3 | 6 | 6 | 1 | 2 | 3 | 2 | 5 |

* ERANTZUNEN BATURA EZ DA 100 BI ARRAZOI ESKATZEN ZIRELAKO / *LAS RESPUESTAS NO SUMAN 100 PORQUE SE PEDÍAN DOS RAZONES.*

☑ Araban eta Gipuzkoan irakurtzea gustatzen edo interesatzen ez zaielako irakurtzen ez dutenak Bizkaian baino gehiago dira. Gipuzkoan besteetan baino gutxiago dira osasun arazoak, ikusmen txarra, eta abar dutelako irakurtzen ez dutela diotenak. Ohiturarik ez dutenak edota beste arrazoi batengatik irakurtzen ez dutenak Araban gehiago dira eta aldiz gutxiago denbora faltagatik irakurtzen ez dutenak.

☑ Gizonezkoek emakumezkoek baino gehiago aipatzen dute irakurtzea ez zaiela gustatzen, interesatzen (9 puntuko aldea). Aldiz, emakumezkoek ez irakurtzeko osasun arazoak, ikusmen txarra eta abar eta denborarik eza apur bat gehiago aipatu dituzte.

☑ Adina igo ahala, irakurtzea ez zaiela gustatzen, interesatzen eta denborarik ez dutela diotenak gutxitzen dira (bereziki 65 urtetik aurrera) eta, aldiz, osasun arazoak, ikusmen txarra eta abar dutela diotenak asko gehitzen dira (%61ek 65 urtetik aurrera). Gainera, ohiturarik ez dutelako irakurtzen ez dutenak gehiago dira 45 urte arte eta hortik aurrera gutxitzen dira.

☑ Bizi diren herriaren tamaina handitu ahala irakurtzea ez zaiela gustatzen, interesatzen diotenak edota beste arrazoiren bat aipatzen dutenak gutxitzen dira eta aldiz, gehitzen dira denborarik ez dutela diotenak.

☑ En Araba y Gipuzkoa son más que en Bizkaia quienes no leen porque no les gusta, ni interesa. En Gipuzkoa son menos que en los otros quienes dicen no leer porque tienen problemas de salud, mala visión, etc. Quienes no tienen hábito y/o mecionan otras razones para no leer son más en Araba y en cambio, son menos quienes no leen porque no tienen tiempo.

☑ Los hombres dicen tener menor interés, les gusta menos leer que a las mujeres (9 puntos de diferencia). Sin embargo, ellas mencionan ligeramente más los problemas de salud, la mala visión, etc y la falta de tiempo para no hacerlo.

☑ A medida que aumenta la edad disminuyen quienes dicen que no les gusta ni les interesa y quienes no tienen tiempo (especialmente a partir de los 65 años) y, sin embargo, aumentan quienes dicen no leer por tener problemas de salud, mala visión, etc (61% a partir de los 65 años). Además, quienes dicen no leer por falta de hábito son más hasta los 45 años y descienden a partir de esa edad.

☑ A medida que aumenta el tamaño del municipio de residencia son algunos menos quienes dicen que leer no les gusta ni interesa y/o mencionan otra razón para no leer y en cambio, son más quienes dicen no tener tiempo.

# Irakurketa ohitura eta maiztasuna / *Hábito y frecuencia de lectura*

## Ez irakurtzeko arrazoiak / *Razones para no leer*

(KOLEKTIBOKA II / *POR COLECTIVOS II)*

**Zeintzuk dira inoiz ez edo ia inoiz ez irakurtzeko dituzun bi arrazoi nagusiak?** / *¿Cuáles son las dos razones principales por las que Ud. no suele leer nunca o casi nunca? **

| IRAKURTZEN EZ DUTENAK BAKARRIK (BIZTANLEEN %9) *SÓLO QUIENES NO LEEN (9% DE LA POBLACIÓN)* | 2004KO URRIA *OCTUBRE 2004* | IKASKETA MAILA *NIVEL DE ESTUDIOS* | | | | HAUTEMANDAKO KLASE SOZIALA *CLASE SOCIAL SENTIDA* | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | <LEHEN MAILAKOAK <PRIMARIOS | LEHEN MAILAKOAK PRIMARIOS | BIGARREN MAILAKOAK SECUNDARIOS | GOI-MAILAKOAK** SUPERIORES | ALTUA** ALTA | ERTAINA MEDIA | BAXUA BAJA |
| EZ ZAIZU GUSTATZEN, EZ ZAIZU INTERESATZEN / *NO LE GUSTA, NO LE INTERESA* | 34 | 23 | 41 | 47 | 17 | 0 | 38 | 31 |
| OSASUN ARAZOAK, IKUSMEN TXARRA, E.A / *PROBLEMAS DE SALUD, MALA VISIÓN, ETC* | 34 | 44 | 45 | 0 | 4 | 35 | 26 | 44 |
| EZ DUZU OHITURARIK / *NO TIENE HÁBITO* | 30 | 26 | 28 | 39 | 35 | 65 | 32 | 25 |
| DENBORA FALTAGATIK / *POR FALTA DE TIEMPO* | 29 | 21 | 19 | 58 | 48 | 32 | 35 | 20 |
| LIBURU, ALDIZKARI ETA ABARREN PREZIOAGATIK / *POR EL PRECIO DE LOS LIBROS, REVISTAS, ETC* | 1 | 1 | 1 | 2 | 0 | 0 | 1 | 2 |
| EZ DAUKAZU IRAKURGAIRIK ESKURA / *NO TIENE FÁCIL ACCESO A MATERIALES DE LECTURA* | 0 | 1 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 1 |
| BESTE ARRAZOI BATENGATIK / *OTRA RAZÓN* | 10 | 19 | 7 | 0 | 0 | 0 | 9 | 13 |
| ED-EE / *Ns-Nc* | 3 | 1 | 3 | 2 | 22 | 0 | 4 | 1 |

* ERANTZUNEN BATURA EZ DA 100 BI ARRAZOI ESKATZEN ZIRELAKO / *LAS RESPUESTAS NO SUMAN 100 PORQUE SE PEDÍAN DOS RAZONES.*

** GOI-MAILAKO IKASKETAK DITUZTENEN ETA KLASE ALTUKOEN KOPURUAK OSO TXIKIAK DIRENEZ, EUREI DAGOZKIEN DATUAK EZ DIRA KOMENTATUKO ETA KONTU HANDIZ IRAKURRI BEHAR DIRA

☑ Irakurtzen ez dutenen ikasketa mailak gora egin ahala, irakurtzea ez zaiela gustatzen, interesatzen gehiago aipatzen da. Gainera, bigarren mailako ikasketak dituztenek besteek baino gehiago aipatu dituzte ohiturarik eza eta denbora falta eta ez dute aipatu ere egin osasun arazoak, ikusmen txarra eta abar.

☑ Klase ertainekoen artean gehiago aipatzen dira irakurtzea ez zaiela gustatzen, interesatzen, ohiturarik eza eta denbora falta baxukoen artean baino eta aldiz, osasun arazoak, ikusmen txarra eta abar klase baxukoek besteek baino gehiago aipatu dute.

☑ A medida que aumenta el nivel de estudios de quienes no leen, mencionan más que no les gusta ni interesa. Además, quienes tienen estudios secundarios han mencionado la falta de hábito y de tiempo, y no han mencionado los problemas de salud, la mala visión, etc.

☑ Las y los de clase media mencionan más que no les gusta ni les interesa, la falta de hábito y de tiempo y sin embargo los problemas de salud, la mala visión, etc son más mencionados por los y las de clase baja.

# Irakurketa ohitura eta maiztasuna / *Hábito y frecuencia de lectura*

## Aisialdian irakurtzeko arrazoi nagusiak / *Razones principales para leer en el tiempo libre*

(GUZTIZKOAK / *TOTALES*)

**Esango dizkidazu zure denbora librean irakurtzeko dituzun bi arrazoi nagusiak?** / *¿Podría decirme cuáles son las dos razones principales por las que Ud. dedica tiempo libre a leer?* *

| IRAKURLEAK BAKARRIK (BIZTANLEEN % 91) *SÓLO LECTORES Y LECTORAS (91% DE LA POBLACIÓN)* | EAE 2004KO URRIA *CAPV OCTUBRE 2004* | ESPAINIAKO ESTATUA 2003KO OTSAILA *ESTADO ESPAÑOL FEBRERO 2003* ** |
|---|---|---|
| INFORMATUA EGOTEKO / *POR ESTAR INFORMADO* | 72 | 58 |
| DENBORA PASA, ONDO PASATZEKO / *PARA DISFRUTAR, DISTRAERSE* | 63 | 56 |
| FORMATZEKO / *PARA FORMARSE* | 16 | 14 |
| GAUZA BERRIAK IKASTEKO, NIRE KULTURA HOBETZEKO / *PARA APRENDER COSAS NUEVAS, MEJORAR SU CULTURA* | 15 | 17 |
| IKASKETENGATIK / *POR MOTIVOS DE ESTUDIO* | 5 | 7 |
| LAN ARRAZOIENGATIK / *POR RAZONES PROFESIONALES Y/O DE TRABAJO* | 3 | 6 |
| BESTE ARRAZOI BATZUENGATIK / *OTROS MOTIVOS* | 2 | 1 |
| ED-EE / *NS-NC* | 0 | 0 |

* ERANTZUNEN BATURA EZ DA 100 BI ARRAZOI ESKATZEN ZIRELAKO / *LAS RESPUESTAS NO SUMAN 100 PORQUE SE PEDÍAN DOS RAZONES.*

** CIS (CENTRO DE INVESTIGACIONES SOCIOLÓGICAS), 2.478. IKERKETA: "AISIALDIA ETA IRAKURKETA OHITURAK", 2003KO OTSAILA / *CIS (CENTRO DE INVESTIGACIONES SOCIOLÓGICAS): ESTUDIO Nº 2.478:"TIEMPO LIBRE Y HÁBITOS DE LECTURA"", FEBRERO 2003*




☑ EAEko irakurleek (biztanleen %91 direla kontuan hartuta) irakurtzeko bi arrazoi nagusitzat ondokoak aipatu dituzte, batez ere: %72k informaturik egoteko eta %63k denbora pasatzeko, ondo pasatzeko. Askoz gutxiagok aipatu dituzte formatzeko (%16k) eta beste horrenbestek gauza berriak ikasteko, kultura hobetzeko (%15k). Are gutxiago dira gainontzeko arrazoiak aipatu dituztenak: ikasketengatik (%5ek), lanarengatik (%3k) eta beste arrazoiren batzuengatik (%2k).

☑ EAEko irakurleek Espainiakoek baino gehiago aipatu dute informatuta egoteko irakurtzen dutela (%72k eta %58k, hurrenez hurren) pixka bat gehiago baita denbora pasatzeko, ondo pasatzeko ere (%63k eta %56k, hurrenez hurren). Gainontzeko arrazoiek bietan antzeko portzentajeak jaso dituzte.

☑ Las y los lectores de la CAPV (teniendo en cuenta que son el 91% de la población) han mencionado mayoritariamente las siguientes dos razones principales para leer: el 72% para estar informado y el 63% para disfrutar, distraerse. Son muchos menos quienes han mencionado leer para formarse (16%) y otros tantos para aprender cosas nuevas, mejorar su cultura (15%). Son aún menos quienes mencionan el resto de razones: por estudios (5%), por trabajo (3%) y otros motivos (2%).

☑ Las y los lectores de la CAPV mencionan que leen para estar informados más que las y los de España (58% y 72%, respectivamente) y ligeramente más también para disfrutar, distraerse (63% y 56%, respectivamente). El resto de motivos reciben similares porcentajes en los dos territorios.

# Irakurketa ohitura eta maiztasuna / *Hábito y frecuencia de lectura*

## Aisialdian irakurtzeko arrazoi nagusiak / *Razones principales para leer en el tiempo libre*

(KOLEKTIBOKA I / *POR COLECTIVOS I*)

**Esango dizkidazu zure denbora librean irakurtzeko dituzun bi arrazoi nagusiak?** / *¿Podría decirme cuáles son las dos razones principales por las que Ud. dedica tiempo libre a leer? **

| IRAKURLEAK BAKARRIK (BIZTANLEEN % 91) / *SÓLO LECTORES Y LECTORAS (91% DE LA POBLACIÓN)* | 2004KO URRIA / *OCTUBRE 2004* | LURRALDEA / *TERRITORIO* | | | SEXUA / *SEXO* | | ADIN TALDEAK / *GRUPOS DE EDAD* | | | | UDALERRIAREN TAMAINA / *TAMAÑO MUNICIPIO* | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | ARABA | BIZKAIA | GIPUZKOA | GIZONEZKOA *VARÓN* | EMAKUMEZKOA *MUJER* | 18-29 | 30-45 | 46-64 | ≥65 | TXIKIA *PEQUEÑO* | ERTAINA *MEDIANO* | HIRIBURUA *CAPITAL* |
| INFORMATUA EGOTEKO / *POR ESTAR INFORMADO* | 72 | 69 | 73 | 71 | 76 | 68 | 61 | 72 | 76 | 80 | 76 | 74 | 67 |
| DENBORA PASA, ONDO PASATZEKO / *PARA DISFRUTAR, DISTRAERSE* | 63 | 65 | 64 | 62 | 60 | 67 | 61 | 65 | 63 | 66 | 58 | 62 | 69 |
| FORMATZEKO / *PARA FORMARSE* | 16 | 13 | 17 | 16 | 15 | 16 | 19 | 17 | 16 | 10 | 17 | 16 | 16 |
| GAUZA BERRIAK IKASTEKO, NIRE KULTURA HOBETZEKO / *PARA APRENDER COSAS NUEVAS, MEJORAR SU CULTURA* | 15 | 24 | 15 | 12 | 15 | 15 | 16 | 17 | 13 | 11 | 17 | 11 | 19 |
| IKASKETENGATIK / *POR MOTIVOS DE ESTUDIO* | 5 | 7 | 5 | 4 | 4 | 5 | 14 | 3 | 1 | 1 | 5 | 4 | 5 |
| LAN ARRAZOIENGATIK / *POR RAZONES PROFESIONALES Y/O DE TRABAJO* | 3 | 6 | 2 | 4 | 3 | 3 | 4 | 5 | 2 | 1 | 2 | 3 | 4 |
| BESTE ARRAZOI BATZUENGATIK / *OTROS MOTIVOS* | 2 | 2 | 2 | 3 | 2 | 3 | 3 | 2 | 3 | 2 | 2 | 3 | 3 |
| ED-EE / *NS-NC* | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 1 | 0 | 0 | 0 | 0 | 1 | 0 |

* ERANTZUNEN BATURA EZ DA 100 BI ARRAZOI ESKATZEN ZIRELAKO / *LAS RESPUESTAS NO SUMAN 100 PORQUE SE PEDÍAN DOS RAZONES.*

☑ Araban gauza berriak ikasteko, kultura hobetzeko irakurtzen dutela beste Lurraldetakoek baino gehiago aipatu dute.

☑ Gizonezko irakurleek emakumezkoek baino gehixeago aipatu dute irakurtzeko arrazoi nagusia informatua egotea dela eta emakumezkoek, ordea, denbora pasatzeko, ondo pasatzeko irakurtzen dutela diote gehiago.

☑ Irakurleek adinean gora egiten duten neurrian, gehiago aipatzen dute informatua egoteko irakurtzen dutela eta gutxiago formatzeko, gauza berriak ikasteko, norbere kultura hobetzeko edota ikasketengatik. Bestalde, 18-29 urte dituztenak nabarmendu dira irakurtzeko ikasketa arrazoiak aipatu dituztenen artean (%14k).

☑ Bizilekuaren tamaina handitu ahala, gutxiagok aipatzen dute informatua egoteko irakurtzen dutela eta gehiagok denbora pasatzeko, ondo pasatzeko irakurtzen dutela.

☑ En Araba mencionan más que en el resto de los territorios que leen para aprender cosas nuevas, mejorar su cultura.

☑ Los hombres lectores mencionan algo más que las mujeres que su razón principal para leer es estar informados mientras que las mujeres mencionan más que lo hacen para disfrutar, distraerse.

☑ A medida que aumenta la edad de las y los lectores mencionan más que leen para estar inormados y menos para formarse y/o aprender cosas nuevas, mejorar su cultura y/o por motivos de estudios. Por otro lado, quienes tienen entre 18 a 29 años destacan entre quienes mencionan motivos de estudio para leer (14%).

☑ A medida que aumenta el tamaño del municipio de residencia disminuye el número de quienes dicen leer para estar informados y aumenta el de quienes leen para disfrutar, distraerse.

# Irakurketa ohitura eta maiztasuna / *Hábito y frecuencia de lectura*

## Aisialdian irakurtzeko arrazoi nagusiak / *Razones principales para leer en el tiempo libre*

(KOLEKTIBOKA II / *POR COLECTIVOS II)*

**Esango dizkidazu zure denbora librean irakurtzeko dituzun bi arrazoi nagusiak?** / *¿Podría decirme cuáles son las dos razones principales por las que Ud. dedica tiempo libre a leer? **

| IRAKURLEAK BAKARRIK (BIZTANLEEN % 91) / *SÓLO LECTORES Y LECTORAS (91% DE LA POBLACIÓN)* | 2004KO URRIA / *OCTUBRE 2004* | IKASKETA MAILA / *NIVEL DE ESTUDIOS* | | | | HAUTEMANDAKO KLASE SOZIALA / *CLASE SOCIAL SENTIDA* | | | IRAKURLE MOTA / *TIPO DE LECTOR* | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | <LEHEN MAILAKOAK / <PRIMARIOS | LEHEN MAILAKOAK / PRIMARIOS | BIGARREN MAILAKOAK / SECUNDARIOS | GOI-MAILAKOAK / SUPERIORES | ALTUA / ALTA | ERTAINA / MEDIA | BAXUA / BAJA | OHIKO IRAKURLEA / LECTOR HABITUAL | ALDIZKAKO IRAKURLEA / LECTOR OCASIONAL |
| INFORMATUA EGOTEKO / *POR ESTAR INFORMADO* | 72 | 77 | 79 | 71 | 61 | 73 | 71 | 73 | 73 | 68 |
| DENBORA PASA, ONDO PASATZEKO / *PARA DISFRUTAR, DISTRAERSE* | 63 | 64 | 64 | 62 | 64 | 61 | 64 | 61 | 64 | 60 |
| FORMATZEKO / *PARA FORMARSE* | 16 | 9 | 11 | 16 | 26 | 24 | 16 | 15 | 16 | 14 |
| GAUZA BERRIAK IKASTEKO, NIRE KULTURA HOBETZEKO / *PARA APRENDER COSAS NUEVAS, MEJORAR SU CULTURA* | 15 | 10 | 13 | 17 | 17 | 15 | 14 | 18 | 16 | 10 |
| IKASKETENGATIK / *POR MOTIVOS DE ESTUDIO* | 5 | 2 | 2 | 6 | 8 | 4 | 5 | 4 | 5 | 3 |
| LAN ARRAZOIENGATIK / *POR RAZONES PROFESIONALES Y/O DE TRABAJO* | 3 | 1 | 1 | 3 | 7 | 7 | 3 | 3 | 3 | 3 |
| BESTE ARRAZOI BATZUENGATIK / *OTROS MOTIVOS* | 2 | 2 | 2 | 3 | 2 | 1 | 2 | 3 | 2 | 3 |
| ED-EE / *NS-NC* | 0 | 1 | 0 | 0 | 0 | 1 | 0 | 0 | 0 | 1 |

* ERANTZUNEN BATURA EZ DA 100 BI ARRAZOI ESKATZEN ZIRELAKO / *LAS RESPUESTAS NO SUMAN 100 PORQUE SE PEDÍAN DOS RAZONES.*

☑ Irakurleen ikasketa mailaren arabera, aldeak ikus ditzakegu. Informaturik egoteko irakurtzen dutela diotenak gutxiago dira bigarren mailako edo goi-mailako ikasketak dituztenen artean (batez ere, azken hauen artean %61 baitira). Aldiz, irakurleen ikasketa maila igotzen den neurrian, formatzeko, gauza berriak ikasi eta kultura hobetzeko, ikasketa arrazoiengatik eta lan arrazoiengatik irakurtzen dutela diotenak gehitzen dira.

☑ Klase sozial altuko irakurleek besteek baino gehiago aipatu dute formatzeko edota lan arrazoiengatik irakurtzen dutela.

☑ Ohiko irakurleek aldizkakoek baino pixka bat gehiago aipatu dituzte informatua egoteko edota gauza berriak ikasteko, kultura hobetzeko irakurtzen dutela.

☑ En función del nivel de estudios de la gente observamos diferencias. Quienes tienen estudios secundarios o superiores (sobre todo éstos últimos con un 61%) mencionan menos que los otros que leen para estar informados. Por el contrario, a medida que aumenta el nivel de estudios aumentan quienes dicen leer para formarse, aprender cosas nuevas y mejorar su cultura y por motivos de estudio o de trabajo.

☑ Las y los lectores de clase alta han mencionado en mayor medida que leen para formarse y/o por motivos de trabajo.

☑ Las y los lectores habituales mencionan ligeramente más que los ocasionales que leen para estar informados y/o para aprender cosas nuevas, mejorar su cultura.

# Irakurketa ohitura eta maiztasuna / *Hábito y frecuencia de lectura*

## Irakurtzen emandako denbora astegunetan eta asteburu eta jai egunetan / *Cantidad de tiempo dedicado a la lectura en día laborable, fines de semana y festivos*

(GUZTIZKOAK / *TOTALES*)

**Normalean, astegunetan, zenbat denbora pasatzen duzu irakurtzen, egunean? Eta asteburu eta jaiegunetan?** / *A diario, en un día laborable, aproximadamente, ¿cuánto tiempo dedica Ud. a la lectura? ¿Y los fines de semana y días festivos?*

| IRAKURLEAK BAKARRIK (BIZTANLEEN % 91) / *SÓLO LECTORES Y LECTORAS (91% DE LA POBLACIÓN)* | EAE 2004KO URRIA / *CAPV OCTUBRE 2004* | ESPAINIAKO ESTATUA 2003KO IRAILA / *ESTADO ESPAÑOL SEPTIEMBRE 2003 ** |
|---|---|---|
| **ASTEGUNETAN** / DÍAS LABORABLES | | |
| BATERE EZ / NADA | 3 | 12 |
| 15 MINUTU BAINO GUTXIAGO / *MENOS DE 15 MINUTOS* | 12 | 16 |
| 15 ETA 30 MINUTU ARTEAN / *ENTRE 15 Y 30 MINUTOS* | 29 | 38 |
| 30 MINUTU ETA ORDUBETE ARTEAN / *ENTRE 30 MINUTOS Y UNA HORA* | 29 | 22 |
| ORDUBETE ETA BI ORDU ARTEAN / *ENTRE 1 Y 2 HORAS* | 21 | 10 |
| BI ORDU BAINO GEHIAGO / *MÁS DE DOS HORAS* | 5 | 2 |
| ED-EE / *NS-NC* | 1 | 0 |
| **ASTEBURU ETA JAI EGUNETAN** / FINES DE SEMANA Y FESTIVOS | | |
| BATERE EZ / NADA | 7 | 8 |
| 15 MINUTU BAINO GUTXIAGO / *MENOS DE 15 MINUTOS* | 13 | 10 |
| 15 ETA 30 MINUTU ARTEAN / *ENTRE 15 Y 30 MINUTOS* | 24 | 29 |
| 30 MINUTU ETA ORDUBETE ARTEAN / *ENTRE 30 MINUTOS Y UNA HORA* | 25 | 30 |
| ORDUBETE ETA BI ORDU ARTEAN / *ENTRE 1 Y 2 HORAS* | 23 | 18 |
| BI ORDU BAINO GEHIAGO / *MÁS DE DOS HORAS* | 6 | 5 |
| ED-EE / *NS-NC* | 0 | 0 |
| (EHUNEKO BERTIKALAK) / *(PORCENTAJES VERTICALES)* | 100 | 100 |

* CIS (CENTRO DE INVESTIGACIONES SOCIOLÓGICAS), 2.537. IKERKETA: "IRAKURKETA OHITURAK", 2003KO IRAILA / *CIS (CENTRO DE INVESTIGACIONES SOCIOLÓGICAS), ESTUDIO Nº 2.537:"HÁBITOS DE LECTURA"", SEPTIEMBRE 2003*

☑ Astegunetan EAEko irakurleen %3k ez dute batere denborarik pasatzen irakurtzen eta beste %12k hamabost minutu baino gutxiago ematen dituzte (irakurleak herritarren %91 direla kontuan izanik). la heren batek (%29) hamabost minutu eta ordu erdi artean pasatzen dute irakurtzen eta beste horrenbestek ordu erdi eta ordubete bitartean. Ordubete eta bi ordu artean pasatzen dute %21ek eta soilik %5ek bi ordutik gora.

☑ Bestalde, asteburu eta jai egunetan irakurtzen igarotzen den denborari dagokionez, astegunetako denbora bertsua pasatzen dela dakusagu, nahiz eta irakurtzen denborarik pasatzen ez dutenak %7ra igotzen diren.

☑ Astegunetan Espainiako irakurleek Euskadin baino denbora gutxiago pasatzen dute irakurtzen eta gainera: batere denborarik igarotzen ez dutenak gurean baino gehiago dira (%12 eta %3, hurrenez hurren). Aldiz, asteburu eta jai egunetan aldeak txikiak dira (gurean denbora pixka bat gehiago igarotzen den arren) eta gainera, irakurtzen batere denborarik pasatzen ez dutenen artean ez dago alderik.

---

☑ Los días laborables, el 3% de las y los lectores de la CAPV (considerando que las y los lectores son el 91% de la ciudadanía) no dedican tiempo a leer y otro 12% de lectores leen menos de 15 minutos. Casi un tercio (29%) pasa entre quince y treinta minutos y otro tercio (29%) dedica entre media hora y una hora. El 21% pasa leyendo entre una y dos horas y únicamente el 5% más de dos horas.

☑ Por otro lado, el tiempo dedicado a la lectura los fines de semana y festivos, es similar a la cantidad de los días laborables, a pesar de que ascienden hasta el 7% quienes no pasan nada de tiempo leyendo.

☑ Los días laborables las y los lectores en España pasan menos tiempo que en Euskadi leyendo y, además, son más quienes no le dedican nada de tiempo (12% y 3%, respectivamente). Sin embargo, los fines de semana y festivos las diferencias son pequeñas (aunque entre nosotros se pasa ligeramente más tiempo) y además, no hay diferencias entre quienes no pasan tiempo leyendo.

# Irakurketa ohitura eta maiztasuna / *Hábito y frecuencia de lectura*

## Irakurtzen emandako denbora astegunetan eta asteburu eta jai egunetan / *Cantidad de tiempo dedicado a la lectura en día laborable, fines de semana y festivos*

(KOLEKTIBOKA I / *POR COLECTIVOS I)*

**Normalean, astegunetan, zenbat denbora pasatzen duzu irakurtzen, egunean? Eta asteburu eta jaiegunetan?** / *A diario, en un día laborable, aproximadamente, ¿cuánto tiempo dedica Ud. a la lectura? ¿Y los fines de semana y días festivos?*

| IRAKURLEAK BAKARRIK (BIZTANLEEN % 91) / *SÓLO LECTORES Y LECTORAS (91% DE LA POBLACIÓN)* | 2004KO URRIA / *OCTUBRE 2004* | LURRALDEA / *TERRITORIO* | | | SEXUA / *SEXO* | | ADIN TALDEAK / *GRUPOS DE EDAD* | | | | UDALERRIAREN TAMAINA / *TAMAÑO MUNICIPIO* | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | ARABA | BIZKAIA | GIPUZKOA | GIZONEZKOA / *VARÓN* | EMAKUMEZKOA / *MUJER* | 18-29 | 30-45 | 46-64 | ≥65 | TXIKIA / *PEQUEÑO* | ERTAINA / *MEDIANO* | HIRIBURUA / *CAPITAL* |
| **ASTEGUNETAN** / DÍAS LABORABLES | | | | | | | | | | | | | |
| BATERE EZ / *NADA* | 3 | 5 | 3 | 3 | 3 | 3 | 3 | 2 | 3 | 5 | 3 | 3 | 3 |
| 15 MINUTU BAINO GUTXIAGO / *MENOS DE 15 MINUTOS* | 12 | 10 | 12 | 12 | 10 | 13 | 12 | 12 | 12 | 11 | 12 | 14 | 9 |
| 15 ETA 30 MINUTU ARTEAN / *ENTRE 15 Y 30 MINUTOS* | 29 | 30 | 29 | 29 | 29 | 29 | 31 | 30 | 30 | 27 | 31 | 31 | 26 |
| 30 MINUTU ETA ORDUBETE ARTEAN / *ENTRE 30 MINUTOS Y UNA HORA* | 29 | 30 | 30 | 29 | 29 | 29 | 29 | 35 | 26 | 25 | 26 | 28 | 33 |
| ORDUBETE ETA BI ORDU ARTEAN / *ENTRE 1 Y 2 HORAS* | 21 | 19 | 20 | 23 | 22 | 20 | 20 | 17 | 22 | 27 | 22 | 19 | 22 |
| BI ORDU BAINO GEHIAGO / *MÁS DE DOS HORAS* | 5 | 6 | 6 | 4 | 5 | 5 | 5 | 3 | 7 | 5 | 5 | 4 | 6 |
| ED-EE / *NS-NC* | 1 | 0 | 1 | 1 | 1 | 1 | 1 | 0 | 1 | 1 | 1 | 1 | 0 |
| **ASTEBURU ETA JAI EGUNETAN** / FINES DE SEMANA Y FESTIVOS | | | | | | | | | | | | | |
| BATERE EZ / *NADA* | 7 | 10 | 7 | 7 | 6 | 8 | 12 | 5 | 6 | 6 | 6 | 7 | 8 |
| 15 MINUTU BAINO GUTXIAGO / *MENOS DE 15 MINUTOS* | 13 | 15 | 11 | 15 | 12 | 14 | 17 | 13 | 11 | 13 | 16 | 14 | 11 |
| 15 ETA 30 MINUTU ARTEAN / *ENTRE 15 Y 30 MINUTOS* | 24 | 25 | 25 | 22 | 23 | 25 | 24 | 23 | 24 | 26 | 22 | 27 | 21 |
| 30 MINUTU ETA ORDUBETE ARTEAN / *ENTRE 30 MINUTOS Y UNA HORA* | 25 | 20 | 26 | 27 | 27 | 24 | 25 | 27 | 25 | 24 | 26 | 26 | 24 |
| ORDUBETE ETA BI ORDU ARTEAN / *ENTRE 1 Y 2 HORAS* | 23 | 23 | 23 | 23 | 25 | 21 | 16 | 27 | 25 | 24 | 24 | 20 | 26 |
| BI ORDU BAINO GEHIAGO / *MÁS DE DOS HORAS* | 6 | 7 | 7 | 5 | 7 | 6 | 6 | 5 | 8 | 7 | 5 | 5 | 9 |
| ED-EE / *NS-NC* | 0 | 0 | 1 | 1 | 0 | 0 | 1 | 0 | 1 | 0 | 1 | 0 | 1 |
| (EHUNEKO BERTIKALAK) / *(PORCENTAJES VERTICALES)* | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 |

☑ Astegunetan emakumezko eta gizonezko irakurleek antzeko denbora eskaintzen diote irakurketari baina asteburu eta jai egunetan gizonezkoek pixka bat denbora gehiago (%59k ordu erdi edo baino gehiago eta emakumezkoen kasuan %51k).

☑ Astegunetan, 65 urte eta gehiago dituztenek irakurketari beste adin taldeetakoek baino denbora gehixeago eskaintzen diote egunero (%32k ordubete baino gehiago) eta denborarik gutxiena 30-45 urte artekoek (egunero ordubetetik gora %20k). Asteburu eta jai egunetan, berriz, irakurtzen batere denborarik igarotzen ez dutenak bereziki gazteenak dira (%12k) eta irakurtzen ordubetetik gora igarotzen dutenak ere beraien artean dira gutxien (%22).

☑ Astegunetan tamaina ertaineko herrietako biztanleek besteek baino denbora gutxixeago igarotzen dute irakurtzen eta baita asteburu eta jaiegunetan ere, kasu honetan hiriburuetakoek igarotzen dute denbora gehiago.

☑ Los días laborables tanto hombres como mujeres lectoras dedican un tiempo similar a la lectura pero los fines de semana y festivos los hombres pasan ligeramente más tiempo que las mujeres lectoras leyendo: (59% pasa más de media hora frente al 51%).

☑ Diariamente, los días laborables, las y los lectores de 65 y más años dedican algo más de tiempo a la lectura que los demás (el 32% más de una hora diaria) y quienes menos le dedican tienen entre 30-45 años (el 20% más de una hora diaria). Los fines de semana y festivos, en cambio, quienes no pasan tiempo leyendo están especialmente entre los más jóvenes (12%) y también ellos son quienes dedican menos tiempo (22% más de una hora diaria).

☑ Los días laborables los habitantes de los municipios medianos pasan algo menos de tiempo leyendo y también sucede lo mismo los fines de semana y festivos, en este último caso los habitantes de las capitales dedican algo más de tiempo.

# Irakurketa ohitura eta maiztasuna / *Hábito y frecuencia de lectura*

## Irakurtzen emandako denbora astegunetan eta asteburu eta jai egunetan / *Cantidad de tiempo dedicado a la lectura en día laborable, fines de semana y festivos*

(KOLEKTIBOKA II / *POR COLECTIVOS II)*

**Normalean, astegunetan, zenbat denbora pasatzen duzu irakurtzen, egunean? Eta asteburu eta jaiegunetan?** / *A diario, en un día laborable, aproximadamente, ¿cuánto tiempo dedica Ud. a la lectura? ¿Y los fines de semana y días festivos?*

| IRAKURLEAK BAKARRIK (BIZTANLEEN % 91) / *SÓLO LECTORES Y LECTORAS (91% DE LA POBLACIÓN)* | 2004KO URRIA / *OCTUBRE 2004* | IKASKETA MAILA / *NIVEL DE ESTUDIOS* | | | | HAUTEMANDAKO KLASE SOZIALA / *CLASE SOCIAL SENTIDA* | | | IRAKURLE MOTA / *TIPO DE LECTOR* | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | <LEHEN MAILAKOAK / <PRIMARIOS | LEHEN MAILAKOAK / PRIMARIOS | BIGARREN MAILAKOAK / SECUNDARIOS | GOI-MAILAKOAK / SUPERIORES | ALTUA / ALTA | ERTAINA / MEDIA | BAXUA / BAJA | OHIKO IRAKURLEA / LECTOR HABITUAL | ALDIZKAKO IRAKURLEA / LECTOR OCASIONAL |
| **ASTEGUNETAN** / DÍAS LABORABLES | | | | | | | | | | |
| BATERE EZ / *NADA* | 3 | 6 | 5 | 2 | 1 | 2 | 2 | 7 | 1 | 12 |
| 15 MINUTU BAINO GUTXIAGO / *MENOS DE 15 MINUTOS* | 12 | 23 | 14 | 9 | 7 | 3 | 12 | 14 | 8 | 31 |
| 15 ETA 30 MINUTU ARTEAN / *ENTRE 15 Y 30 MINUTOS* | 29 | 33 | 34 | 31 | 19 | 30 | 30 | 28 | 28 | 36 |
| 30 MINUTU ETA ORDUBETE ARTEAN / *ENTRE 30 MINUTOS Y UNA HORA* | 29 | 16 | 26 | 32 | 37 | 30 | 30 | 28 | 33 | 14 |
| ORDUBETE ETA BI ORDU ARTEAN / *ENTRE 1 Y 2 HORAS* | 21 | 18 | 17 | 20 | 28 | 28 | 21 | 18 | 24 | 4 |
| BI ORDU BAINO GEHIAGO / *MÁS DE DOS HORAS* | 5 | 4 | 3 | 5 | 8 | 5 | 4 | 6 | 6 | 1 |
| ED-EE / *NS-NC* | 1 | 1 | 1 | 1 | 0 | 1 | 1 | 1 | 0 | 1 |
| **ASTEBURU ETA JAI EGUNETAN** / FINES DE SEMANA Y FESTIVOS | | | | | | | | | | |
| BATERE EZ / *NADA* | 7 | 11 | 8 | 8 | 3 | 3 | 7 | 9 | 5 | 17 |
| 15 MINUTU BAINO GUTXIAGO / *MENOS DE 15 MINUTOS* | 13 | 22 | 15 | 12 | 8 | 7 | 13 | 16 | 11 | 24 |
| 15 ETA 30 MINUTU ARTEAN / *ENTRE 15 Y 30 MINUTOS* | 24 | 28 | 27 | 25 | 15 | 28 | 24 | 23 | 21 | 36 |
| 30 MINUTU ETA ORDUBETE ARTEAN / *ENTRE 30 MINUTOS Y UNA HORA* | 25 | 18 | 26 | 25 | 29 | 20 | 26 | 25 | 27 | 16 |
| ORDUBETE ETA BI ORDU ARTEAN / *ENTRE 1 Y 2 HORAS* | 23 | 16 | 19 | 21 | 35 | 33 | 23 | 21 | 27 | 5 |
| BI ORDU BAINO GEHIAGO / *MÁS DE DOS HORAS* | 6 | 5 | 4 | 7 | 10 | 10 | 7 | 6 | 8 | 1 |
| ED-EE / *NS-NC* | 0 | 1 | 1 | 1 | 0 | 0 | 0 | 1 | 0 | 1 |
| (EHUNEKO BERTIKALAK) / *(PORCENTAJES VERTICALES)* | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 |

☑ Irakurleen ikasketa maila igo ahala, irakurtzen batere denborarik igarotzen ez dutenak gutxitzen dira bai astegunetan bai asteburu eta jaiegunetan ere. Gainera, ikasketa maila igotzen den neurrian gehitzen doaz egunero ordu erdi baino gehiago irakurtzen pasatzen dutenak (bereziki goi-mailako ikasketak dituztenen artean, astegunetan %73k eta asteburuetan %74k ordubete baino gehiago igarotzen baitute).

☑ Klase sozialaren arabera aurreko joera bera ikusten da. Klase soziala igo ahala, batere denborarik igarotzen ez dutenak gutxitzen dira eta egunero ordubetetik gora irakurtzen dutenak gehitzen (bereziki klase altukoak nabarmentzen dira).

☑ Alderik nabarmenena irakurle motaren arabera dago: ohiko irakurleen artean denborarik igarotzen ez dutenak gutxiago dira aldizkakoen artean baino, astegunetan nahiz asteburu eta jaiegunetan; gainera, ohiko irakurleen artean askoz gehiagok pasatzen dute egunero ordubete baino gehiago irakurtzen, astegun nahiz asteburu eta jai egunetan, aldizkako irakurleek baino.

☑ A medida que asciende el nivel de estudios descienden quienes no pasan tiempo leyendo tanto los días laborables como los fines de semana y festivos. Además, a medida que sube el nivel de estudios van aumentando quienes pasan diariamente más de media hora leyendo (sobre todo entre quienes tienen estudios superiores pues dedican más de una hora a la lectura el 73% los días laborables y el 74% los fines de semana y festivos).

☑ En función de la clase social se observa también la tendencia anterior. A medida que asciende la clase social disminuyen quienes no dedican tiempo a leer y aumentan quienes dedican más de una hora diaria (destacan especialmente las y los de clase alta).

☑ En función del tipo de lector/a es más notable la diferencia: quienes no dedican tiempo a la lectura son más entre las y los lectores ocasionales que entre las y los habituales, tanto en días laborables como fines de semana y festivos; además, entre las y los lectores habituales son muchos más quienes le dedican más de una hora diaria que entre las y los lectores ocasionales.

# Irakurketa ohitura eta maiztasuna / *Hábito y frecuencia de lectura*

## Irakurgaien euskarria / *Soporte de los materiales de lectura*

(GUZTIZKOAK / *TOTALES*)

**Eta testuak paperean (egunkariak, aldizkariak, liburuak e.a.) irakurtzen dituzu, ordenagailuan (prentsa edo liburu elektronikoak, multimedia e.a.) irakurtzen dituzu edo bietan?** / *¿Y suele Ud. leer textos en papel (prensa, revistas, libros, etc.), en el ordenador (libros electrónicos, prensa electrónica, multimedia, etc.), o en ambos?*

| IRAKURLEAK BAKARRIK (BIZTANLEEN % 91) *SÓLO LECTORES Y LECTORAS (91% DE LA POBLACIÓN)* | 2004KO URRIA *OCTUBRE 2004* |
|---|---|
| PAPEREAN / *EN PAPEL* | 82 |
| ORDENAGAILUAN / *EN EL ORDENADOR* | 1 |
| BIETAN / *EN AMBOS* | 17 |
| ED-EE / *NS-NC* | 0 |
| (EHUNEKO BERTIKALAK) / *(PORCENTAJES VERTICALES)* | 100 |




☑ EAEko irakurleen (biztanleen %91 direla kontuan hartuz) gehiengo nagusiak testuak paperean irakurtzen dituzte (%82k), beste %17k paperean eta ordenagailuan, eta soilik %1ek ordenagailuan.

☑ La gran mayoría de las y los lectores de la CAPV (considerando que son el 91% de la población) leen los textos en papel (82%), otro 17% los leen en papel y ordenador, y únicamente un 1% en el ordenador.

# Irakurketa ohitura eta maiztasuna / *Hábito y frecuencia de lectura*

## Irakurgaien euskarria / *Soporte de los materiales de lectura*

(KOLEKTIBOKA / *POR COLECTIVOS*)

**Eta testuak paperean (egunkariak, aldizkariak, liburuak e.a.) irakurtzen dituzu, ordenagailuan (prentsa edo liburu elektronikoak, multimedia e.a.) irakurtzen dituzu edo bietan?** / *¿Y suele Ud. leer textos en papel (prensa, revistas, libros, etc.), en el ordenador (libros electrónicos, prensa electrónica, multimedia, etc.), o en ambos?*

| IRAKURLEAK BAKARRIK (BIZTANLEEN % 91) *SÓLO LECTORES Y LECTORAS (91% DE LA POBLACIÓN)* | 2004KO URRIA *OCTUBRE 2004* | LURRALDEA / *TERRITORIO* | | | SEXUA / *SEXO* | | ADIN TALDEAK / *GRUPOS DE EDAD* | | | | UDALERRIAREN TAMAINA *TAMAÑO MUNICIPIO* | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | ARABA | BIZKAIA | GIPUZKOA | GIZONEZKOA *VARÓN* | EMAKUMEZKOA *MUJER* | 18-29 | 30-45 | 46-64 | ≥65 | TXIKIA *PEQUEÑO* | ERTAINA *MEDIANO* | HIRIBURUA *CAPITAL* |
| PAPEREAN / *EN PAPEL* | 82 | 80 | 81 | 84 | 79 | 85 | 66 | 79 | 91 | 96 | 84 | 82 | 81 |
| ORDENAGAILUAN / *EN EL ORDENADOR* | 1 | 1 | 2 | 1 | 1 | 1 | 3 | 2 | 1 | 0 | 2 | 1 | 2 |
| BIETAN / *EN AMBOS* | 17 | 19 | 17 | 15 | 20 | 13 | 32 | 19 | 9 | 4 | 14 | 17 | 18 |
| ED-EE / *NS-NC* | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| (EHUNEKO BERTIKALAK) / *(PORCENTAJES VERTICALES)* | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 |

| | IKASKETA MAILA *NIVEL DE ESTUDIOS* | | | | HAUTEMANDAKO KLASE SOZIALA *CLASE SOCIAL SENTIDA* | | | IRAKURLE MOTA *TIPO DE LECTOR* | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | <LEHEN MAILAKOAK <PRIMARIOS | LEHEN MAILAKOAK PRIMARIOS | BIGARREN MAILAKOAK SECUNDARIOS | GOI-MAILAKOAK SUPERIORES | ALTUA ALTA | ERTAINA MEDIA | BAXUA BAJA | OHIKO IRAKURLEA LECTOR HABITUAL | ALDIZKAKO IRAKURLEA LECTOR OCASIONAL |
| PAPEREAN / *EN PAPEL* | 97 | 92 | 78 | 66 | 74 | 81 | 86 | 80 | 91 |
| ORDENAGAILUAN / *EN EL ORDENADOR* | 0 | 1 | 2 | 3 | 3 | 1 | 1 | 1 | 2 |
| BIETAN / *EN AMBOS* | 3 | 7 | 20 | 31 | 23 | 18 | 12 | 19 | 7 |
| ED-EE / *NS-NC* | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| (EHUNEKO BERTIKALAK) / *(PORCENTAJES VERTICALES)* | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 |

☑ Emakumezko irakurleek pixka bat gehiago irakurtzen dute paperean eta aldiz, gizonezkoek pixka bat gehiago bi euskarrietan (%20k eta %13k, hurrenez hurren).

☑ Irakurleen adina igo ahala, dezente gehiagok irakurtzen dute paperean eta gutxiagok ordenagailuan (nahiz eta gazteenen artean oraindik %3 soilik diren) edota bietan.

☑ Ikasketa maila igo ahala, paperean irakurtzen dutenak gutxitzen doaz eta gehitzen ordenagailuan eta batez ere bi euskarrietan egiten dutenak.

☑ Klase soziala igo ahala, gutxiago dira paperean irakurtzen dutenak eta gehiago bi euskarrietan irakurtzen dutenak. Halaber, ordenagailuan bakarrik irakurtzen dutenak, oraindik gutxiengo bat diren arren, %3 dira klase altukoen artean eta %1 besteetan.

☑ Ohiko irakurleek aldizkakoek baino gutxiago irakurtzen dute paperean eta gehiago euskarri mota bietan.

☑ Las mujeres lectoras leen ligeramente más en papel y los hombres ligeramente más en los dos soportes (20% y 13%, respectivamente).

☑ A medida que asciende la edad aumentan bastante quienes leen en papel y descienden quienes leen en el ordenador (aunque aún son únicamente el 3% entre los más jóvenes) y en los dos soportes.

☑ A medida que asciende el nivel de estudios de la gente, van descendiendo quienes leen en papel y aumentando quienes leen en el ordenador y en ambos soportes.

☑ A medida que asciende la clase social, disminuyen quienes leen en papel y aumentan quienes leen en los dos soportes. Asimismo, quienes leen sólo en el ordenador, aunque sean todavía una minoría, son el 3% entre las y los de clase alta y un 1% en el resto de colectivos.

☑ Las y los lectores habituales leen menos en papel y más en los dos soportes que las y los lectores ocasionales.

## B - Egunkarien irakurketa ohiturak / *Hábitos de lectura de periódicos*

- Egunkarien irakurketa maiztasuna / *Frecuencia de lectura de periódicos*
- Irakurtzen den egunkari mota / *Tipo de periódico que se lee*
- Irakurtzen den egunkari kopurua, astegunetan, asteburu edo jai egunetan / *Cantidad de periódicos leídos en un día laborable, en fines de semana y festivos*
- Irakurtzen diren egunkarien hizkuntza / *Idioma de los diarios que se leen*

# Egunkarien irakurketa ohiturak / *Hábitos de lectura de periódicos*

## Egunkarien irakurketa maiztasuna / *Frecuencia de lectura de periódicos*

(GUZTIZKOAK / *TOTALES*)

**Esango zenidake zenbatero irakurtzen dituzun egunkariak?** / *¿Podría decirme con qué frecuencia suele Ud. leer periódicos?*

| IRAKURLEAK BAKARRIK (BIZTANLEEN %91) *SÓLO LECTORES Y LECTORAS (91% DE LA POBLACIÓN)* | EAE 2004KO URRIA *CAPV OCTUBRE 2004* | ESPAINIAKO ESTATUA 2003KO OTSAILA *ESTADO ESPAÑOL FEBRERO 2003* * |
|---|---|---|
| EGUNERO EDO IA EGUNERO / *TODOS O CASI TODOS LOS DÍAS* | 57 | 45 |
| ASTEAN 3 EDO 4 ALDIZ / *TRES O CUATRO VECES POR SEMANA* | 13 | 12 |
| ASTEAN BEHIN EDO BITAN / *UNA O DOS VECES POR SEMANA* | 18 | 22 |
| HILEAN ZENBAITETAN / *VARIAS VECES AL MES* | 3 | 3 |
| HILEAN BEHIN EDO BITAN / *UNA O DOS VECES AL MES* | 0 | 2 |
| GUTXIAGOTAN / *CON MENOR FRECUENCIA* | 1 | 3 |
| INOIZ EZ EDO IA INOIZ EZ / *NUNCA O CASI NUNCA* | 7 | 13 |
| ED-EE / *NS-NC* | 0 | 0 |
| (EHUNEKO BERTIKALAK) / *(PORCENTAJES VERTICALES)* | 100 | 100 |

* CIS (CENTRO DE INVESTIGACIONES SOCIOLÓGICAS), 2.478. IKERKETA: "AISIALDIA ETA IRAKURKETA OHITURAK", 2003KO OTSAILA / *CIS (CENTRO DE INVESTIGACIONES SOCIOLÓGICAS), ESTUDIO Nº 2.478:"TIEMPO LIBRE Y HÁBITOS DE LECTURA"", FEBRERO 2003*




☑ EAEko irakurleen (biztanleen %91 direla kontuan izanik) %57k egunero edo ia egunero irakurtzen dituzte egunkariak, %13k astean hiru edo lau aldiz eta %18k astean behin edo bitan. Beste %3k hilean zenbaitetan eta %1ek hilean behin baino gutxiagotan. Gainontzeko %7k inoiz edo ia inoiz ez dituzte irakurtzen.

☑ EAEko irakurleek Espainiakoek baino maiztasun handiagoz irakurtzen dituzte egunkariak. Estatuan egunero edo ia egunero irakurtzen dituztenak %45 diren bitartean gurean %57 dira; gainera, EAEkoen ia bikoitza dira Estatuan inoiz edo ia inoiz egunkaririk irakurtzen ez dutenak (%13 eta %7, hurrenez hurren).

☑ El 57% de las y los lectores de la CAPV (considerando que son el 91% de la población) leen todos o casi todos los días los periódicos, el 13% tres o cuatro veces por semana y el 18% una o dos veces por semana. Otro 3% los leen varias veces al mes y un 1% con menor frecuencia. El restante 7% no leen nunca o casi nunca.

☑ Las y los lectores de la CAPV leen periódicos con mayor frecuencia que las y los del Estado. En el Estado el 45% los leen todos o casi todos los días mientras en la CAPV ascienden hasta el 57% quienes lo hacen; además, quienes no leen nunca o casi nunca son casi el doble en el Estado que en la CAPV (13% y7%, respectivamente).

# Egunkarien irakurketa ohiturak / *Hábitos de lectura de periódicos*

## Egunkarien irakurketa maiztasuna / *Frecuencia de lectura de periódicos*

(KOLEKTIBOKA I / *POR COLECTIVOS I)*

**Esango zenidake zenbatero irakurtzen dituzun egunkariak?** / *¿Podría decirme con qué frecuencia suele Ud. leer periódicos?*

| IRAKURLEAK BAKARRIK (BIZTANLEEN % 91) / *SÓLO LECTORES Y LECTORAS (91% DE LA POBLACIÓN)* | 2004KO URRIA / *OCTUBRE 2004* | LURRALDEA / *TERRITORIO* | | | SEXUA / *SEXO* | | ADIN TALDEAK / *GRUPOS DE EDAD* | | | | UDALERRIAREN TAMAINA / *TAMAÑO MUNICIPIO* | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | ARABA | BIZKAIA | GIPUZKOA | GIZONEZKOA / *VARÓN* | EMAKUMEZKOA / *MUJER* | 18-29 | 30-45 | 46-64 | ≥65 | TXIKIA / *PEQUEÑO* | ERTAINA / *MEDIANO* | HIRIBURUA / *CAPITAL* |
| EGUNERO EDO IA EGUNERO / *TODOS O CASI TODOS LOS DÍAS* | 57 | 55 | 54 | 63 | 65 | 49 | 48 | 58 | 64 | 58 | 59 | 56 | 58 |
| ASTEAN 3 EDO 4 ALDIZ / *TRES O CUATRO VECES POR SEMANA* | 13 | 9 | 15 | 12 | 13 | 13 | 15 | 14 | 10 | 13 | 12 | 15 | 11 |
| ASTEAN BEHIN EDO BITAN / *UNA O DOS VECES POR SEMANA* | 18 | 23 | 19 | 15 | 14 | 22 | 21 | 18 | 17 | 16 | 18 | 17 | 19 |
| HILEAN ZENBAITETAN / *VARIAS VECES AL MES* | 3 | 3 | 3 | 2 | 1 | 4 | 3 | 2 | 2 | 3 | 4 | 3 | 2 |
| HILEAN BEHIN EDO BITAN / *UNA O DOS VECES AL MES* | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 1 | 1 | 0 | 1 | 0 |
| GUTXIAGOTAN / *CON MENOR FRECUENCIA* | 1 | 2 | 1 | 1 | 1 | 2 | 2 | 1 | 1 | 1 | 1 | 1 | 1 |
| INOIZ EZ EDO IA INOIZ EZ / *NUNCA O CASI NUNCA* | 7 | 8 | 8 | 6 | 5 | 10 | 10 | 7 | 5 | 9 | 6 | 7 | 8 |
| ED-EE / *NS-NC* | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| (EHUNEKO BERTIKALAK) / *(PORCENTAJES VERTICALES)* | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 |

☑ Gipuzkoan egunkariak egunero edo ia egunero irakurtzen dituzten irakurleak beste Lurraldeetan baino gehixeago dira (%63), eta aldiz astean hiru edo lau aldiz irakurtzen dituztenak Bizkaian gehixeago eta astean behin edo bitan irakurtzen dituztenak Araban.

☑ Gizonezkoek emakumezkoek baino maiztasun handiagoarekin irakurtzen dituzte egunkariak (egunero edo ia egunero %65ek eta emakumeen %49k). Aldiz emakumeen artean astean behin edo bitan irakurtzen dituztenak gehiago dira. Gainera inoiz edo ia inoiz irakurtzen ez dituztenak %5 dira gizonen artean eta %10 emakumeen artean.

☑ Adina igo ahala, egunero edo ia egunero egunkariak irakurtzen dituztenen kopurua igotzen da (65 urtetik aurrera kopurua berriro jaisten den arte). Halaber, egunkaririk inoiz edo ia inoiz irakurtzen ez dutenak gazteenen (%10) eta zaharrenen (%9) artean dira beste taldeetan baino gehiago.

☑ En Gipuzkoa son algunos más que en el resto de los territorios quienes leen los periódicos (casi) todos los días (63%) y, en cambio, algunos más quienes leen tres o cuatro veces a la semana en Bizkaia, en Araba lo son quienes los leen una o dos veces a la semana.

☑ Los hombres leen los periódicos con mayor frecuencia que las mujeres (el 65% (casi) todos los días frente al 49% de las mujeres). En cambio, entre las mujeres son más quienes los leen una o dos veces a la semana. Además, quienes no los leen nunca o casi nunca son el 5% entre los hombres y el 10% entre las mujeres.

☑ A medida que asciende la edad, aumenta el número de quienes leen los periódicos todos o casi todos los días (descendiendo nuevamente a partir de los 65 años). En el mismo sentido, quienes no leen periódicos nunca o casi nunca son más en el grupo de edad más joven (10%) y en el mayo (9%).

# Egunkarien irakurketa ohiturak / *Hábitos de lectura de periódicos*

## Egunkarien irakurketa maiztasuna / *Frecuencia de lectura de periódicos*

(KOLEKTIBOKA II / *POR COLECTIVOS II)*

Esango zenidake zenbatero irakurtzen dituzun egunkariak? / *¿Podría decirme con qué frecuencia suele Ud. leer periódicos?*

| IRAKURLEAK BAKARRIK (BIZTANLEEN % 91) *SÓLO LECTORES Y LECTORAS (91% DE LA POBLACIÓN)* | 2004KO URRIA *OCTUBRE 2004* | IKASKETA MAILA *NIVEL DE ESTUDIOS* | | | | HAUTEMANDAKO KLASE SOZIALA *CLASE SOCIAL SENTIDA* | | | IRAKURLE MOTA *TIPO DE LECTOR* | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | <LEHEN MAILAKOAK <PRIMARIOS | LEHEN MAILAKOAK PRIMARIOS | BIGARREN MAILAKOAK SECUNDARIOS | GOI-MAILAKOAK SUPERIORES | ALTUA ALTA | ERTAINA MEDIA | BAXUA BAJA | OHIKO IRAKURLEA LECTOR HABITUAL | ALDIZKAKO IRAKURLEA LECTOR OCASIONAL |
| EGUNERO EDO IA EGUNERO / *TODOS O CASI TODOS LOS DÍAS* | 57 | 53 | 52 | 57 | 67 | 78 | 58 | 52 | 64 | 27 |
| ASTEAN 3 EDO 4 ALDIZ / *TRES O CUATRO VECES POR SEMANA* | 13 | 11 | 12 | 14 | 13 | 9 | 13 | 13 | 13 | 14 |
| ASTEAN BEHIN EDO BITAN / *UNA O DOS VECES POR SEMANA* | 18 | 16 | 23 | 17 | 14 | 7 | 18 | 21 | 15 | 34 |
| HILEAN ZENBAITETAN / *VARIAS VECES AL MES* | 3 | 4 | 3 | 2 | 1 | 1 | 3 | 3 | 2 | 7 |
| HILEAN BEHIN EDO BITAN / *UNA O DOS VECES AL MES* | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 2 |
| GUTXIAGOTAN / *CON MENOR FRECUENCIA* | 1 | 1 | 1 | 2 | 0 | 1 | 1 | 1 | 1 | 3 |
| INOIZ EZ EDO IA INOIZ EZ / *NUNCA O CASI NUNCA* | 7 | 14 | 8 | 7 | 3 | 4 | 6 | 10 | 6 | 12 |
| ED-EE / *NS-NC* | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| (EHUNEKO BERTIKALAK) / *(PORCENTAJES VERTICALES)* | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 |

☑ Beste taldeetan baino gehiago dira egunero edo ia egunero egunkariak irakurtzen dituztenak bigarren eta batez ere goi-mailako ikasketak dituztenen artean. Astean behin edo bitan irakurtzen dituztenen artean pixka bat gehiago dira lehen mailako ikasketak dituztenak. Bestalde, ikasketa maila igo ahala, hilean zenbaitetan edota inoiz edo ia inoiz egunkaririk irakurtzen ez dituztenen kopuruek behera egiten dute (%14 dira lehen mailakoak baino gutxiago dituztenen artean eta %3raino jaisten dira goi-mailakoen artean).

☑ Irakurleen klase soziala igo ahala, egunkariak maizago irakurtzen dira (klase altukoen artean %78k (ia) egunero irakurtzen dituzten bitartean klase baxuekoen artean %52k) eta aldi berean, inoiz edo inoiz irakurtzen ez dituztenak gutxitzen dira. Gainera, klase soziala jaitsi ahala astean behin edo bitan irakurtzen dituztenen kopurua gehitzen doa.

☑ Ohiko irakurleen %64k egunero edo ia egunero irakurtzen dituzte egunkariak eta aldiz aldizkakoen artean %27k soilik. Azken hauen artean astean behin edo bitan edota hilean hainbat aldiz irakurtzen dituztenen kopurua handiagoa da eta gainera, inoiz edo ia inoiz irakurtzen ez dituztenen kopurua %6tik %12raino igotzen da.

☑ Quienes tienen estudios secundarios y sobre todo superiores leen periódicos todos o casi todos los días mayormente que los del resto de grupos. Entre quienes los leen una o dos veces por semana son más las y los de estudios primarios. Por otro lado, a medida que aumenta el nivel de estudios disminuye el porcentaje de quienes los leen varias veces al mes y/o no los leen nunca o casi nunca (el 14% no los leen entre quienes tienen estudios menores que los primarios descendiendo al 3% entre quienes tienen estudios superiores).

☑ A medida que asciende la clase social de las y los lectores, se leen los periódicos más frecuentemente (el 78% de los de clase alta los leen (casi) a diario mientras que son el 58% entre los de clase baja) y al mismo tiempo, desciende el número de quienes no los leen nunca o casi nunca. Además, a medida que desciende la clase social aumentan quienes leen periódicos una o dos veces por semana.

☑ El 64% de las y los lectores habituales leen los periódicos todos o casi todos los días mientras que únicamente lo hace el 27% de las y los ocasionales. Entre estos últimos son más quienes leen una o dos veces a la semana o varias al mes y además, el porcentaje de quienes no leen nunca o casi nunca asciende del 6% al 12%.

# Egunkarien irakurketa ohiturak / *Hábitos de lectura de periódicos*

## Irakurtzen den egunkari mota / *Tipo de periódico que se lee*

(GUZTIZKOAK / *TOTALES*)




**Zehazkiago, nolako egunkariak irakurtzen dituzu?** / *Más concretamente, ¿suele Ud. leer periódicos…?*

| BAIEZKOEN % / *% DE RESPUESTAS AFIRMATIVAS*<br>OHIKO EGUNKARI IRAKURLEAK BAKARRIK (BIZTANLEEN % 80)<br>*SÓLO LECTORES Y LECTORAS HABITUALES DE PERIÓDICOS (80 % DE LA POBLACIÓN)* | EAE 2004KO URRIA<br>*CAPV OCTUBRE 2004* | ESPAINIAKO ESTATUA 2003KO OTSAILA<br>*ESTADO ESPAÑOL FEBRERO 2003* * |
|---|---|---|
| INFORMAZIO OROKORREKOAK / *DE INFORMACIÓN GENERAL* | 98 | 94 |
| KIROLETAKOAK / *DEPORTIVOS* | 29 | 29 |
| EKONOMIKOAK / *ECONÓMICOS* | 12 | 11 |

* CIS (CENTRO DE INVESTIGACIONES SOCIOLÓGICAS), 2.478. IKERKETA: "AISIALDIA ETA IRAKURKETA OHITURAK", 2003KO OTSAILA / *CIS (CENTRO DE INVESTIGACIONES SOCIOLÓGICAS), ESTUDIO Nº 2.478:"TIEMPO LIBRE Y HÁBITOS DE LECTURA"", FEBRERO 2003*

☑ Astean behin gutxienez egunkariak irakurtzen dituztenen artean (herritarren %80,6 direla kontuan izanik) ia guztiek informazio orokorrekoak irakurtzen dituzte (%98k). Ondoren datoz kiroletakoak (%29k irakurriak) eta are gutxiagok irakurtzen dituzten egunkari ekonomikoak (%12k).

☑ Espainian ere egunkari motaren araberako irakurleen banaketa Euskadikoaren oso antzekoa da.

☑ Entre quienes leen periódicos al menos una vez a la semana (teniendo en cuenta que son el 80,6% de la población) casi todos leen periódicos de información general (98%), son menos quienes leen los deportivos (29%) y aún menos los periódicos económicos (12%).

☑ La distribución de lectores por tipo de periódico en el Estado es muy similar al de Euskadi.

# Egunkarien irakurketa ohiturak / *Hábitos de lectura de periódicos*

## Irakurtzen den egunkari mota / *Tipo de periódico que se lee*

(KOLEKTIBOKA / *POR COLECTIVOS)*

**Zehazkiago, nolako egunkariak irakurtzen dituzu?** / *Más concretamente, ¿suele Ud. leer periódicos…? **

| BAIEZKOEN % / *% DE RESPUESTA AFIRMATIVA*<br>OHIKO EGUNKARI IRAKURLEAK BAKARRIK (BIZTANLEEN % 80)<br>*SÓLO LECTORES Y LECTORAS HABITUALES DE PERIÓDICOS (80 % DE LA POBLACIÓN)* | 2004KO URRIA<br>*OCTUBRE 2004* | LURRALDEA / *TERRITORIO* | | | SEXUA / *SEXO* | | ADIN TALDEAK / *GRUPOS DE EDAD* | | | | UDALERRIAREN TAMAINA<br>*TAMAÑO MUNICIPIO* | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | ARABA | BIZKAIA | GIPUZKOA | GIZONEZKOA<br>*VARÓN* | EMAKUMEZKOA<br>*MUJER* | 18-29 | 30-45 | 46-64 | ≥65 | TXIKIA<br>*PEQUEÑO* | ERTAINA<br>*MEDIANO* | HIRIBURUA<br>*CAPITAL* |
| INFORMAZIO OROKORREKOAK / *DE INFORMACIÓN GENERAL* | 98 | 98 | 98 | 99 | 97 | 99 | 98 | 99 | 99 | 96 | 98 | 98 | 98 |
| KIROLETAKOAK / *DEPORTIVOS* | 29 | 30 | 30 | 26 | 46 | 10 | 36 | 28 | 27 | 22 | 34 | 27 | 28 |
| EKONOMIKOAK / *ECONÓMICOS* | 12 | 13 | 12 | 11 | 15 | 9 | 7 | 15 | 14 | 12 | 10 | 12 | 14 |

| | IKASKETA MAILA<br>*NIVEL DE ESTUDIOS* | | | | HAUTEMANDAKO KLASE SOZIALA<br>*CLASE SOCIAL SENTIDA* | | | IRAKURLE MOTA<br>*TIPO DE LECTOR* | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | <LEHEN MAILAKOAK<br><PRIMARIOS | LEHEN MAILAKOAK<br>PRIMARIOS | BIGARREN MAILAKOAK<br>SECUNDARIOS | GOI-MAILAKOAK<br>SUPERIORES | ALTUA<br>ALTA | ERTAINA<br>MEDIA | BAXUA<br>BAJA | OHIKO IRAKURLEA<br>LECTOR HABITUAL | ALDIZKAKO IRAKURLEA<br>LECTOR OCASIONAL |
| INFORMAZIO OROKORREKOAK / *DE INFORMACIÓN GENERAL* | 96 | 98 | 98 | 99 | 99 | 98 | 97 | 99 | 95 |
| KIROLETAKOAK / *DEPORTIVOS* | 25 | 25 | 37 | 22 | 39 | 28 | 28 | 30 | 22 |
| EKONOMIKOAK / *ECONÓMICOS* | 10 | 9 | 12 | 17 | 21 | 13 | 10 | 13 | 8 |

☑ Talde guztietan gutxienez %95ek informazio orokorreko egunkariak irakurtzen dituzte.

☑ Kirol egunkariak gehiago irakurtzen dituzte ondoko taldeetakoek: batez ere gizonezkoek (%46k), pixka bat gehiago herri txikietako biztanleek, bigarren mailako ikasketak dituztenek, klase sozial altukoek eta/edo ohiko irakurleek. Irakurleen adina jaitsi ahala ere horien irakurleak gehitzen doaz (18-29 urte artekoen %36k).

☑ Egunkari ekonomikoak besteek baino apur bat gehiago irakurtzen dituzte ondoko taldeetakoek: gizonezkoek, 30 urte edo gehiago dituztenek, goi-mailako ikasketak dituztenek eta/edo ohiko irakurleek. Klase soziala igo ahala ere gehitzen dira horiek irakurtzen dituztenak (%10etik klase altukoen artean %21ra igotzen da).

☑ En todos los colectivos son al menos un 95% quienes leen los periódicos de información general.

☑ Los periódicos deportivos son más leídos entre los siguientes colectivos: especialmente los hombres (46%), ligeramente más por los habitantes de los municipios pequeños, quienes tienen estudios secundarios, las y los de clase social alta y/o las y los lectores habituales. También aumentan las y los lectores de éstos a medida que disminuye la edad (el 36% entre 18-29 años).

☑ Los periódicos económicos son ligeramente más leídos en los siguientes colectivos: los hombres, quienes tienen 30 o más años, estudios superiores y/o las y los lectores habituales. También son más quienes los leen a medida que ascendemos en la clase social (asciende del 10% hasta el 21% entre las y los de clase alta).

# Egunkarien irakurketa ohiturak / *Hábitos de lectura de periódicos*

## Irakurtzen den egunkari kopurua astegunetan eta asteburu eta jai egunetan / *Cantidad de periódicos leídos en día laborable, fines de semana y festivos*

(GUZTIZKOAK / *TOTALES*)

**Normalean, astegunetan, zenbat egunkari irakurtzen dituzu? Eta asteburu eta jaiegunetan?** / *Por lo general, ¿cuántos periódicos suele Ud. leer en un día laborable? ¿Y los fines de semana y festivos?*

| OHIKO EGUNKARI IRAKURLEAK BAKARRIK (BIZTANLEEN % 80) *SÓLO LECTORES Y LECTORAS HABITUALES DE PERIÓDICOS (80 % DE LA POBLACIÓN)* | EAE 2004KO URRIA *CAPV OCTUBRE 2004* | ESPAINIAKO ESTATUA 2003KO OTSAILA *ESTADO ESPAÑOL FEBRERO 2003* * |
|---|---|---|
| **ASTEGUNETAN** / *LABORABLES* | | |
| BAT / *UNO* | 74 | 72 |
| BI / *DOS* | 16 | 14 |
| HIRU EDO GEHIAGO / *TRES O MÁS* | 2 | 3 |
| BAT ERE EZ / *NINGUNO* | 7 | 11 |
| ED-EE / *NS-NC* | 0 | 0 |
| **ASTEBURU ETA JAIEGUNETAN** / *FINES DE SEMANA Y FESTIVOS* | | |
| BAT / *UNO* | 64 | 69 |
| BI / *DOS* | 26 | 21 |
| HIRU EDO GEHIAGO / *TRES O MÁS* | 3 | 3 |
| BAT ERE EZ / *NINGUNO* | 4 | 6 |
| ED-EE / *NS-NC* | 2 | 1 |
| (EHUNEKO BERTIKALAK) / *(PORCENTAJES VERTICALES)* | 100 | 100 |

* CIS (CENTRO DE INVESTIGACIONES SOCIOLÓGICAS), 2.478. IKERKETA: "AISIALDIA ETA IRAKURKETA OHITURAK", 2003KO OTSAILA / *CIS (CENTRO DE INVESTIGACIONES SOCIOLÓGICAS), ESTUDIO Nº 2.478:"TIEMPO LIBRE Y HÁBITOS DE LECTURA"", FEBRERO 2003*

Irakurtzen den egunkari kopurua astegunetan eta asteburu eta jai egunetan / *Cantidad de periódicos leídos en día laborable, fines de semana y festivos*




☑ EAEko egunkari irakurleen artean %74k astegunetan egunkari bat irakurtzen dute, beste %16k bi irakurtzen dituzte eta soilik %2k hiru edo gehiago. Gainontzeko %7k ez dute astegunetan egunkaririk irakurtzen.

☑ Aldiz, asteburu eta jaiegunetan egunkari bat irakurtzen dutenak gutxiago dira (%69tik %64ra jaisten dira) eta bi irakurtzen dituztenak gehiago (%21etik %26raino igotzen dira). Beste %3k hiru edo gehiago irakurtzen dituzte eta soilik %4k ez dute egunkaririk irakurtzen.

☑ EAEko eta Estatuko egunkari irakurleek irakurtzen dituzten egunkari kopuruak konparatuz, ez dago ia alderik; asteburu eta jaiegunetan soilik egunkari bat irakurtzen dutenak pixka bat gehiago dira Estatuan eta bi egunkari irakurtzen dituztenak gurean.

☑ El 74% de las y los lectores de periódicos de la CAPV leen un periódico los días laborables, otro 16% leen dos y únicamente el 2% leen tres o más. El restante 7% no leen periódicos los días laborables.

☑ En cambio, los fines de semana y festivos son menos quienes leen un periódico (descienden del 69% al 64%) y ascienden quienes leen dos (del 21% hasta el 26%). Otro 3% leen tres o más y únicamente el 4% no leen periódicos los fines de semana y festivos.

☑ Comparando el número de periódicos leídos por las y los lectores de prensa del Estado y de la CAPV no hay casi diferencias, son ligeramente más en el Estado quienes leen un periódico los fines de semana y festivos y ligeramente más entre nosotros quienes leen dos.

# Egunkarien irakurketa ohiturak / *Hábitos de lectura de periódicos*

## Irakurtzen den egunkari kopurua astegunetan eta asteburu eta jai egunetan / *Cantidad de periódicos leídos en día laborable, fines de semana y festivos*

(KOLEKTIBOKA I / *POR COLECTIVOS I*)

**Normalean, astegunetan, zenbat egunkari irakurtzen dituzu? Eta asteburu eta jaiegunetan?** / *Por lo general, ¿cuántos periódicos suele Ud. leer en un día laborable? ¿Y los fines de semana y festivos?*

| OHIKO EGUNKARI IRAKURLEAK BAKARRIK (BIZTANLEEN % 80) *SÓLO LECTORES Y LECTORAS HABITUALES DE PERIÓDICOS (80 % DE LA POBLACIÓN)* | 2004KO URRIA *OCTUBRE 2004* | LURRALDEA / *TERRITORIO* | | | SEXUA / *SEXO* | | ADIN TALDEAK / *GRUPOS DE EDAD* | | | | UDALERRIAREN TAMAINA *TAMAÑO MUNICIPIO* | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | ARABA | BIZKAIA | GIPUZKOA | GIZONEZKOA *VARÓN* | EMAKUMEZKOA *MUJER* | 18-29 | 30-45 | 46-64 | ≥65 | TXIKIA *PEQUEÑO* | ERTAINA *MEDIANO* | HIRIBURUA *CAPITAL* |
| **ASTEGUNETAN** / *LABORABLES* | | | | | | | | | | | | | |
| BAT / *UNO* | **74** | 68 | 76 | 75 | 71 | 78 | 76 | 73 | 74 | 76 | 74 | 78 | 71 |
| BI / *DOS* | **16** | 16 | 15 | 18 | 22 | 10 | 15 | 18 | 17 | 13 | 19 | 15 | 16 |
| HIRU EDO GEHIAGO / *TRES O MÁS* | **2** | 1 | 3 | 2 | 3 | 2 | 3 | 2 | 3 | 2 | 2 | 3 | 3 |
| BAT ERE EZ / *NINGUNO* | **7** | 14 | 6 | 5 | 4 | 9 | 6 | 7 | 5 | 9 | 5 | 4 | 10 |
| ED-EE / *NS-NC* | **0** | 1 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 1 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| **ASTEBURU ETA JAIEGUNETAN** / *FINES DE SEMANA Y FESTIVOS* | | | | | | | | | | | | | |
| BAT / *UNO* | **64** | 63 | 64 | 64 | 57 | 72 | 65 | 59 | 65 | 70 | 62 | 64 | 65 |
| BI / *DOS* | **26** | 27 | 24 | 29 | 33 | 19 | 25 | 29 | 26 | 21 | 30 | 23 | 27 |
| HIRU EDO GEHIAGO / *TRES O MÁS* | **3** | 2 | 4 | 3 | 4 | 2 | 2 | 4 | 4 | 2 | 4 | 4 | 2 |
| BAT ERE EZ / *NINGUNO* | **4** | 8 | 5 | 2 | 4 | 4 | 6 | 5 | 2 | 4 | 4 | 5 | 3 |
| ED-EE / *NS-NC* | **2** | 0 | 3 | 2 | 2 | 3 | 2 | 3 | 2 | 3 | 1 | 4 | 2 |
| (EHUNEKO BERTIKALAK) / *(PORCENTAJES VERTICALES)* | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 |

☑ Lurraldearen arabera, astegunetan arabarren artean egunkari bat irakurtzen dutenak besteetan baino gutxiago dira eta gehiago dira, ordea, bat ere irakurtzen ez dutenak; asteburuetan ere beraiek dira bat ere irakurtzen ez dutenen artean nabarmentzen direnak (aldea batez ere Gipuzkoarekiko den arren).

☑ Gizonek emakumeek baino egunkari kopuru handiago irakurtzen dute (bi egunkari irakurtzen dituztenak emakumeen bikoitza dira), asteburu eta jaiegunetan aldea areagotzen delarik. Gainera, gehiago dira egunkariak irakurtzen ez dituzten emakumeak (%9k ez eta gizonen %4k).

☑ Bi egunkari edo gehiago irakurtzen dituztenak pixka bat gehiago dira erdiko adin taldeetan (30-64 urte artean). Aldiz astegunetan bat ere irakurtzen ez dutenak 65 urte edo gehiago dituztenen artean besteetan baino zenbait gehiago dira (%9). Aldiz, asteburuetan ez da alderik ikusten.

☑ Hiriburuetako biztanleen artean astegunetan egunkari bat irakurtzen dutenak besteetan baino gutxiago dira eta gehiago batere irakurtzen ez dituztenak; asteburu eta jaiegunetan, ordea, ez dago horrelako alderik.

☑ En función del territorio, quienes leen un periódico los días laborables son menos entre las y los alaveses y más, sin embargo, quienes no leen ninguno; también son ellos más entre quienes no leen los fines de semana y festivos (aunque la diferencia es sobre todo respecto Gipuzkoa).

☑ Los hombres leen una cantidad mayor de periódicos que las mujeres, incrementándose la diferencia los fines de semana y festivos. Además, son más las mujeres que no los leen (9% de las mujeres frente al 4% de los hombres).

☑ Quienes leen dos o más periódicos son ligeramente más en las edades intermedias (30-64 años). Entre quienes no leen periódicos los días laborables son algunos más que entre los demás las y los de 65 años o más (9%). Sin embargo, los fines de semana y festivos no se observan diferencias.

☑ Entre las y los habitantes de las capitales quienes leen un periódico los días laborables son menos que entre el resto y más quienes no leen ninguno; los fines de semana y festivos, por el contrario, no hay tantas diferencias.

# Egunkarien irakurketa ohiturak / *Hábitos de lectura de periódicos*

## Irakurtzen den egunkari kopurua astegunetan eta asteburu eta jai egunetan / *Cantidad de periódicos leídos en día laborable, fines de semana y festivos*

(KOLEKTIBOKA II / *POR COLECTIVOS II)*

**Normalean, astegunetan, zenbat egunkari irakurtzen dituzu? Eta asteburu eta jaiegunetan?** / *Por lo general, ¿cuántos periódicos suele Ud. leer en un día laborable? ¿Y los fines de semana y festivos?*

| OHIKO EGUNKARI IRAKURLEAK BAKARRIK (BIZTANLEEN % 80) *SÓLO LECTORES Y LECTORAS HABITUALES DE PERIÓDICOS (80 % DE LA POBLACIÓN)* | 2004KO URRIA *OCTUBRE 2004* | IKASKETA MAILA *NIVEL DE ESTUDIOS* | | | | HAUTEMANDAKO KLASE SOZIALA *CLASE SOCIAL SENTIDA* | | | IRAKURLE MOTA *TIPO DE LECTOR* | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | <LEHEN MAILAKOAK <PRIMARIOS | LEHEN MAILAKOAK PRIMARIOS | BIGARREN MAILAKOAK SECUNDARIOS | GOI-MAILAKOAK SUPERIORES | ALTUA ALTA | ERTAINA MEDIA | BAXUA BAJA | OHIKO IRAKURLEA LECTOR HABITUAL | ALDIZKAKO IRAKURLEA LECTOR OCASIONAL |
| **ASTEGUNETAN** / *LABORABLES* | | | | | | | | | | |
| BAT / *UNO* | 74 | 78 | 78 | 73 | 71 | 64 | 75 | 73 | 74 | 77 |
| BI / *DOS* | 16 | 12 | 14 | 18 | 18 | 27 | 16 | 15 | 18 | 5 |
| HIRU EDO GEHIAGO / *TRES O MÁS* | 2 | 2 | 1 | 2 | 5 | 8 | 2 | 2 | 3 | 0 |
| BAT ERE EZ / *NINGUNO* | 7 | 8 | 7 | 6 | 6 | 1 | 6 | 9 | 5 | 16 |
| ED-EE / *NS-NC* | 0 | 1 | 1 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 1 |
| **ASTEBURUETAN** / *FINES DE SEMANA Y FESTIVOS* | | | | | | | | | | |
| BAT / *UNO* | 64 | 71 | 70 | 62 | 56 | 53 | 64 | 65 | 62 | 75 |
| BI / *DOS* | 26 | 18 | 21 | 28 | 33 | 34 | 26 | 24 | 29 | 11 |
| HIRU EDO GEHIAGO / *TRES O MÁS* | 3 | 1 | 2 | 3 | 5 | 11 | 3 | 3 | 4 | 1 |
| BAT ERE EZ / *NINGUNO* | 4 | 3 | 5 | 5 | 3 | 1 | 4 | 6 | 3 | 9 |
| ED-EE / *NS-NC* | 2 | 7 | 2 | 2 | 3 | 1 | 3 | 2 | 2 | 4 |
| (EHUNEKO BERTIKALAK) / *(PORCENTAJES VERTICALES)* | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 |

☑ Ikasketa mailak gora egin ahala, astegunetan irakurtzen den egunkari kopurua handiagoa da (bi egunkari edo gehiago goi-mailakoen %23k); asteburu eta jaiegunetan joera hori oraindik nabarmenagoa da (bi egunkari edo gehiago goi-mailakoen artean %38k).

☑ Klase sozial altukoek baxu eta ertainekoek baino egunkari kopuru handiagoa irakurtzen dute astegunetan zein asteburuetan. Gainera, klase soziala jaitsi ahala bat ere egunkaririk irakurtzen ez dutenen kopuruak gora egiten du.

☑ Bi egunkari edo gehiago irakurtzen dituztenen artean ohiko irakurleak aldizkakoak baino nahiko gehiago dira astegunetan, eta are gehiago asteburu eta jaiegunetan. Bat ere egunkaririk irakurtzen ez dutenak aldizkako irakurleen artean nabarmentzen dira bitartean (aldea batez ere astegunetan ikusten da).

☑ Entre quienes leen mayor número de periódicos los días laborables (dos o más periódicos) destacan los hombres; también se leen más diarios a medida que ascendemos en el nivel de estudios y la clase social. Se observa la misma tendencia respecto al número de periódicos leídos los fines de semana y festivos.

☑ Las y los de clase social alta leen una cantidad mayor de periódicos tanto en días laborables como en fines de semana y festivos. Además, aumenta el porcentaje de quienes no leen ninguno a medida que desciende la clase social.

☑ Son más entre las y los lectores habituales quienes leen dos o más periódicos que entre las y los ocasionales los días laborables y aún más los fines de semana y festivos. Mientras quienes no leen ningún periódico destacan entre las y los lectores ocasionales (la diferencia se observa sobre todo los días laborables).

# Egunkarien irakurketa ohiturak / *Hábitos de lectura de periódicos*

## Irakurtzen diren egunkarien hizkuntza / *Idioma de los diarios que se leen*

(GUZTIZKOAK / *TOTALES*)

**Normalean gaztelaniazko egunkariak irakurtzen dituzu? Eta euskarazkoak? Eta beste hizkuntzetakoak?** / *¿Suele leer Ud. habitualmente los periódicos en castellano? ¿Y en euskera? ¿Y en otros idiomas?*

| BAIEZKOEN % / *% DE RESPUESTAS AFIRMATIVAS*<br>**OHIKO EGUNKARI IRAKURLEAK BAKARRIK (BIZTANLEEN % 80)**<br>***SÓLO LECTORES Y LECTORAS HABITUALES DE PERIÓDICOS (80 % DE LA POBLACIÓN)*** | **EAE 2004KO URRIA**<br>***CAPV OCTUBRE 2004*** |
|---|---|
| GAZTELANIAZKOAK / *CASTELLANO* | 99 |
| EUSKARAZKOAK / *EUSKERA* | 18 |
| BESTE HIZKUNTZETAKOAK / *OTROS IDIOMAS* | 2 |

☑ EAEn egunkariak irakurtzen dituztenen artean (herritarren %80,6 direla kontuan hartuz) ia guztiek gaztelaniazkoak irakurtzen dituzte (%99k), euskaraz egunkaririk irakurtzen dutenak %18 dira eta soilik %2 dira beste hizkuntzetan egunkaririk irakurtzen dutenak.

☑ Entre las y los lectores de periódicos de la CAPV (considerando que son el 80,6% de la población) casi todos leen periódicos en castellano (99%), el 18% leen periódicos en euskera y únicamente el 2% leen diarios en otros idiomas.

# Egunkarien irakurketa ohiturak / *Hábitos de lectura de periódicos*

## Irakurtzen diren egunkarien hizkuntza / *Idioma de los diarios que se leen*

(KOLEKTIBOKA / *POR COLECTIVOS*)

**Normalean gaztelaniazko egunkariak irakurtzen dituzu? Eta euskarazkoak? Eta beste hizkuntzetakoak?** / *¿Suele leer Ud. habitualmente los periódicos en castellano? ¿Y en euskera? ¿Y en otros idiomas? **

| BAIEZKOEN % / *% DE RESPUESTAS AFIRMATIVAS*<br>**OHIKO EGUNKARI IRAKURLEAK BAKARRIK (BIZTANLEEN % 80)**<br>***SÓLO LECTORES Y LECTORAS HABITUALES DE PERIÓDICOS (80 % DE LA POBLACIÓN)*** | 2004KO URRIA<br>*OCTUBRE 2004* | LURRALDEA / *TERRITORIO* | | | SEXUA / *SEXO* | | ADIN TALDEAK / *GRUPOS DE EDAD* | | | | UDALERRIAREN TAMAINA<br>*TAMAÑO MUNICIPIO* | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | ARABA | BIZKAIA | GIPUZKOA | GIZONEZKOA<br>*VARÓN* | EMAKUMEZKOA<br>*MUJER* | 18-29 | 30-45 | 46-64 | ≥65 | TXIKIA<br>*PEQUEÑO* | ERTAINA<br>*MEDIANO* | HIRIBURUA<br>*CAPITAL* |
| GAZTELANIAZKOAK / *CASTELLANO* | **99** | 100 | 99 | 99 | 99 | 99 | 99 | 99 | 99 | 98 | 98 | 99 | 99 |
| EUSKARAZKOAK / *EUSKERA* | **18** | 10 | 14 | 29 | 20 | 16 | 26 | 18 | 15 | 13 | 29 | 17 | 13 |
| BESTE HIZKUNTZETAKOAK / *OTROS IDIOMAS* | **2** | 5 | 2 | 2 | 3 | 2 | 2 | 4 | 1 | 2 | 1 | 2 | 4 |

| | IKASKETA MAILA<br>*NIVEL DE ESTUDIOS* | | | | HAUTEMANDAKO KLASE SOZIALA<br>*CLASE SOCIAL SENTIDA* | | | IRAKURLE MOTA<br>*TIPO DE LECTOR* | | EUSKARAREN EZAGUTZA<br>*CONOCIMIENTO DE EUSKERA* | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | <LEHEN MAILAKOAK<br><PRIMARIOS | LEHEN MAILAKOAK<br>PRIMARIOS | BIGARREN MAILAKOAK<br>SECUNDARIOS | GOI-MAILAKOAK<br>SUPERIORES | ALTUA<br>ALTA | ERTAINA<br>MEDIA | BAXUA<br>BAJA | OHIKO IRAKURLEA<br>LECTOR HABITUAL | ALDIZKAKO IRAKURLEA<br>LECTOR OCASIONAL | EZ<br>*NO* | PIXKA BAT<br>*ALGO* | BAI<br>*SÍ* |
| GAZTELANIAZKOAK / *CASTELLANO* | 99 | 99 | 99 | 99 | 99 | 99 | 99 | 99 | 98 | 99 | 100 | 98 |
| EUSKARAZKOAK / *EUSKERA* | 13 | 14 | 20 | 24 | 19 | 20 | 14 | 20 | 10 | 1 | 6 | 50 |
| BESTE HIZKUNTZETAKOAK / *OTROS IDIOMAS* | 1 | 1 | 2 | 6 | 9 | 2 | 2 | 2 | 2 | 2 | 3 | 2 |

☑ Gaztelaniaz irakurtzen diren egunkarien kasuan ez dago taldeen artean alderik.

☑ Egunkariak euskaraz gehiago irakurtzen dituzte ondoko taldeetakoek: gipuzkoarrek, apur bat klase altu eta ertainekoek edota ohiko irakurleek. Gainera, irakurleen adina eta herriaren tamaina jaitsi ahala, gehiago irakurtzen dira egunkariak euskaraz (18-29 urte artean %26k eta 65 urtez gora %13k); baita ikasketa maila eta euskararen ezagutza gehitu ahala ere (%6k pixka bat dakitenen artean eta %50ek euskaldunen artean).

☑ Beste hizkuntzetan egunkariak irakurtzen dituztenak ikasketa mailak gora egin ahala gehiago dira (hala ere soilik %6) eta klase sozial altukoen artean besteetan baino nabarmen gehiago (%9 eta %2 aurrez aurre).

☑ No hay diferencias entre colectivos respecto a la lectura de periódicos en castellano.

☑ Los periódicos en euskera son más leídos en los siguientes colectivos: las y los guipuzoanos, ligeramente más las y los de clases media y alta, y/o las y los lectores habituales. Además; a medida que desciende la edad y el tamaño del municipio se leen más en euskera (26% entre los 18-29 años y el 13% entre quienes tienen 65 o más); también se leen más a medida que asciende el nivel de estudios y el conocimiento del euskera (del 6% entre quienes conocen algo hasta el 50% entre las y los euskaldunes).

☑ Quienes leen periódicos en otros idiomas son más a medida que asciende el nivel de estudios (aunque únicamente un 6%) y bastantes más entre quienes son de clase alta que entre el resto (9% frente al 2%).

## C - Aldizkarien irakurketa ohiturak / *Hábitos de lectura de revistas*

- Aldizkarien irakurketa maiztasuna / *Frecuencia de lectura de revistas*
- Irakurtzen den aldizkari mota / *Tipo de revista que se lee*
- Irakurtzen diren aldizkarien hizkuntza / *Idioma de las revistas que se leen*

# Aldizkarien irakurketa ohiturak / *Hábitos de lectura de revistas*

## Aldizkarien irakurketa maiztasuna / *Frecuencia de lectura de revistas*

(GUZTIZKOAK / *TOTALES*)

**Esango zenidake zenbatero irakurtzen dituzun aldizkariak?** / *¿Podría decirme con qué frecuencia suele Ud. leer revistas?*

| **IRAKURLEAK BAKARRIK (BIZTANLEEN % 91)** *SÓLO LECTORES Y LECTORAS (91% DE LA POBLACIÓN)* | **EAE 2004KO URRIA** *CAPV OCTUBRE 2004* | **ESPAINIAKO ESTATUA 2003KO OTSAILA** *ESTADO ESPAÑOL FEBRERO 2003 ** |
|---|---|---|
| EGUNERO EDO IA EGUNERO / *TODOS O CASI TODOS LOS DÍAS* | 4 | 5 |
| ASTEAN 3 EDO 4 ALDIZ / *TRES O CUATRO VECES POR SEMANA* | 5 | 6 |
| ASTEAN BEHIN EDO BITAN / *UNA O DOS VECES POR SEMANA* | 24 | 22 |
| HILEAN ZENBAITETAN / *VARIAS VECES AL MES* | 14 | 10 |
| HILEAN BEHIN EDO BITAN / *UNA O DOS VECES AL MES* | 13 | 10 |
| GUTXIAGOTAN / *CON MENOR FRECUENCIA* | 15 | 11 |
| INOIZ EZ EDO IA INOIZ EZ / *NUNCA O CASI NUNCA* | 25 | 36 |
| ED-EE / *NS-NC* | 0 | 0 |
| (EHUNEKO BERTIKALAK) / *(PORCENTAJES VERTICALES)* | 100 | 100 |

* CIS (CENTRO DE INVESTIGACIONES SOCIOLÓGICAS), 2.478. IKERKETA: "AISIALDIA ETA IRAKURKETA OHITURAK", 2003KO OTSAILA / *CIS (CENTRO DE INVESTIGACIONES SOCIOLÓGICAS), ESTUDIO Nº 2.478:"TIEMPO LIBRE Y HÁBITOS DE LECTURA"", FEBRERO 2003*

Aldizkarien irakurketa maiztasuna /
*Frecuencia de lectura de revistas*




☑ EAEko irakurleen (herritarren %91 direla kontuan izanik) %4k egunero edo ia egunero irakurtzen dituzte aldizkariak, %5ek astean hiru edo lau aldiz eta laurden batek astean behin edo bitan (%24k). Hilean zenbaitetan irakurtzen dituzte beste %14k, hilean behin edo bitan %13k eta maiztasun gutxiagorekin beste %15ek. Gainontzeko laurdenak (%25ek) inoiz edo ia inoiz ez dituzte irakurtzen.

☑ Espainiako Estatuan aldizkaririk inoiz edo ia inoiz irakurtzen ez dutenak gurean baino gehiago dira (%36 eta %25, hurrenez hurren) eta gainontzeko aldeak ez dira nabarmentzekoak.

☑ El 4% de las y los lectores de la CAPV (considerando que es el 91% de la población) leen revistas todos o casi todos los días, el 5% tres o cuatro veces por semana y un cuarto una o dos veces por semana (24%). Otro 14% los leen varias veces al mes, el 13% una o dos veces al mes y otro 15% con menor frecuencia. El restante cuarto (25%) no los leen nunca o casi nunca.

☑ En el Estado español son más que en nuestro territorio quienes no leen nunca o casi nunca revistas (36% frente al 25%) y las restantes diferencias no son destacables.

# Aldizkarien irakurketa ohiturak / *Hábitos de lectura de revistas*

## Aldizkarien irakurketa maiztasuna / *Frecuencia de lectura de revistas*

(KOLEKTIBOKA / *POR COLECTIVOS*)

**Esango zenidake zenbatero irakurtzen dituzun aldizkariak?** / *¿Podría decirme con qué frecuencia suele Ud. leer revistas?*

| IRAKURLEAK BAKARRIK (BIZTANLEEN % 91) / *SÓLO LECTORES Y LECTORAS (91% DE LA POBLACIÓN)* | 2004KO URRIA / *OCTUBRE 2004* | LURRALDEA / *TERRITORIO* | | | SEXUA / *SEXO* | | ADIN TALDEAK / *GRUPOS DE EDAD* | | | | UDALERRIAREN TAMAINA / *TAMAÑO MUNICIPIO* | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | ARABA | BIZKAIA | GIPUZKOA | GIZONEZKOA / *VARÓN* | EMAKUMEZKOA / *MUJER* | 18-29 | 30-45 | 46-64 | ≥65 | TXIKIA / *PEQUEÑO* | ERTAINA / *MEDIANO* | HIRIBURUA / *CAPITAL* |
| EGUNERO EDO IA EGUNERO / *TODOS O CASI TODOS LOS DÍAS* | 4 | 4 | 4 | 4 | 3 | 4 | 3 | 5 | 3 | 4 | 4 | 4 | 4 |
| ASTEAN 3 EDO 4 ALDIZ / *TRES O CUATRO VECES POR SEMANA* | 5 | 4 | 5 | 5 | 4 | 5 | 7 | 4 | 4 | 4 | 4 | 6 | 4 |
| ASTEAN BEHIN EDO BITAN / *UNA O DOS VECES POR SEMANA* | 24 | 31 | 21 | 25 | 19 | 29 | 29 | 23 | 23 | 20 | 24 | 20 | 29 |
| HILEAN ZENBAITETAN / *VARIAS VECES AL MES* | 14 | 8 | 16 | 14 | 14 | 14 | 17 | 17 | 12 | 10 | 16 | 14 | 14 |
| HILEAN BEHIN EDO BITAN / *UNA O DOS VECES AL MES* | 13 | 18 | 12 | 11 | 12 | 13 | 14 | 15 | 12 | 7 | 13 | 12 | 13 |
| GUTXIAGOTAN / *CON MENOR FRECUENCIA* | 15 | 9 | 15 | 16 | 17 | 13 | 12 | 11 | 19 | 19 | 20 | 13 | 14 |
| INOIZ EZ EDO IA INOIZ EZ / *NUNCA O CASI NUNCA* | 25 | 26 | 26 | 24 | 30 | 21 | 18 | 24 | 27 | 37 | 20 | 31 | 22 |
| ED-EE / *NS-NC* | 0 | 0 | 0 | 1 | 0 | 1 | 0 | 0 | 0 | 1 | 0 | 1 | 0 |
| (EHUNEKO BERTIKALAK) / *(PORCENTAJES VERTICALES)* | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 |

| | IKASKETA MAILA / *NIVEL DE ESTUDIOS* | | | | HAUTEMANDAKO KLASE SOZIALA / *CLASE SOCIAL SENTIDA* | | | IRAKURLE MOTA / *TIPO DE LECTOR* | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | <LEHEN MAILAKOAK / <PRIMARIOS | LEHEN MAILAKOAK / PRIMARIOS | BIGARREN MAILAKOAK / SECUNDARIOS | GOI-MAILAKOAK / SUPERIORES | ALTUA / ALTA | ERTAINA / MEDIA | BAXUA / BAJA | OHIKO IRAKURLEA / LECTOR HABITUAL | ALDIZKAKO IRAKURLEA / LECTOR OCASIONAL |
| EGUNERO EDO IA EGUNERO / *TODOS O CASI TODOS LOS DÍAS* | 6 | 3 | 3 | 4 | 0 | 3 | 5 | 4 | 1 |
| ASTEAN 3 EDO 4 ALDIZ / *TRES O CUATRO VECES POR SEMANA* | 4 | 4 | 5 | 6 | 6 | 5 | 4 | 5 | 4 |
| ASTEAN BEHIN EDO BITAN / *UNA O DOS VECES POR SEMANA* | 27 | 23 | 24 | 25 | 24 | 25 | 24 | 24 | 23 |
| HILEAN ZENBAITETAN / *VARIAS VECES AL MES* | 5 | 14 | 16 | 16 | 14 | 15 | 12 | 14 | 14 |
| HILEAN BEHIN EDO BITAN / *UNA O DOS VECES AL MES* | 7 | 11 | 15 | 15 | 11 | 13 | 13 | 13 | 12 |
| GUTXIAGOTAN / *CON MENOR FRECUENCIA* | 13 | 17 | 13 | 15 | 19 | 15 | 12 | 15 | 15 |
| INOIZ EZ EDO IA INOIZ EZ / *NUNCA O CASI NUNCA* | 37 | 28 | 24 | 19 | 26 | 24 | 29 | 24 | 31 |
| ED-EE / *NS-NC* | 1 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 1 |
| (EHUNEKO BERTIKALAK) / *(PORCENTAJES VERTICALES)* | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 |

☑ Gutxienez astean behin aldizkariak irakurtzen dituztenak zerbait gehiago dira Araban, Gipuzkoan eta Bizkaian baino, emakumezkoen artean, pixka bat hiriburuetan eta ohiko irakurleen artean. Irakurleen adina jaitsi ahala ere, aldizkariak astean behin gutxienez irakurtzen dituztenen kopurua gehitzen da.

☑ Aldizkaririk inoiz edo ia inoiz irakurtzen ez dutenak gehiago dira gizonezkoen, tamaina ertaineko herrietako biztanleen eta/edo aldizkako irakurleen artean; adina igo ahala eta/edo ikasketa maila jaitsi ahala ere, gehitzen doaz inoiz edo ia inoiz aldizkariak irakurtzen ez dituztenak.

☑ Quienes leen revistas al menos una vez a la semana son algunos más en Araba, entre las mujeres, ligeramente más en las capitales y/o entre las y los lectores habituales. También a medida que desciende la edad de las y los lectores aumenta el número de quienes leen revistas al menos una vez a la semana.

☑ Quienes no leen revistas nunca o casi nunca son más entre: los hombres, las y los habitantes de los municipios de tamaño mediano y/o las y los lectores ocasionales; también a medida que aumenta la edad y/o disminuye el nivel de estudios aumentan quienes no leen nunca o casi nunca revistas.

# Aldizkarien irakurketa ohiturak / *Hábitos de lectura de revistas*

## Irakurtzen den aldizkari mota / *Tipo de revista que se lee*

(GUZTIZKOAK / *TOTALES*)

**Eta normalean, nolako aldizkariak irakurtzen dituzu?** / *Y de manera habitual, ¿qué tipo de revistas suele leer? **

| ALDIZKARI IRAKURLEAK BAKARRIK (BIZTANLEEN % 54) *SÓLO LECTORES Y LECTORAS DE REVISTAS (54% DE LA POBLACIÓN)* | EAE 2004KO URRIA *CAPV OCTUBRE 2004* | ESPAINIAKO ESTATUA 2003KO OTSAILA *ESTADO ESPAÑOL FEBRERO 2003 *** |
|---|---|---|
| TXUTXUMUTXUETAKOAK (PRENTSA ARROSA) / *DEL CORAZÓN* | 35 | 40 |
| INFORMAZIO OROKORREKOAK / *DE INFORMACIÓN GENERAL* | 35 | 31 |
| ZIENTZIA ETA KULTUR DIBULGAZIOKOAK / *DIVULGACIÓN CIENTÍFICA Y CULTURAL* | 14 | 17 |
| KIROLETAKOAK / *DEPORTIVAS* | 11 | 9 |
| MOTORRARI BURUZKOAK / *MOTOR* | 9 | 6 |
| MODARI BURUZKOAK / *MODA* | 7 | 6 |
| OSASUNARI BURUZKOAK / *SALUD* | 7 | 6 |
| TELEBISTA GIDAK / *GUÍAS DE TELEVISIÓN* | 6 | 4 |
| DEKORAZIOARI BURUZKOAK / *DECORACIÓN* | 5 | 9 |
| MUSIKARI BURUZKOAK / *MUSICALES* | 5 | 4 |
| TEKNIKOAK / *TÉCNICAS* | 4 | 5 |
| BIDAIETAKOAK / *DE VIAJES* | 4 | 3 |
| ZINEMARI BURUZKOAK / *CINE* | 4 | 2 |
| EKONOMIKOAK / *ECONÓMICAS* | 2 | 1 |
| HIZKUNTZEN IKASKETARAKOAK / *DE APRENDIZAJE DE IDIOMAS* | 0 | - |
| BESTELAKOAK / *OTRO TIPO* | 9 | 6 |
| ED-EE / *NS-NC* | 0 | 1 |

* ERANTZUNEN BATURA EZ DA 100 BI ERANTZUN AIPATU AHAL ZIRELAKO / *LAS RESPUESTAS NO SUMAN 100 PORQUE SE PODÍAN DAR DOS RESPUESTAS.*

** CIS (CENTRO DE INVESTIGACIONES SOCIOLÓGICAS):, 2.478. IKERKETA: "AISIALDIA ETA IRAKURKETA OHITURAK", 2003KO OTSAILA / *CIS (CENTRO DE INVESTIGACIONES SOCIOLÓGICAS), ESTUDIO Nº 2.478:"TIEMPO LIBRE Y HÁBITOS DE LECTURA",, FEBRERO 2003*

☑ EAEn aldizkariak irakurtzen dituztenek zein aldizkari mota irakurtzen dituzten aztertu dugu (euskal herritarren %54,2 direla kontuan hartuz). Informazio orokorreko aldizkariak eta prentsa arrosa irakurtzen dira batez ere (%35ek bata zein bestea); jarraian datoz zientzia eta kultur dibulgaziokoak (%14k) eta kiroletakoak (%11k). Gainontzeko aldizkari motak biztanleriaren %10ak baino gutxiagok irakurtzen dituzte, hurrenkera honetan: motorrari, modari edo osasunari buruzkoak, telebista gidak, dekorazioari, musikari buruzkoak, teknikoak, bidaietakoak, zinemari buruzkoak, ekonomikoak, hizkuntzen ikasketarakoak, eta %9k bestelakoak.

☑ Espainiako Estatuan irakurtzen diren aldizkari motekin konparatuz, ez dugu alde nabarmenik ikusten: han pixka bat gehiagok irakurtzen du prentsa arrosa (%40k).

---

☑ Hemos analizado el tipo de revistas que leen las y los lectores de éstas en la CAPV (considerando que es el 54,2% de la población vasca). Principalmente, se leen revistas de información general y prensa rosa (35%, tanto uno como otro); seguidamente de divulgación científica y cultural (14%) y deportivas (11%). Otro tipo de revistas son leídas por menos del 10% de la población en el siguiente orden: motor, moda, salud, guías de televisión, decoración, musicales, técnicas, de viajes, cine, económicas, de aprendizaje de idiomas y un 9% de otro tipo.

☑ Comparando con el tipo de revistas que se leen en el Estado español no se observan diferencias notables: en el Estado son ligeramente más quienes leen la prensa rosa (40%).

# Aldizkarien irakurketa ohiturak / *Hábitos de lectura de revistas*

## Irakurtzen den aldizkari mota / *Tipo de revista que se lee*

(KOLEKTIBOKA I / *POR COLECTIVOS I*)

**Eta normalean, nolako aldizkariak irakurtzen dituzu?** / *Y de manera habitual, ¿qué tipo de revistas suele leer?* *

| ALDIZKARI IRAKURLEAK BAKARRIK (BIZTANLEEN % 54) *SÓLO LECTORES Y LECTORAS DE REVISTAS (54% DE LA POBLACIÓN)* | 2004KO URRIA *OCTUBRE 2004* | LURRALDEA / *TERRITORIO* | | | SEXUA / *SEXO* | | ADIN TALDEAK / *GRUPOS DE EDAD* | | | | UDALERRIAREN TAMAINA *TAMAÑO MUNICIPIO* | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | ARABA | BIZKAIA | GIPUZKOA | GIZONEZKOA *VARÓN* | EMAKUMEZKOA *MUJER* | 18-29 | 30-45 | 46-64 | ≥65 | TXIKIA *PEQUEÑO* | ERTAINA *MEDIANO* | HIRIBURUA *CAPITAL* |
| TXUTXUMUTXUETAKOAK (PRENTSA ARROSA) / *DEL CORAZÓN* | 35 | 35 | 36 | 33 | 15 | 52 | 21 | 28 | 45 | 65 | 33 | 35 | 36 |
| INFORMAZIO OROKORREKOAK / *DE INFORMACIÓN GENERAL* | 35 | 40 | 34 | 32 | 35 | 34 | 32 | 38 | 33 | 35 | 29 | 33 | 40 |
| ZIENTZIA ETA KULTUR DIBULGAZIOKOAK / *DIVULGACIÓN CIENTÍFICA Y CULTURAL* | 14 | 14 | 16 | 11 | 20 | 9 | 15 | 17 | 12 | 5 | 16 | 13 | 13 |
| KIROLETAKOAK / *DEPORTIVAS* | 11 | 10 | 11 | 10 | 21 | 2 | 17 | 10 | 6 | 7 | 14 | 9 | 10 |
| MOTORRARI BURUZKOAK / *MOTOR* | 9 | 10 | 8 | 9 | 17 | 2 | 15 | 9 | 6 | 0 | 10 | 8 | 9 |
| MODARI BURUZKOAK / *MODA* | 7 | 7 | 7 | 8 | 0 | 13 | 9 | 7 | 6 | 6 | 8 | 7 | 8 |
| OSASUNARI BURUZKOAK / *SALUD* | 7 | 7 | 6 | 10 | 2 | 11 | 5 | 7 | 11 | 7 | 9 | 6 | 8 |
| TELEBISTA GIDAK / *GUÍAS DE TELEVISIÓN* | 6 | 5 | 7 | 3 | 4 | 7 | 5 | 6 | 6 | 6 | 6 | 5 | 5 |
| DEKORAZIOARI BURUZKOAK / *DECORACIÓN* | 5 | 5 | 5 | 6 | 1 | 8 | 5 | 6 | 6 | 3 | 6 | 6 | 4 |
| MUSIKARI BURUZKOAK / *MUSICALES* | 5 | 3 | 6 | 4 | 7 | 4 | 13 | 3 | 1 | 1 | 4 | 5 | 6 |
| TEKNIKOAK / *TÉCNICAS* | 4 | 5 | 5 | 4 | 8 | 2 | 3 | 7 | 5 | 1 | 3 | 5 | 5 |
| BIDAIETAKOAK / *DE VIAJES* | 4 | 6 | 4 | 4 | 5 | 3 | 4 | 6 | 3 | 2 | 6 | 4 | 4 |
| ZINEMARI BURUZKOAK / *CINE* | 4 | 5 | 5 | 2 | 4 | 4 | 9 | 3 | 1 | 0 | 1 | 4 | 5 |
| EKONOMIKOAK / *ECONÓMICAS* | 2 | 2 | 2 | 1 | 2 | 1 | 1 | 2 | 2 | 1 | 1 | 1 | 2 |
| HIZKUNTZEN IKASKETARAKOAK / *DE APRENDIZAJE DE IDIOMAS* | 0 | 1 | 0 | 1 | 0 | 0 | 1 | 0 | 0 | 0 | 1 | 0 | 0 |
| BESTELAKOAK / *OTRO TIPO* | 9 | 5 | 9 | 10 | 13 | 5 | 9 | 10 | 7 | 7 | 7 | 11 | 7 |
| ED-EE / *NS-NC* | 0 | 0 | 0 | 1 | 0 | 0 | 0 | 1 | 0 | 0 | 1 | 1 | 0 |

* ERANTZUNEN BATURA EZ DA 100 BI ERANTZUN AIPATU AHAL ZIRELAKO / *LAS RESPUESTAS NO SUMAN 100 PORQUE SE PODÍAN DAR DOS RESPUESTAS.*

☑ Araban beste lurraldeetan baino zertxobait gehiago irakurtzen dira informazio orokorreko aldizkariak. Gipuzkoan beste lurraldeetan baino apur bat gutxiago irakurtzen dira zientzia eta kultur dibulgaziokoak, telebista gidak eta zinemari buruzkoak.

☑ Emakumezkoek gizonezkoek baino dezente gehiago irakurtzen dituzte prentsa arrosa, moda, osasuna eta dekorazioari buruzko aldizkariak; aldiz, gizonezkoek gehiago zientzia eta kultur dibulgaziozkoak, kiroletakoak, motorrari buruzkoak, teknikoak eta bestelakoak.

☑ Zenbat eta gazteago izan, orduan eta gehiago irakurtzen dira kiroletako aldizkariak, motorrari, musikari eta zinemari buruzkoak eta gutxiago prentsa arrosa; halaber, 18-29 urte artekoek bakarrik irakurtzen dituzte hizkuntzen ikasketarakoak. Gainera, 65 urtetik gora gutxiago irakurtzen dira zientzia eta kultur dibulgaziokoak, teknikoak edota bidaietako aldizkariak. 30 eta 45 urte artean beste taldeetan baino gehixeago irakurtzen dira zientzia eta kultur dibulgaziokoak eta 46-64 artean osasunari buruzkoak.

☑ Herriaren tamaina hazi ahala, jende gehiagok irakurtzen ditu informazio orokorreko aldizkariak.

☑ En Araba se leen algo más que en el resto de los territorios las revistas de información general. En Gipuzkoa se leen ligeramente menos que en el resto de territorios las de divulgación científica y cultural, las guías de televisión y las de cine.

☑ Las mujeres leen más que los hombres la prensa rosa, las revistas de moda, salud y decoración; por el contrario, los hombres leen más las de divulgación científica y cultural, deportivas, del motor, técnicas y de otro tipo.

☑ Cuánto más joven se es, se leen más las revistas deportivas, del motor, música y cine y menos la prensa rosa; así mismo, quienes tienen entre 18-29 años son los únicos que leen las de aprendizaje de idiomas. Además, a partir de los 65 años se leen menos las revistas de divulgación científica y cultural, las técnicas y de viajes. Entre los 30-45 años se leen más que en el resto de los colectivas las de divulgación científica y cultural y entre los 46-64 sobre salud.

☑ A medida que aumenta el tamaño de la población de residencia, hay más gente que lee las revistas de información general.

# Aldizkarien irakurketa ohiturak / *Hábitos de lectura de revistas*

## Irakurtzen den aldizkari mota / *Tipo de revista que se lee*

(KOLEKTIBOKA II / *POR COLECTIVOS II)*

**Eta normalean, nolako aldizkariak irakurtzen dituzu?** / *Y de manera habitual, ¿qué tipo de revistas suele leer?* *

| ALDIZKARI IRAKURLEAK BAKARRIK (BIZTANLEEN % 54) *SÓLO LECTORES Y LECTORAS DE REVISTAS (54% DE LA POBLACIÓN)* | 2004KO URRIA *OCTUBRE 2004* | IKASKETA MAILA *NIVEL DE ESTUDIOS* | | | | HAUTEMANDAKO KLASE SOZIALA *CLASE SOCIAL SENTIDA* | | | IRAKURLE MOTA *TIPO DE LECTOR* | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | <LEHEN MAILAKOAK <PRIMARIOS | LEHEN MAILAKOAK PRIMARIOS | BIGARREN MAILAKOAK SECUNDARIOS | GOI-MAILAKOAK SUPERIORES | ALTUA ALTA | ERTAINA MEDIA | BAXUA BAJA | OHIKO IRAKURLEA LECTOR HABITUAL | ALDIZKAKO IRAKURLEA LECTOR OCASIONAL |
| TXUTXUMUTXUETAKOAK (PRENTSA ARROSA) / *DEL CORAZÓN* | 35 | 69 | 51 | 26 | 17 | 18 | 33 | 44 | 32 | 52 |
| INFORMAZIO OROKORREKOAK / *DE INFORMACIÓN GENERAL* | 35 | 32 | 29 | 32 | 45 | 47 | 35 | 29 | 36 | 29 |
| ZIENTZIA ETA KULTUR DIBULGAZIOKOAK / *DIVULGACIÓN CIENTÍFICA Y CULTURAL* | 14 | 3 | 7 | 16 | 23 | 20 | 15 | 10 | 15 | 7 |
| KIROLETAKOAK / *DEPORTIVAS* | 11 | 5 | 9 | 15 | 8 | 13 | 10 | 11 | 11 | 10 |
| MOTOREARI BURUZKOAK / *MOTOR* | 9 | 1 | 6 | 15 | 4 | 8 | 9 | 8 | 8 | 12 |
| MODARI BURUZKOAK / *MODA* | 7 | 6 | 7 | 7 | 9 | 17 | 7 | 8 | 7 | 10 |
| OSASUNARI BURUZKOAK / *SALUD* | 7 | 4 | 11 | 5 | 9 | 4 | 7 | 10 | 8 | 6 |
| TELEBISTA GIDAK / *GUÍAS DE TELEVISIÓN* | 6 | 5 | 7 | 4 | 6 | 3 | 6 | 6 | 6 | 5 |
| DEKORAZIOARI BURUZKOAK / *DECORACIÓN* | 5 | 1 | 8 | 5 | 5 | 2 | 6 | 5 | 5 | 5 |
| MUSIKARI BURUZKOAK / *MUSICALES* | 5 | 6 | 3 | 7 | 3 | 7 | 4 | 7 | 5 | 4 |
| TEKNIKOAK / *TÉCNICAS* | 4 | 0 | 3 | 5 | 6 | 6 | 4 | 4 | 5 | 1 |
| BIDAIETAKOAK / *DE VIAJES* | 4 | 1 | 3 | 5 | 7 | 1 | 5 | 3 | 5 | 3 |
| ZINEMARI BURUZKOAK / *CINE* | 4 | 1 | 2 | 5 | 6 | 3 | 4 | 4 | 4 | 3 |
| EKONOMIKOAK / *ECONÓMICAS* | 2 | 0 | 0 | 1 | 4 | 3 | 2 | 1 | 2 | 0 |
| HIZKUNTZEN IKASKETARAKOAK / *DE APRENDIZAJE DE IDIOMAS* | 0 | 0 | 0 | 0 | 1 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| BESTELAKOAK / *OTRO TIPO* | 9 | 8 | 6 | 10 | 9 | 11 | 9 | 7 | 9 | 6 |
| ED-EE / *NS-NC* | 0 | 1 | 0 | 1 | 0 | 0 | 1 | 0 | 1 | 0 |

* ERANTZUNEN BATURA EZ DA 100 BI ERANTZUN AIPATU AHAL ZIRELAKO / *LAS RESPUESTAS NO SUMAN 100 PORQUE SE PODÍAN DAR DOS RESPUESTAS.*

☑ Ikasketa maila igo ahala, zientzia eta kultur dibulgaziokoak, teknikoak, bidaietakoak, zineari buruzkoak eta ekonomikoak gehiago irakurtzen dira eta aldiz, prentsa arrosa gutxiago (%69k irakurtzen dute behe mailako ikasketarik ez dutenen artean eta soilik %17k goi-mailakoen artean). Halaber, goi-mailako ikasketak dituztenek informazio orokorrekoak besteek baino gehiago irakurtzen dituzte; bigarren mailako ikasketak dituztenek kiroletakoak, motoreari eta musikari buruzkoak eta lehen mailako ikasketak dituztenek osasunari (goi-mailakoekin batera).

☑ Klase soziala igo ahala, gehiago irakurtzen dira informazio orokorreko aldizkariak, zientzia eta kultur dibulgaziokoak, ekonomikoak eta bestelakoak eta gutxiago, ordea, txutxumutxuetakoak eta osasunari buruzkoak. Halaber, klase altukoek modari buruzkoak ere besteek baino gehiago irakurtzen dituzte.

☑ Oro har, aldizkarien ohiko irakurleek gehiago irakurtzen dituzte mota guztietako aldizkariak eta aldizkako irakurleek txutxumutxuetakoak.

☑ A medida que asciende el nivel de estudios se leen más las revistas de divulgación científica y cultural, técnicas, de viajes, sobre cine y económicas y por el contrario, menos la prensa rosa (el 69% entre quienes no tienen estudios primarios y únicamente el 17% entre quienes tienen estudios superiores). Además, quienes tienen estudios superiores leen más que el resto las de información general; quienes tienen estudios secundarios las deportivas, sobre motor y musicales y quienes tienen estudios primarios sobre salud (junto a los de estudios superiores).

☑ A medida que asciende la clase social se leen más las revistas de información general, las de divulgación científica y cultural, las económicas y las de otro tipo y menos, por el contrario, la prensa rosa y las de salud. Así mismo, quienes son de clase alta leen más revistas de moda que los demás.

☑ En general, las y los lectores habituales de revistas leen más todo tipo de ellas y las y los lectores ocasionales la prensa rosa.

# Aldizkarien irakurketa ohiturak / *Hábitos de lectura de revistas*

## Irakurtzen diren aldizkarien hizkuntza / *Idioma de las revistas que se leen*

(GUZTIZKOAK / *TOTALES*)

**Normalean gaztelaniazko aldizkariak irakurtzen dituzu? Eta euskarazkoak? Eta beste hizkuntzetakoak?** / *¿Suele leer Ud. habitualmente revistas en castellano? ¿Y en euskera? ¿Y en otros idiomas? **

| BAIEZKOEN % / *% DE RESPUESTAS AFIRMATIVAS*<br>**ALDIZKARI IRAKURLEAK BAKARRIK (BIZTANLEEN % 54)**<br>***SÓLO LECTORES Y LECTORAS DE REVISTAS (54% DE LA POBLACIÓN)*** | **EAE 2004KO URRIA**<br>***CAPV OCTUBRE 2004*** |
|---|---|
| GAZTELANIAZKOAK / *CASTELLANO* | 99 |
| EUSKARAZKOAK / *EUSKERA* | 8 |
| BESTE HIZKUNTZETAKOAK / *OTROS IDIOMAS* | 3 |

☑ EAEko aldizkari irakurleen artean (herritarren %54,2 direla kontuan izanik) ia guztiek gaztelaniaz irakurtzen dituzte horiek (%99k), euskaraz soilik %8k eta beste hizkuntzaren batean %3k.

☑ Prácticamente todos los lectores de revistas de la CAPV (considerando que son el 54,2% de las y los ciudadanos) las leen en castellano (99%), mientras que únicamente un 8% lo hacen en euskera y el 3% en otros idiomas.

# Aldizkarien irakurketa ohiturak / *Hábitos de lectura de revistas*

## Irakurtzen diren aldizkarien hizkuntza / *Idioma de las revistas que se leen*

(KOLEKTIBOKA / *POR COLECTIVOS*)

**Normalean gaztelaniazko aldizkariak irakurtzen dituzu? Eta euskarazkoak? Eta beste hizkuntzetakoak?** / *¿Suele leer Ud. habitualmente revistas en castellano? ¿Y en euskera? ¿Y en otros idiomas?*

| BAIEZKOEN % / *% DE RESPUESTAS AFIRMATIVAS*<br>ALDIZKARI IRAKURLEAK BAKARRIK (BIZTANLEEN % 54)<br>*SÓLO LECTORES Y LECTORAS DE REVISTAS (54% DE LA POBLACIÓN)* | 2004KO URRIA<br>*OCTUBRE 2004* | LURRALDEA / *TERRITORIO* | | | SEXUA / *SEXO* | | ADIN TALDEAK / *GRUPOS DE EDAD* | | | | UDALERRIAREN TAMAINA<br>*TAMAÑO MUNICIPIO* | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | ARABA | BIZKAIA | GIPUZKOA | GIZONEZKOA<br>*VARÓN* | EMAKUMEZKOA<br>*MUJER* | 18-29 | 30-45 | 46-64 | ≥65 | TXIKIA<br>*PEQUEÑO* | ERTAINA<br>*MEDIANO* | HIRIBURUA<br>*CAPITAL* |
| GAZTELANIAZKOAK / *CASTELLANO* | 99 | 99 | 99 | 98 | 98 | 99 | 99 | 98 | 99 | 99 | 98 | 98 | 99 |
| EUSKARAZKOAK / *EUSKERA* | 8 | 4 | 6 | 12 | 9 | 7 | 11 | 8 | 5 | 7 | 14 | 7 | 6 |
| BESTE HIZKUNTZETAKOAK / *OTROS IDIOMAS* | 3 | 4 | 3 | 2 | 4 | 2 | 3 | 5 | 2 | 2 | 2 | 3 | 4 |

| | IKASKETA MAILA<br>*NIVEL DE ESTUDIOS* | | | | HAUTEMANDAKO KLASE SOZIALA<br>*CLASE SOCIAL SENTIDA* | | | IRAKURLE MOTA<br>*TIPO DE LECTOR* | | EUSKARAREN EZAGUTZA<br>*CONOCIMIENTO DE EUSKERA* | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | <LEHEN MAILAKOAK<br><PRIMARIOS | LEHEN MAILAKOAK<br>PRIMARIOS | BIGARREN MAILAKOAK<br>SECUNDARIOS | GOI-MAILAKOAK<br>SUPERIORES | ALTUA<br>ALTA | ERTAINA<br>MEDIA | BAXUA<br>BAJA | OHIKO IRAKURLEA<br>LECTOR HABITUAL | ALDIZKAKO IRAKURLEA<br>LECTOR OCASIONAL | EZ<br>*NO* | PIXKA BAT<br>*ALGO* | BAI<br>*SÍ* |
| GAZTELANIAZKOAK / *CASTELLANO* | 98 | 99 | 99 | 99 | 100 | 98 | 99 | 99 | 99 | 99 | 99 | 98 |
| EUSKARAZKOAK / *EUSKERA* | 9 | 4 | 7 | 13 | 8 | 8 | 7 | 9 | 5 | 0 | 1 | 25 |
| BESTE HIZKUNTZETAKOAK / *OTROS IDIOMAS* | 1 | 1 | 3 | 7 | 7 | 3 | 3 | 3 | 1 | 1 | 4 | 3 |

* HIZKUNTZA BAKOITZARI BAIETZ ERANTZUN DIOTENEN EHUNEKOAK AIPATU DIRA / *SE CITAN LAS RESPUESTAS AFIRMATIVAS RESPECTO A CADA UNO DE LOS IDIOMAS.*

☑ Talde guztietan ia partaide guztiek irakurtzen dituzte aldizkariak gaztelaniaz.

☑ Aldizkariak euskaraz gehiago irakurtzen dituzte ondorengo taldeetakoek: gipuzkoarrek, adin talderik gazteenekoek (18-29 urte), herri txikietako biztanleek eta goi-mailako ikasketak dituztenek; euskararen ezagutza gehitu ahala ere gehiago irakurtzen dira aldizkariak euskaraz (euskaldunen artean laurdenak irakurtzen dituzte).

☑ Oso jende gutxi da beste hizkuntzaren batean aldizkaririk irakurtzen duena, soilik goi-mailako ikasketak dituztenen eta/edo klase sozial altukoen artean iristen dira %7raino

☑ En todos los colectivos prácticamente todos sus miembros leen revistas en castellano.

☑ Los colectivos que leen más revistas en euskera son los siguientes: las y los guipuzcoanos, el grupo de edad más joven (18-29 años), quienes residen en municipios pequeños y/o tienen estudios superiores; también aumenta la lectura de revistas en euskera a medida que aumenta el grado de conocimiento de ésta (alcanzando el 25% entre los euskaldunes).

☑ Es muy poca la gente que lee revistas en otros idiomas, únicamente los colectivos que tienen estudios superiores y/o son de clase social alta alcanzan el 7% de lectores.

## D - Komiki edo tebeoen irakurketa ohiturak / *Hábitos de lectura de cómics o tebeos*

- **Komiki edo tebeoen irakurketa maiztasuna /** ***Frecuencia de lectura de cómics o tebeos***
- **Irakurtzen diren komiki edo tebeoen hizkuntza /** ***Idioma de los cómics o tebeos que se leen***

# Komiki edo tebeoen irakurketa ohiturak / *Hábitos de lectura de cómics o tebeos*

## Komiki edo tebeoen irakurketa maiztasuna / *Frecuencia de lectura de cómics o tebeos*

(GUZTIZKOAK / *TOTALES*)

**Esango zenidake zenbatero irakurtzen dituzun komikiak edo tebeoak?** / *¿Podría decirme con qué frecuencia suele Ud. leer cómics o tebeos?*

| IRAKURLEAK BAKARRIK (BIZTANLEEN % 91) *SÓLO LECTORES Y LECTORAS (91% DE LA POBLACIÓN)* | EAE 2004KO URRIA *CAPV OCTUBRE 2004* |
|---|---|
| EGUNERO EDO IA EGUNERO / *TODOS O CASI TODOS LOS DÍAS* | 1 |
| ASTEAN 3 EDO 4 ALDIZ / *TRES O CUATRO VECES POR SEMANA* | 1 |
| ASTEAN BEHIN EDO BITAN / *UNA O DOS VECES POR SEMANA* | 2 |
| HILEAN ZENBAITETAN / *VARIAS VECES AL MES* | 2 |
| HILEAN BEHIN EDO BITAN / *UNA O DOS VECES AL MES* | 3 |
| GUTXIAGOTAN / *CON MENOR FRECUENCIA* | 6 |
| INOIZ EZ EDO IA INOIZ EZ / *NUNCA O CASI NUNCA* | 84 |
| ED-EE / *Ns-Nc* | 2 |
| (EHUNEKO BERTIKALAK) / *(PORCENTAJES VERTICALES)* | 100 |

☑ EAEko irakurleek (biztanleen %91 direla kontuan hartuta) ez dute kasik komiki edo tebeorik irakurtzeko ohiturarik, %84k ez baititu inoiz edo ia inoiz irakurtzen. Bakarrik irakurleen %15 dira komiki irakurleak eta horrela banatzen dira: soilik %1ek egunero edo ia egunero, beste %1ek astean hiru edo lau aldiz eta %2k astean behin edo bitan irakurtzen dituzte. Gainera, hilean zenbaitetan irakurtzen dituzte %2k, hilean behin edo bitan beste %3k eta gutxiagotan %6k.

☑ Las y los lectores de la CAPV (considerando que son el 91% de la población) no tienen hábitos de lectura de cómics o tebeos, pues el 84% no los leen nunca o casi nunca. Sólo el 15% de las y los lectores leen cómics y se reparten así: únicamente el 1% los lee todos o casi todos los días, otro 1% tres o cuatro veces a la semana y el 2% una o dos veces por semana. Además, los leen varias veces al mes el 2%, una o dos veces al mes el 3% y con menor frecuencia el 6%.

# Komiki edo tebeoen irakurketa ohiturak / *Hábitos de lectura de cómics o tebeos*

## Komiki edo tebeoen irakurketa maiztasuna / *Frecuencia de lectura de cómics o tebeos*

(KOLEKTIBOKA / *POR COLECTIVOS)*

**Esango zenidake zenbatero irakurtzen dituzun komikiak edo tebeoak?** / *¿Podría decirme con qué frecuencia suele Ud. leer cómics o tebeos?*

| IRAKURLEAK BAKARRIK (BIZTANLEEN % 91) / *SÓLO LECTORES Y LECTORAS (91% DE LA POBLACIÓN)* | 2004KO URRIA / *OCTUBRE 2004* | LURRALDEA / *TERRITORIO* | | | SEXUA / *SEXO* | | ADIN TALDEAK / *GRUPOS DE EDAD* | | | | UDALERRIAREN TAMAINA / *TAMAÑO MUNICIPIO* | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | ARABA | BIZKAIA | GIPUZKOA | GIZONEZKOA / *VARÓN* | EMAKUMEZKOA / *MUJER* | 18-29 | 30-45 | 46-64 | ≥65 | TXIKIA / *PEQUEÑO* | ERTAINA / *MEDIANO* | HIRIBURUA / *CAPITAL* |
| EGUNERO EDO IA EGUNERO / *TODOS O CASI TODOS LOS DÍAS* | 1 | 1 | 0 | 1 | 1 | 0 | 1 | 1 | 0 | 0 | 1 | 1 | 1 |
| ASTEAN 3 EDO 4 ALDIZ / *TRES O CUATRO VECES POR SEMANA* | 1 | 1 | 1 | 1 | 1 | 0 | 1 | 1 | 0 | 0 | 0 | 1 | 1 |
| ASTEAN BEHIN EDO BITAN / *UNA O DOS VECES POR SEMANA* | 2 | 4 | 2 | 2 | 3 | 1 | 4 | 3 | 1 | 1 | 2 | 2 | 3 |
| HILEAN ZENBAITETAN / *VARIAS VECES AL MES* | 2 | 3 | 2 | 3 | 3 | 1 | 4 | 3 | 1 | 0 | 3 | 2 | 2 |
| HILEAN BEHIN EDO BITAN / *UNA O DOS VECES AL MES* | 3 | 4 | 3 | 3 | 4 | 2 | 5 | 3 | 3 | 1 | 3 | 3 | 4 |
| GUTXIAGOTAN / *CON MENOR FRECUENCIA* | 6 | 5 | 6 | 5 | 6 | 5 | 8 | 7 | 4 | 2 | 6 | 5 | 6 |
| INOIZ EZ EDO IA INOIZ EZ / *NUNCA O CASI NUNCA* | 84 | 82 | 84 | 83 | 81 | 87 | 74 | 81 | 89 | 94 | 84 | 85 | 82 |
| ED-EE / *NS-NC* | 2 | 1 | 2 | 2 | 2 | 2 | 1 | 2 | 2 | 2 | 1 | 2 | 2 |
| (EHUNEKO BERTIKALAK) / *(PORCENTAJES VERTICALES)* | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 |

| | IKASKETA MAILA / *NIVEL DE ESTUDIOS* | | | | HAUTEMANDAKO KLASE SOZIALA / *CLASE SOCIAL SENTIDA* | | | IRAKURLE MOTA / *TIPO DE LECTOR* | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | <LEHEN MAILAKOAK <PRIMARIOS | LEHEN MAILAKOAK PRIMARIOS | BIGARREN MAILAKOAK SECUNDARIOS | GOI-MAILAKOAK SUPERIORES | ALTUA ALTA | ERTAINA MEDIA | BAXUA BAJA | OHIKO IRAKURLEA LECTOR HABITUAL | ALDIZKAKO IRAKURLEA LECTOR OCASIONAL |
| EGUNERO EDO IA EGUNERO / *TODOS O CASI TODOS LOS DÍAS* | 1 | 0 | 1 | 1 | 1 | 1 | 1 | 1 | 1 |
| ASTEAN 3 EDO 4 ALDIZ / *TRES O CUATRO VECES POR SEMANA* | 1 | 0 | 1 | 1 | 1 | 1 | 1 | 1 | 1 |
| ASTEAN BEHIN EDO BITAN / *UNA O DOS VECES POR SEMANA* | 1 | 2 | 3 | 2 | 6 | 2 | 2 | 2 | 2 |
| HILEAN ZENBAITETAN / *VARIAS VECES AL MES* | 0 | 2 | 3 | 3 | 2 | 2 | 2 | 2 | 2 |
| HILEAN BEHIN EDO BITAN / *UNA O DOS VECES AL MES* | 1 | 2 | 4 | 4 | 4 | 3 | 3 | 4 | 1 |
| GUTXIAGOTAN / *CON MENOR FRECUENCIA* | 2 | 5 | 6 | 7 | 5 | 6 | 6 | 6 | 4 |
| INOIZ EZ EDO IA INOIZ EZ / *NUNCA O CASI NUNCA* | 90 | 88 | 80 | 81 | 79 | 84 | 84 | 83 | 87 |
| ED-EE / *NS-NC* | 3 | 1 | 2 | 1 | 1 | 2 | 1 | 1 | 2 |
| (EHUNEKO BERTIKALAK) / *(PORCENTAJES VERTICALES)* | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 |

☑ Talde guztietan gehiengo nagusiak ez du inoiz edo ia inoiz komiki edo tebeorik irakurtzen, hala ere zenbait desberdintasun ikus ditzakegu:

☑ Gizonezkoek emakumezkoek baino zertxobait maizago irakurtzen dituzte komikiak.

☑ Zenbat eta gazteago, orduan eta maiztasun handiagoz irakurtzen dira komiki edo tebeoak (gazteenen artean %74k ez ditu irakurtzen inoiz edo ia inoiz eta nagusienen artean %94k).

☑ Ikasketa maila igo ahala, maiztasun handiagoz irakurtzen dira komiki edo tebeoak.

☑ Klase sozial altukoek besteek baino pixka bat maizago irakurtzen dituzte komikiak.

☑ En todos los colectivos la gran mayoría no lee nunca o casi nunca cómics o tebeos, aunque se pueden señalar algunas diferencias:

☑ Los hombres leen algo más frecuentemente cómics que las mujeres.

☑ Cuánto más joven se leen cómics o tebeos con mayor frecuencia (el 74% entre los más jóvenes no los leen nunca o casi nunca alcanzando el 94% entre los más mayores).

☑ A medida que asciende el nivel de estudios se leen cómics o tebeos con mayor frecuencia.

☑ Quienes son de clase social alta leen cómics con alguna mayor frecuencia que el resto.

# Komiki edo tebeoen irakurketa ohiturak / *Hábitos de lectura de cómics o tebeos*

## Irakurtzen den komiki edo tebeoen hizkuntza / *Idioma de las cómics o tebeos que se leen*

(GUZTIZKOAK / *TOTALES*)

**Normalean gaztelaniazko komikiak irakurtzen dituzu? Eta euskarazkoak? Eta beste hizkuntzetakoak?** / *¿Suele leer Ud. habitualmente cómics o tebeos en castellano? ¿Y en euskera? ¿Y en otros idiomas? **

| BAIEZKOEN % / *% DE RESPUESTAS AFIRMATIVAS*<br>**KOMIKI IRAKURLEAK BAKARRIK (BIZTANLEEN % 15)**<br>***SÓLO LECTORES Y LECTORAS DE CÓMICS (15% DE LA POBLACIÓN)*** | **EAE 2004KO URRIA**<br>***CAPV OCTUBRE 2004*** |
|---|---|
| GAZTELANIAZKOAK / *CASTELLANO* | 96 |
| EUSKARAZKOAK / *EUSKERA* | 16 |
| BESTE HIZKUNTZETAKOAK / *OTROS IDIOMAS* | 5 |

☑ EAEko komiki edo tebeo irakurleen artean (biztanleen %15 soilik direla kontuan izanik) ia denek irakurtzen dituzte horiek gaztelaniaz (%96k), %16k euskaraz eta soilik %5ek beste hizkuntzetan.

☑ Entre las y los lectores de cómics o tebeos de la CAPV (considerando que son únicamente el 15% de la población) la mayoría los leen en castellano (96%), un 16% en euskera y únicamente un 5% en otros idiomas.

# Komiki edo tebeoen irakurketa ohiturak / *Hábitos de lectura de cómics o tebeos*

## Irakurtzen den komiki edo tebeoen hizkuntza / *Idioma de las cómics o tebeos que se leen*

(KOLEKTIBOKA / *POR COLECTIVOS*)

**Normalean gaztelaniazko komikiak irakurtzen dituzu? Eta euskarazkoak? Eta beste hizkuntzetakoak?** / *¿Suele leer Ud. habitualmente cómics o tebeos en castellano? ¿Y en euskera? ¿Y en otros idiomas?*

| BAIEZKOEN % / *% DE RESPUESTAS AFIRMATIVAS*<br>KOMIKI IRAKURLEAK BAKARRIK (BIZTANLEEN % 15)<br>*SÓLO LECTORES Y LECTORAS DE CÓMICS (15% DE LA POBLACIÓN)* | 2004KO URRIA<br>*OCTUBRE 2004* | LURRALDEA / *TERRITORIO* | | | SEXUA / *SEXO* | | ADIN TALDEAK / *GRUPOS DE EDAD* | | | | UDALERRIAREN TAMAINA<br>*TAMAÑO MUNICIPIO* | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | ARABA | BIZKAIA | GIPUZKOA | GIZONEZKOA<br>*VARÓN* | EMAKUMEZKOA<br>*MUJER* | 18-29 | 30-45 | 46-64 | ≥65** | TXIKIA<br>*PEQUEÑO* | ERTAINA<br>*MEDIANO* | HIRIBURUA<br>*CAPITAL* |
| GAZTELANIAZKOAK / *CASTELLANO* | **96** | 96 | 98 | 95 | 99 | 93 | 98 | 97 | 95 | 89 | 94 | 95 | 99 |
| EUSKARAZKOAK / *EUSKERA* | **16** | 13 | 18 | 14 | 16 | 15 | 13 | 17 | 17 | 24 | 20 | 15 | 14 |
| BESTE HIZKUNTZETAKOAK / *OTROS IDIOMAS* | **5** | 7 | 4 | 4 | 5 | 4 | 5 | 6 | 2 | 0 | 1 | 5 | 6 |

| | IKASKETA MAILA<br>*NIVEL DE ESTUDIOS* | | | | HAUTEMANDAKO KLASE SOZIALA<br>*CLASE SOCIAL SENTIDA* | | | IRAKURLE MOTA<br>*TIPO DE LECTOR* | | EUSKARAREN EZAGUTZA<br>*CONOCIMIENTO DE EUSKERA* | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | <LEHEN MAILAKOAK<br><PRIMARIOS | LEHEN MAILAKOAK<br>PRIMARIOS | BIGARREN MAILAKOAK<br>SECUNDARIOS | GOI-MAILAKOAK<br>SUPERIORES | ALTUA<br>ALTA | ERTAINA<br>MEDIA | BAXUA<br>BAJA | OHIKO IRAKURLEA<br>LECTOR HABITUAL | ALDIZKAKO IRAKURLEA<br>LECTOR OCASIONAL | EZ<br>*NO* | PIXKA BAT<br>*ALGO* | BAI<br>*SÍ* |
| GAZTELANIAZKOAK / *CASTELLANO* | 88 | 94 | 98 | 97 | 100 | 96 | 98 | 96 | 97 | 94 | 100 | 94 |
| EUSKARAZKOAK / *EUSKERA* | 5 | 17 | 12 | 23 | 18 | 16 | 14 | 17 | 11 | 0 | 6 | 34 |
| BESTE HIZKUNTZETAKOAK / *OTROS IDIOMAS* | 0 | 2 | 3 | 10 | 13 | 4 | 4 | 5 | 1 | 2 | 7 | 3 |

* 65 URTEZ GORA DITUZTENEN KOPURUAK OSO TXIKIAK DIRENEZ , EUREI DAGOZKIEN DATUAK EZ DIRA KOMENTATUKO ETA KONTU HANDIZ IRAKURRI BEHAR DIRA / *LOS DATOS RELATIVOS A LOS MAYORES DE 65 AÑOS NO SERÁN COMENTADOS DEBIDO AL ESCASO NÚMERO DE EFECTIVOS.*

☑ Komiki edo tebeo irakurleen talde guztietan ia partaide denek irakurtzen dituzte gaztelaniazkoak.

☑ Komikiak edo tebeoak euskaraz apur bat gehiago irakurtzen dituzte herri txikietako biztanleek, goi-mailako ikasketak dituztenek eta/edo ohiko irakurleek. Euskararen ezagutza maila gehitu ahala ere gehiago irakurtzen dira euskarazkoak (pixka bat ezagutzen dutenen artean %6k eta euskaldunen artean %34k).

☑ Oso jende gutxi da beste hizkuntzaren batean komiki edo tebeorik irakurtzen duena, soilik goi-mailako ikasketak dituztenak eta/edo klase sozial altukoak nabarmentzen dira.

☑ En todos los grupos de lectores de cómics o tebeos casi todos sus miembros los leen en castellano.

☑ Leen ligeramente más cómics o tebeos en euskera quienes viven en municipios pequeños, tienen estudios superiores y/o son lectores habituales. También a medida que aumenta el nivel de conocimiento del euskera se leen más en este idioma (el 6% entre quienes conocen algo ascendiendo hasta el 34% entre los euskaldunes).

☑ Es muy poca la gente que lee cómics o tebeos en otro idioma, únicamente destacan quienes tienen estudios superiores y/o son de clase social alta.

## E - Liburuen irakurketa ohiturak / *Hábitos de lectura de libros*

- Etxean dagoen liburu kopurua / *Dotación de libros en el hogar*
- Liburuen irakurketa maiztasuna / *Frecuencia de lectura de libros*
- Urtean zehar irakurtzen den liburu kopurua / *Número de libros leídos anualmente*
- Irakurtzen den liburu mota / *Tipo de libros que se lee*
- Maiztasun handienez irakurtzen diren literatur generoak / *Géneros literarios que se leen con mayor frecuencia*
- Irakurtzen diren liburuen hizkuntza / *Idioma de los libros que se leen*
- Liburuen aukeraketarako irizpideak / *Criterios para la elección de los libros*

# Liburuen irakurketa ohiturak / *Hábitos de lectura de libros*

## Etxean dagoen liburu kopurua / *Dotación de libros en el hogar*

(GUZTIZKOAK / *TOTALES*)

| **Zenbat liburu dituzu etxean, eskolako testu liburuak kontuan hartu gabe?** / *¿Cuántos libros tiene en su hogar, exceptuando los libros de texto escolares?* | EAE 2004KO URRIA *CAPV OCTUBRE 2004* |
|---|---|
| BAT ERE EZ / *NINGUNO* | 2 |
| 1 ETA 10 ARTEAN / *DE 1 A 10 LIBROS* | 7 |
| 11 ETA 20 ARTEAN / *DE 11 A 20 LIBROS* | 10 |
| 21 ETA 50 ARTEAN / *DE 21 A 50 LIBROS* | 24 |
| 51 ETA 100 ARTEAN / *DE 51 A 100 LIBROS* | 27 |
| 101 ETA 500 ARTEAN / *DE 101 A 500 LIBROS* | 24 |
| 500 BAINO GEHIAGO / *MÁS DE 500 LIBROS* | 6 |
| ED-EE / *NS-NC* | 1 |
| (EHUNEKO BERTIKALAK) / *(PORCENTAJES VERTICALES)* | 100 |

Zenbat liburu dituzu etxean, eskolako testu liburuak kontuan hartu gabe? /
*¿Cuántos libros tiene en su hogar, exceptuando los libros de texto escolares?*




☑ EAEko biztanleen %98ren etxeetan liburuak badituzte, eskolako testu liburuak kontuan hartu gabe.

☑ Etxean 21 eta 50 liburu artean dituzte herritarren %24k, 51 eta 100 liburu artean %27k eta, 101 eta 500 liburu artean beste %24k. 500 liburutik gora dituzte etxean %6k, baina 10 liburu baino gutxiago dituzten %7 eta 11 eta 20 artean dituzten beste %10 ere badira.

☑ El 98% de la población de la CAPV tienen libros en sus hogares, excluyendo los libros escolares.

☑ El 24% de las y los ciudadanos tienen de 21 a 50 libros en sus hogares, el 27% de 51 a 100 libros y otro 24% de 101 a 500. Disponen de más de 500 libros en los hogares el 6%, pero también hay un 7% donde se cuenta con menos de 10 libros y otro 10% que tienen entre 11 y 20 libros.

# Liburuen irakurketa ohiturak / *Hábitos de lectura de libros*

## Etxean dagoen liburu kopurua / *Dotación de libros en el hogar*

(KOLEKTIBOKA / *POR COLECTIVOS)*

**¿Cuántos libros tiene en su hogar, exceptuando los libros de texto escolares?** / *Zenbat liburu dituzu etxean, eskolako testu liburuak kontuan hartu gabe?*

| | 2004KO URRIA / *OCTUBRE 2004* | LURRALDEA / *TERRITORIO*: ARABA | BIZKAIA | GIPUZKOA | SEXUA / *SEXO*: GIZONEZKOA / *VARÓN* | EMAKUMEZKOA / *MUJER* | ADIN TALDEAK / *GRUPOS DE EDAD*: 18-29 | 30-45 | 46-64 | ≥65 | UDALERRIAREN TAMAINA / *TAMAÑO MUNICIPIO*: TXIKIA / *PEQUEÑO* | ERTAINA / *MEDIANO* | HIRIBURUA / *CAPITAL* |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| BAT ERE EZ / *NINGUNO* | 2 | 2 | 1 | 3 | 2 | 2 | 1 | 1 | 1 | 5 | 2 | 2 | 1 |
| 1 ETA 10 ARTEAN / *DE 1 A 10 LIBROS* | 7 | 10 | 6 | 6 | 7 | 6 | 7 | 6 | 6 | 9 | 8 | 7 | 6 |
| 11 ETA 20 ARTEAN / *DE 11 A 20 LIBROS* | 10 | 11 | 9 | 10 | 10 | 9 | 11 | 11 | 7 | 10 | 14 | 10 | 7 |
| 21 ETA 50 ARTEAN / *DE 21 A 50 LIBROS* | 24 | 21 | 25 | 22 | 24 | 24 | 27 | 22 | 22 | 24 | 25 | 25 | 21 |
| 51 ETA 100 ARTEAN / *DE 51 A 100 LIBROS* | 27 | 27 | 27 | 27 | 26 | 28 | 26 | 28 | 27 | 26 | 29 | 25 | 28 |
| 101 ETA 500 ARTEAN / *DE 101 A 500 LIBROS* | 24 | 23 | 24 | 25 | 24 | 25 | 23 | 24 | 29 | 18 | 18 | 23 | 30 |
| 500 BAINO GEHIAGO / *MÁS DE 500 LIBROS* | 6 | 6 | 6 | 5 | 6 | 5 | 5 | 6 | 7 | 4 | 2 | 7 | 7 |
| ED-EE / *NS-NC* | 1 | 1 | 1 | 3 | 1 | 2 | 1 | 1 | 1 | 3 | 1 | 2 | 1 |
| (EHUNEKO BERTIKALAK) / *(PORCENTAJES VERTICALES)* | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 |

| | IKASKETA MAILA / *NIVEL DE ESTUDIOS*: <LEHEN MAILAKOAK / <PRIMARIOS | LEHEN MAILAKOAK / PRIMARIOS | BIGARREN MAILAKOAK / SECUNDARIOS | GOI-MAILAKOAK / SUPERIORES | HAUTEMANDAKO KLASE SOZIALA / *CLASE SOCIAL SENTIDA*: ALTUA / ALTA | ERTAINA / MEDIA | BAXUA / BAJA | IRAKURLE MOTA / *TIPO DE LECTOR*: OHIKO IRAKURLEA / LECTOR HABITUAL | ALDIZKAKO IRAKURLEA / LECTOR OCASIONAL | EZ IRAKURLEA / NO LECTOR |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| BAT ERE EZ / *NINGUNO* | 7 | 1 | 2 | 0 | 0 | 1 | 4 | 1 | 3 | 7 |
| 1 ETA 10 ARTEAN / *DE 1 A 10 LIBROS* | 16 | 8 | 5 | 2 | 4 | 5 | 11 | 4 | 9 | 22 |
| 11 ETA 20 ARTEAN / *DE 11 A 20 LIBROS* | 13 | 13 | 10 | 2 | 5 | 9 | 12 | 8 | 13 | 16 |
| 21 ETA 50 ARTEAN / *DE 21 A 50 LIBROS* | 27 | 28 | 24 | 15 | 13 | 24 | 24 | 21 | 33 | 25 |
| 51 ETA 100 ARTEAN / *DE 51 A 100 LIBROS* | 20 | 31 | 28 | 23 | 28 | 28 | 24 | 29 | 24 | 16 |
| 101 ETA 500 ARTEAN / *DE 101 A 500 LIBROS* | 11 | 17 | 26 | 42 | 32 | 26 | 18 | 28 | 15 | 7 |
| 500 BAINO GEHIAGO / *MÁS DE 500 LIBROS* | 2 | 2 | 5 | 15 | 19 | 6 | 5 | 7 | 2 | 2 |
| ED-EE / *NS-NC* | 3 | 2 | 0 | 1 | 0 | 1 | 2 | 1 | 1 | 5 |
| (EHUNEKO BERTIKALAK) / *(PORCENTAJES VERTICALES)* | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 |

☑ Adina igo ahala, etxean liburu kopuru handiago du jendeak (65 urte edo gehiago dituztenen artean kopuruak berriro behera egiten duen arte). Gainera, azken hauen artean bat ere libururik ez dutenak besteetan baino apur bat gehiago dira (%5).

☑ Bizi diren herriaren tamaina handitu ahala, liburu kopuru handiagoa du jendeak etxean.

☑ Ikasketa maila igo ahala, etxean liburu gehiago dituzte herritarrek (batez ere goi-mailako ikasketak dituztenak nabarmentzen dira).

☑ Klase soziala igo ahala, etxean liburu gehiago dituzte herritarrek.

☑ Ohiko irakurleek, aldizkakoek eta irakurle ez direnek baino liburu gehiago dituzte etxean.

☑ A medida que asciende la edad, la gente tiene más libros en casa (hasta que vuelve a descender entre quienes tienen 65 o más años). Además, entre entros últimos quienes no leen ningún libro son ligeramente más que en el resto de los grupos (5%).

☑ A medida que aumenta el tamaño del municipio de residencia, la gente tiene mayor cantidad de libros en sus casas.

☑ A medida que asciende el nivel de estudios, las y los ciudadanos tienen más libros en casa (sobre todo quienes tienen estudios superiores).

☑ A medida que asciende la clase social, la gente tienen más libros en sus hogares.

☑ Las y los lectores habituales tienen más libros que los ocasionales y que los no lectores.

# Liburuen irakurketa ohiturak / *Hábitos de lectura de libros*

## Liburuen irakurketa maiztasuna / *Frecuencia de lectura de libros*

(GUZTIZKOAK / *TOTALES*)

**Esango zenidake zenbatero irakurtzen dituzun liburuak?** / *¿Podría decirme con qué frecuencia suele Ud. leer libros?*

| IRAKURLEAK BAKARRIK (BIZTANLEEN % 91) / *SÓLO LECTORES Y LECTORAS (91% DE LA POBLACIÓN)* | EAE 2004KO URRIA / *CAPV OCTUBRE 2004* | ESPAINIAKO ESTATUA 2003KO OTSAILA / ESTADO ESPAÑOL *FEBRERO 2003* * |
|---|---|---|
| EGUNERO EDO IA EGUNERO / *TODOS O CASI TODOS LOS DÍAS*.................... | 25 | 32 |
| ASTEAN 3 EDO 4 ALDIZ / *TRES O CUATRO VECES POR SEMANA*.................. | 10 | 11 |
| ASTEAN BEHIN EDO BITAN / *UNA O DOS VECES POR SEMANA*.................... | 14 | 10 |
| HILEAN ZENBAITETAN / *VARIAS VECES AL MES*........................................ | 10 | 7 |
| HILEAN BEHIN EDO BITAN / *UNA O DOS VECES AL MES*............................. | 7 | 6 |
| GUTXIAGOTAN / *CON MENOR FRECUENCIA*............................................ | 10 | 11 |
| INOIZ EZ EDO IA INOIZ EZ / *NUNCA O CASI NUNCA*.................................... | 25 | 22 |
| ED-EE / *NS-NC* ................................................................................. | 0 | 0 |
| (EHUNEKO BERTIKALAK) / *(PORCENTAJES VERTICALES)* .......................... | 100 | 100 |

* CIS (CENTRO DE INVESTIGACIONES SOCIOLÓGICAS), 2.478. IKERKETA: "AISIALDIA ETA IRAKURKETA OHITURAK", 2003KO OTSAILA / *CIS (CENTRO DE INVESTIGACIONES SOCIOLÓGICAS), ESTUDIO Nº 2.478:"TIEMPO LIBRE Y HÁBITOS DE LECTURA", FEBRERO 2003*

Liburuen irakurketaren maiztasuna / *Frecuencia de lectura de libros*




☑ EAEko irakurleen (herritarren %91 direla kontuan izanik) %25ek egunero edo ia egunero irakurtzen dituzte liburuak, %10ek astean hiru edo lau aldiz eta beste %14k astean bi edo hirutan. Gainera, %10ek hilean zenbaitetan eta %7k hilean behin edo bitan irakurtzen dituzte. Hori baino maiztasun txikiagoarekin irakurtzen dituzte beste %10ek eta azkenik, gainontzeko laurdenak (%25ek) inoiz edo ia inoiz ez.

☑ Espainiako Estatuan liburuen irakurketa maiztasuna Euskadikoaren oso antzekoa da, egunero edo ia egunero liburuak irakurtzen dituztenak Estatuan gehixeago diren arren (%32 eta 25%, hurrenez hurren).

☑ El 25% de las y los ciudadanos lectores de la CAPV (considerando que son el 91% de la población) leen libros todos o casi todos los días, el 10% lo hace tres o cuatro veces por semana y el 14% una o dos veces por semana. Además, un 10% leen libros varias veces al mes y otro 7% una o dos veces. Un 10% los leen con menor frecuencia y por último, el restante cuarto (25%) nunca o casi nunca.

☑ La frecuencia de lectura de libros en el Estado español es muy similar al de Euskadi, aunque son algunos más quienes leen libros todos o casi todos los días en el Estado (32% frente al 25%).

# Liburuen irakurketa ohiturak / *Hábitos de lectura de libros*

## Liburuen irakurketan maiztasuna / *Frecuencia de lectura de libros*

(KOLEKTIBOKA / *POR COLECTIVOS)*

**Esango zenidake zenbatero irakurtzen dituzun liburuak?** / *¿Podría decirme con qué frecuencia suele Ud. leer libros?*

| IRAKURLEAK BAKARRIK (BIZTANLEEN % 91) / *SÓLO LECTORES Y LECTORAS (91% DE LA POBLACIÓN)* | 2004KO URRIA / *OCTUBRE 2004* | LURRALDEA / *TERRITORIO* | | | SEXUA / *SEXO* | | ADIN TALDEAK / *GRUPOS DE EDAD* | | | | UDALERRIAREN TAMAINA / *TAMAÑO MUNICIPIO* | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | ARABA | BIZKAIA | GIPUZKOA | GIZONEZKOA / *VARÓN* | EMAKUMEZKOA / *MUJER* | 18-29 | 30-45 | 46-64 | ≥65 | TXIKIA / *PEQUEÑO* | ERTAINA / *MEDIANO* | HIRIBURUA / *CAPITAL* |
| EGUNERO EDO IA EGUNERO / *TODOS O CASI TODOS LOS DÍAS* | 25 | 28 | 26 | 22 | 21 | 30 | 26 | 29 | 25 | 17 | 20 | 26 | 27 |
| ASTEAN 3 EDO 4 ALDIZ / *TRES O CUATRO VECES POR SEMANA* | 10 | 11 | 10 | 8 | 10 | 9 | 14 | 8 | 9 | 8 | 10 | 9 | 10 |
| ASTEAN BEHIN EDO BITAN / *UNA O DOS VECES POR SEMANA* | 14 | 15 | 13 | 14 | 14 | 14 | 13 | 14 | 16 | 10 | 14 | 13 | 15 |
| HILEAN ZENBAITETAN / *VARIAS VECES AL MES* | 10 | 9 | 10 | 11 | 10 | 10 | 13 | 10 | 9 | 8 | 12 | 10 | 8 |
| HILEAN BEHIN EDO BITAN / *UNA O DOS VECES AL MES* | 7 | 8 | 7 | 7 | 7 | 7 | 7 | 8 | 6 | 7 | 7 | 7 | 7 |
| GUTXIAGOTAN / *CON MENOR FRECUENCIA* | 10 | 8 | 10 | 9 | 10 | 9 | 11 | 9 | 9 | 11 | 8 | 10 | 11 |
| INOIZ EZ EDO IA INOIZ EZ / *NUNCA O CASI NUNCA* | 25 | 22 | 23 | 29 | 29 | 20 | 16 | 21 | 28 | 39 | 29 | 24 | 22 |
| ED-EE / *NS-NC* | 0 | 0 | 0 | 1 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 1 | 0 | 0 | 0 |
| (EHUNEKO BERTIKALAK) / *(PORCENTAJES VERTICALES)* | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 |

| | IKASKETA MAILA / *NIVEL DE ESTUDIOS* | | | | HAUTEMANDAKO KLASE SOZIALA / *CLASE SOCIAL SENTIDA* | | | IRAKURLE MOTA / *TIPO DE LECTOR* | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | <LEHEN MAILAKOAK / <PRIMARIOS | LEHEN MAILAKOAK / PRIMARIOS | BIGARREN MAILAKOAK / SECUNDARIOS | GOI-MAILAKOAK / SUPERIORES | ALTUA / ALTA | ERTAINA / MEDIA | BAXUA / BAJA | OHIKO IRAKURLEA / LECTOR HABITUAL | ALDIZKAKO IRAKURLEA / LECTOR OCASIONAL |
| EGUNERO EDO IA EGUNERO / *TODOS O CASI TODOS LOS DÍAS* | 10 | 18 | 27 | 40 | 31 | 27 | 20 | 30 | 4 |
| ASTEAN 3 EDO 4 ALDIZ / *TRES O CUATRO VECES POR SEMANA* | 7 | 8 | 10 | 13 | 14 | 10 | 8 | 10 | 6 |
| ASTEAN BEHIN EDO BITAN / *UNA O DOS VECES POR SEMANA* | 11 | 14 | 14 | 15 | 15 | 14 | 13 | 14 | 10 |
| HILEAN ZENBAITETAN / *VARIAS VECES AL MES* | 7 | 9 | 11 | 11 | 12 | 11 | 8 | 10 | 10 |
| HILEAN BEHIN EDO BITAN / *UNA O DOS VECES AL MES* | 8 | 7 | 8 | 5 | 3 | 7 | 8 | 6 | 12 |
| GUTXIAGOTAN / *CON MENOR FRECUENCIA* | 12 | 10 | 10 | 7 | 6 | 10 | 10 | 8 | 17 |
| INOIZ EZ EDO IA INOIZ EZ / *NUNCA O CASI NUNCA* | 44 | 34 | 20 | 9 | 19 | 22 | 33 | 21 | 41 |
| ED-EE / *NS-NC* | 1 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| (EHUNEKO BERTIKALAK) / *(PORCENTAJES VERTICALES)* | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 |

☑ Oro har, liburuak maiztasun handiagoz irakurtzen dituzte arabar eta bizkaitarrek gipuzkoarrek baino, emakumezkoek, 65 urtez azpikoek eta ohiko irakurleek.

☑ Gainera, udalerriaren tamaina hazi ahala, ikasketa maila eta/edo klase soziala igo ahala ere, liburu gehiago irakurtzen dituzte EAEko irakurleek (goi-mailako ikasketak dituztenak nabarmentzen dira, %40k egunero edo ia egunero irakurtzen baitituzte liburuak).

☑ En general, leen libros con mayor frecuencia las y los alaveses, y las y los vizcainos que los guipuzcoanos, las mujeres, quienes tienen menos de 65 años y las y los lectores habituales.

☑ Además, a medida que aumenta el tamaño del municipio de residencia, el nivel de estudios y/o la clase social también las y los lectores de la CAPV leen más libros (destacan quienes tienen estudios superiores pues el 40% lee libros todos o casi todos los días).

# Liburuen irakurketa ohiturak / *Hábitos de lectura de libros*

## Urtean zehar irakurtzen den liburu kopurua / *Número de libros leídos anualmente*

(GUZTIZKOAK / *TOTALES*)

**Zenbat liburu irakurri dituzu azken urtean, ikasketetakoak (testu liburuak) edo lanekoak ez direnak?** / *¿Podría decirme cuántos libros ha leído el último año por motivos que no sean de estudio (libros de texto) o trabajo?*

| LIBURU IRAKURLEAK BAKARRIK (BIZTANLEEN % 68) / *SÓLO LECTORES Y LECTORAS DE LIBROS (68% DE LA POBLACIÓN)* | EAE 2004KO URRIA / *CAPV OCTUBRE 2004* |
|---|---|
| 1 ETA 3 ARTEAN / *DE 1 A 3 LIBROS* | 37 |
| 4 ETA 7 ARTEAN / *DE 4 A 7 LIBROS* | 28 |
| 8 ETA 12 ARTEAN / *DE 8 A 12 LIBROS* | 16 |
| 13 EDO GEHIAGO / *13 O MÁS LIBROS* | 16 |
| ED-EE / *NS-NC* | 2 |
| (EHUNEKO BERTIKALAK) / *(PORCENTAJES VERTICALES)* | 100 |

Urtean zehar irakurtzen den liburu kopurua /
*Número de libros leídos anualmente*




☑ Liburik irakurtzen duten herritarren artean (EAEko biztanleen %68,4 direla kontuan izanik) %37k urtean liburu bat eta hiru artean irakurtzen dituzte, beste %28k lau eta zazpi artean. Gainontzekoek hori baino gehiago irakurtzen dituzte, %16k zortzi eta hamabi liburu artean eta beste %16k urtero hamahiru liburu edo gehiago.

☑ Entre la ciudadanía que lee libros (considerando que es el 68,4% de la población de la CAPV) el 37% leen de uno a tres libros al año y otro 28% de cuatro a siete. El resto leen más volúmenes, un 16% de ocho a doce libros y otro 16% trece o más libros anualmente.

# Liburuen irakurketa ohiturak / *Hábitos de lectura de libros*

## Urtean zehar irakurtzen den liburu kopurua / *Número de libros leídos anualmente*

(KOLEKTIBOKA / *POR COLECTIVOS)*

**Zenbat liburu irakurri dituzu azken urtean, ikasketetakoak (testu liburuak) edo lanekoak ez direnak?** / *¿Podría decirme cuántos libros ha leído el último año por motivos que no sean de estudio (libros de texto) o trabajo?*

| LIBURU IRAKURLEAK BAKARRIK (BIZTANLEEN % 68) / *SÓLO LECTORES Y LECTORAS DE LIBROS (68% DE LA POBLACIÓN)* | 2004KO URRIA / *OCTUBRE 2004* | LURRALDEA / *TERRITORIO* ARABA | BIZKAIA | GIPUZKOA | SEXUA / *SEXO* GIZONEZKOA / *VARÓN* | EMAKUMEZKOA / *MUJER* | ADIN TALDEAK / *GRUPOS DE EDAD* 18-29 | 30-45 | 46-64 | ≥65 | UDALERRIAREN TAMAINA / *TAMAÑO MUNICIPIO* TXIKIA / *PEQUEÑO* | ERTAINA / *MEDIANO* | HIRIBURUA / *CAPITAL* |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 ETA 3 ARTEAN / *DE 1 A 3 LIBROS* | 37 | 39 | 37 | 37 | 38 | 36 | 38 | 34 | 37 | 42 | 45 | 35 | 35 |
| 4 ETA 7 ARTEAN / *DE 4 A 7 LIBROS* | 28 | 34 | 27 | 29 | 27 | 30 | 32 | 28 | 25 | 29 | 26 | 27 | 31 |
| 8 ETA 12 ARTEAN / *DE 8 A 12 LIBROS* | 16 | 13 | 16 | 18 | 16 | 16 | 16 | 16 | 17 | 15 | 15 | 17 | 15 |
| 13 EDO GEHIAGO / *13 O MÁS LIBROS* | 16 | 11 | 18 | 15 | 16 | 16 | 13 | 19 | 19 | 9 | 13 | 18 | 16 |
| ED-EE / *NS-NC* | 2 | 3 | 2 | 2 | 2 | 2 | 1 | 2 | 2 | 5 | 1 | 3 | 2 |
| (EHUNEKO BERTIKALAK) / *(PORCENTAJES VERTICALES)* | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 |

| | IKASKETA MAILA / *NIVEL DE ESTUDIOS* <LEHEN MAILAKOAK / <PRIMARIOS | LEHEN MAILAKOAK / PRIMARIOS | BIGARREN MAILAKOAK / SECUNDARIOS | GOI-MAILAKOAK / SUPERIORES | HAUTEMANDAKO KLASE SOZIALA / *CLASE SOCIAL SENTIDA* ALTUA / ALTA | ERTAINA / MEDIA | BAXUA / BAJA | IRAKURLE MOTA / *TIPO DE LECTOR* OHIKO IRAKURLEA / LECTOR HABITUAL | ALDIZKAKO IRAKURLEA / LECTOR OCASIONAL |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 ETA 3 ARTEAN / *DE 1 A 3 LIBROS* | 56 | 47 | 37 | 20 | 22 | 37 | 40 | 33 | 62 |
| 4 ETA 7 ARTEAN / *DE 4 A 7 LIBROS* | 24 | 26 | 30 | 31 | 24 | 28 | 30 | 30 | 21 |
| 8 ETA 12 ARTEAN / *DE 8 A 12 LIBROS* | 7 | 14 | 18 | 19 | 14 | 18 | 12 | 18 | 7 |
| 13 EDO GEHIAGO / *13 O MÁS LIBROS* | 7 | 11 | 14 | 28 | 37 | 15 | 15 | 18 | 4 |
| ED-EE / *NS-NC* | 6 | 2 | 2 | 2 | 4 | 2 | 2 | 2 | 5 |
| (EHUNEKO BERTIKALAK) / *(PORCENTAJES VERTICALES)* | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 |

☑ Urtean zehar irakurtzen den liburu kopurua handixeagoa da Bizkaian eta Gipuzkoan Araban baino, 65 urtez azpikoen artean (bereziki 30-64 urte arteko taldeetan), herri ertainetan eta hiriburuetan eta dezente handiagoa ohiko irakurleen artean (ohiko irakurleen %18k 13 edo gehiago irakurtzen dituzte eta aldizkako irakurleen %4k).

☑ Irakurleen ikasketa maila eta/edo klase soziala igo ahala, irakurtzen den liburu kopurua dezente igotzen da (urtean 13 liburu edo gehiago irakurtzen dituztenak %7 dira lehen mailako ikasketarik ez dutenen artean eta %28 goi-mailako ikasketak dituztenen artean).

☑ La cantidad de libros leídos anualmente es algo superior en Bizkaia y Gipuzkoa que en Araba, entre quienes tienen menos de 65 años (especialmente en los grupos de 30-64 años), en los municipios medianos y las capitales, y entre las y los lectores habituales (el 18% de ellos leen 13 o más libros anualmente y el 4% entre las y los lectores ocasionales).

☑ A medida que ascendemos en el nivel de estudios y/o la clase social de las y los lectores asciende bastante la cantidad de libros leídos (quienes leen 13 o más libros al año son el 7% entre quienes no tienen estudios primarios y el 28% entre quienes tienen estudios superiores).

# Liburuen irakurketa ohiturak / *Hábitos de lectura de libros*

## Irakurtzen den liburu mota / *Tipo de libros que se leen*

(GUZTIZKOAK / *TOTALES*)

**Zehazki, nolako liburuak irakurtzen dituzu gehien?** / *Concretamente ¿podría decirme qué tipo de libros lee Ud. más frecuentemente? **

| BAIEZKOEN % / *% DE RESPUESTAS ARIRMATIVAS*<br>LIBURU IRAKURLEAK BAKARRIK (BIZTANLEEN % 68)<br>*SÓLO LECTORES Y LECTORAS DE LIBROS (68% DE LA POBLACIÓN)* | EAE 2004KO URRIA<br>*CAPV OCTUBRE 2004* | ESPAINIAKO ESTATUA 2003KO OTSAILA<br>*ESTADO ESPAÑOL FEBRERO 2003 *** |
|---|---|---|
| LITERATURA EDO ENTRETENIMENDUZKOAK (NOBELA, POESIA…) / *DE LITERATURA O ENTRETENIMIENTO (NOVELA, POESÍA…)* | 88 | 77 |
| HISTORIA EDO ARTE LIBURUAK / *HISTORIA, ARTE* | 28 | 24 |
| KONTSULTA ETA ERREFERENTZIA LIBURUAK (ENTZIKLOPEDIAK, HIZTEGIAK…) / *OBRAS DE CONSULTA Y REFERENCIA (ENCICLOPEDIAS, DICCIONARIOS…)* | 23 | 17 |
| LIBURU PROFESIONALAK, TEKNIKOAK / *PROFESIONALES, TÉCNICOS* | 18 | 17 |
| TESTU LIBURAK / *LIBROS DE TEXTO* | 13 | 17 |
| BESTELAKOAK / *OTRO TIPO* | 15 | 4 |

* CIS (CENTRO DE INVESTIGACIONES SOCIOLÓGICAS), 2.478. IKERKETA:" AISIALDIA ETA IRAKURKETA OHITURAK ", 2003KO OTSAILA / *CIS (CENTRO DE INVESTIGACIONES SOCIOLÓGICAS), ESTUDIO Nº 2.478:"TIEMPO LIBRE Y HÁBITOS DE LECTURA"", FEBRERO 2003*




☑ EAEko liburu irakurleek (biztanleen %68,4 direla kontuan izanik) nagusiki literatura edo entretenimenduzko liburuak irakurtzen dituzte (%88k). Askoz gutxiagok irakurtzen dituzte historia edota arte liburuak (%28k), kontsulta eta erreferentzia liburuak (%23k) eta are gutxiagok, liburu profesional, teknikoak (%18k), testu liburuak (%13k) eta bestelakoak (%15ek).

☑ Espainiako Estatuan jasotako datuekin alderatuz, Euskadin literatura edo entretenimenduzko liburuek, kontsulta eta erreferentzia liburuek eta bestelakoek irakurlego zabalagoa dutela ikusten dugu, gainontzekoak antzeko irakurle kopuruak dituzte. Honela, literatura eta entretenimenduzko liburuak Estatuan %77k irakurtzen dituzten bitartean Euskadin %88k irakurtzen dituzte.

☑ Las y los lectores de libros de la CAPV (considerando que son el 68,4% de la población) leen principalmente libros de literatura o entretenimiento (88%). Son bastantes menos quienes leen libros de historia y arte (28%), obras de consulta y referencia (23%) y aún menos, libros profesionales, técnicos (18%), libros de texto (13%) y libros de otro tipo (15%).

☑ Comparando con los datos recogidos para el Estado español, observamos que los libros de literatura o entretenimiento, las obras de consulta y referencia y los libros de otro tipo tienen un mayor número de lectores en Euskadi; el resto tienen un número similar de lectores. En este sentido, los libros de literatura y entretenimiento en el Estado los leen el 77% mientras que en Euskadi los leen el 88%.

# Liburuen irakurketa ohiturak / *Hábitos de lectura de libros*

## Irakurtzen den liburu mota / *Tipo de libros que se leen*

(KOLEKTIBOKA I / *POR COLECTIVOS I*)

**Zehazki, nolako liburuak irakurtzen dituzu gehien?** / *Concretamente ¿podría decirme qué tipo de libros lee Ud. más frecuentemente?*

| BAIEZKOEN % / *% DE RESPUESTAS AFIRMATIVAS*<br>**LIBURU IRAKURLEAK BAKARRIK (BIZTANLEEN % 68)**<br>***SÓLO LECTORES Y LECTORAS DE LIBROS (68% DE LA POBLACIÓN)*** | 2004KO URRIA<br>*OCTUBRE 2004* | LURRALDEA / *TERRITORIO* | | | SEXUA / *SEXO* | | ADIN TALDEAK / *GRUPOS DE EDAD* | | | | UDALERRIAREN TAMAINA<br>*TAMAÑO MUNICIPIO* | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | ARABA | BIZKAIA | GIPUZKOA | GIZONEZKOA<br>*VARÓN* | EMAKUMEZKOA<br>*MUJER* | 18-29 | 30-45 | 46-64 | ≥65 | TXIKIA<br>*PEQUEÑO* | ERTAINA<br>*MEDIANO* | HIRIBURUA<br>*CAPITAL* |
| LITERATURA EDO ENTRETENIMENDUZKOAK (NOBELA, POESIA…) / *DE LITERATURA O ENTRETENIMIENTO (NOVELA, POESÍA…)* | **88** | 84 | 87 | 93 | 84 | 92 | 91 | 88 | 89 | 81 | 86 | 88 | 89 |
| HISTORIA EDO ARTE LIBURUAK / *HISTORIA, ARTE* | **28** | 25 | 29 | 26 | 32 | 23 | 22 | 25 | 32 | 37 | 27 | 28 | 28 |
| KONTSULTA ETA ERREFERENTZIA LIBURUAK (ENTZIKLOPEDIAK, HIZTEGIAK…) / *OBRAS DE CONSULTA Y REFERENCIA (ENCICLOPEDIAS, DICCIONARIOS…)* | **23** | 23 | 24 | 21 | 24 | 22 | 22 | 24 | 26 | 17 | 26 | 22 | 24 |
| LIBURU PROFESIONALAK, TEKNIKOAK / *PROFESIONALES, TÉCNICOS* | **18** | 17 | 18 | 18 | 23 | 13 | 22 | 20 | 17 | 5 | 22 | 16 | 18 |
| TESTU LIBURAK / *LIBROS DE TEXTO* | **13** | 15 | 14 | 12 | 13 | 14 | 30 | 8 | 8 | 2 | 15 | 12 | 14 |
| BESTELAKOAK / *OTRO TIPO* | **15** | 17 | 16 | 11 | 17 | 13 | 14 | 14 | 16 | 17 | 15 | 11 | 19 |

| | IKASKETA MAILA<br>*NIVEL DE ESTUDIOS* | | | | HAUTEMANDAKO KLASE SOZIALA<br>*CLASE SOCIAL SENTIDA* | | | IRAKURLE MOTA<br>*TIPO DE LECTOR* | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | <LEHEN MAILAKOAK<br><PRIMARIOS | LEHEN MAILAKOAK<br>PRIMARIOS | BIGARREN MAILAKOAK<br>SECUNDARIOS | GOI-MAILAKOAK<br>SUPERIORES | ALTUA<br>ALTA | ERTAINA<br>MEDIA | BAXUA<br>BAJA | OHIKO IRAKURLEA<br>LECTOR HABITUAL | ALDIZKAKO IRAKURLEA<br>LECTOR OCASIONAL |
| LITERATURA EDO ENTRETENIMENDUZKOAK (NOBELA, POESIA…) / *DE LITERATURA O ENTRETENIMIENTO (NOVELA, POESÍA…)* | 85 | 86 | 89 | 90 | 95 | 88 | 89 | 89 | 85 |
| HISTORIA EDO ARTE LIBURUAK / *HISTORIA, ARTE* | 25 | 30 | 26 | 28 | 38 | 27 | 26 | 29 | 19 |
| KONTSULTA ETA ERREFERENTZIA LIBURUAK (ENTZIKLOPEDIAK, HIZTEGIAK…) / *OBRAS DE CONSULTA Y REFERENCIA (ENCICLOPEDIAS, DICCIONARIOS…)* | 13 | 21 | 24 | 27 | 27 | 23 | 23 | 24 | 17 |
| LIBURU PROFESIONALAK, TEKNIKOAK / *PROFESIONALES, TÉCNICOS* | 4 | 8 | 18 | 31 | 20 | 19 | 15 | 19 | 12 |
| TESTU LIBURAK / *LIBROS DE TEXTO* | 5 | 8 | 16 | 16 | 18 | 14 | 10 | 13 | 14 |
| BESTELAKOAK / *OTRO TIPO* | 8 | 15 | 16 | 16 | 17 | 14 | 16 | 16 | 11 |

☑ Literatura edo entretenimenduzko liburuak gehiago irakurtzen dituzte ondokoek: gipuzkoarrek, 65 urtez azpikoek, emakumezkoek eta klase sozial altukoek. Halaber, pixka bat gehiago irakurtzen dira ikasketa maila igo ahala ere.

☑ Historia edo arte liburuak ondoko taldeetakoek gehiago irakurtzen dituzte: gizonezkoek, klase sozial altukoek eta ohiko irakurleek; era berean, jendea zenbat eta nagusiago orduan eta gehiago irakurtzen dituzte (beste liburu motekin gertatzen denaren aurkako joera).

☑ Kontsulta eta erreferentzia liburuak (entziklopediak, hiztegiak etab.) irakurtzea nahiago dute 65 urtez azpikoek, ohiko irakurleek eta/edo jendearen ikasketa maila gora egin ahala ere.

☑ Los libros de literatura o entretenimiento son más leídos por las y los guipuzcoanos, las y los menores de 65 años, las mujeres y quienes son de clase social alta. Así mismo, se leen algo más a medida que asciende el nivel de estudios.

☑ Los libros de historia o arte son más leídos en los siguientes colectivos: los hombres, quienes pertenecen a la clase social alta y las y los lectores habituales; también cuanto mayor es la gente (esta tendencia es contraria a lo que sucede con en el resto de tipo de libros).

☑ Los libros de consulta y referencia son preferidos por los menores de 65 años, las y los lectores habituales y/o también a medida que aumenta el nivel de estudios de la gente.

# Liburuen irakurketa ohiturak / *Hábitos de lectura de libros*

## Maiztasun handienez irakurtzen diren literatur generoak
## *Géneros literarios que se leen con mayor frecuencia*

(GUZTIZKOAK / *TOTALES*)

**Ondoren irakurriko dizkizudan literatur generoen artetik esadazu zeintzuk diren gehien irakurtzen dituzun hiruak, lanerako behar dituzunak kontatu gabe** / *De los siguientes géneros literarios que voy a leer a continuación, ¿cuáles de ellos suele Ud. leer con mayor frecuencia (exceptuando los que requiera para su trabajo)? **

| LITERATURA IRAKURLEAK BAKARRIK (BIZTANLEEN % 60) *SÓLO LECTORES Y LECTORAS DE LITERATURA (60% DE LA POBLACIÓN)* | EAE 2004KO URRIA *CAPV OCTUBRE 2004* | ESPAINIAKO ESTATUA 2003KO OTSAILA *ESTADO ESPAÑOL FEBRERO 2003 *** |
|---|---|---|
| NOBELA OROKORREAN / *NOVELA EN GENERAL* | 55 | 50 |
| NOBELA HISTORIKOA / *NOVELA HISTÓRICA* | 30 | 30 |
| ABENTURA NOBELA / *NOVELA DE AVENTURAS* | 24 | 25 |
| NOBELA BELTZA, POLIZIAKOA / *NOVELA NEGRA, POLICÍACA* | 17 | 12 |
| BEST-SELLERRAK / *BEST-SELLER* | 14 | 13 |
| BIOGRAFIAK / *BIOGRAFÍAS* | 13 | 14 |
| ZIENTZIA FIKZIOA / *CIENCIA FICCIÓN* | 11 | 14 |
| DIBULGAZIOA, INFORMAZIOZKOA / *DE DIVULGACIÓN, INFORMACIÓN* | 10 | 11 |
| NOBELA SENTIMENTALA, AMODIOZKOA / *NOVELA SENTIMENTAL, DE AMOR* | 9 | 12 |
| SAIAKERA / *ENSAYO* | 7 | 7 |
| SUKALDARITZA / *LIBROS DE COCINA* | 6 | 5 |
| IPUINAK, NARRAZIO LABURRAK / *CUENTOS, RELATOS CORTOS* | 6 | 7 |
| POESIA / *POESÍA* | 5 | 7 |
| HAUR ETA GAZTE LITERATURA / *INFANTIL Y JUVENIL* | 2 | 4 |
| ANTZERKIA / *TEATRO* | 1 | 3 |
| BESTELAKOAK / *OTROS GÉNEROS LITERARIOS* | 5 | 3 |
| ED-EE / *NS-NC* | 1 | 1 |

* ERANTZUNEN BATURA EZ DA 100 HAINBAT ERANTZUN EMAN AHAL ZIRELAKO / *LAS RESPUESTAS NO SUMAN 100 PORQUE SE PODÍAN DAR VARIAS RESPUESTAS.*

** CIS (CENTRO DE INVESTIGACIONES SOCIOLÓGICAS): 2.478 IKERKETA:" AISIALDIA ETA IRAKURKETA OHITURAK ", 2003KO OTSAILA / *CIS (CENTRO DE INVESTIGACIONES SOCIOLÓGICAS): ESTUDIO Nº 2.478:"TIEMPO LIBRE Y HÁBITOS DE LECTURA"", FEBRERO 2003*

☑ Literatura eta entretenimenduzko liburuen irakurleek (EAEko biztanleen %60,2 direla kontuan izanik) gehien irakurtzen duten literatur generoa nobela orokorrean da (%55ek). Jarraian datoz nobela historikoa (%30ek) eta abentura nobelaren irakurleak (%24k). Irakurle kopuru txikiagoak irakurtzen dituzte nobela beltza, poliziakoa (%17k), best-sellerrek (%14k), biografiak (%13k), zientzia-fikzioa (%11k) eta dibulgazio, informaziokoak (%10ek). Are irakurle gutxiagok amodiozko, sentimenduzko nobelak (%9k), saiakerak (%7k), sukaldaritza liburuak (%6k), ipuin eta narrazio liburuak (%6k), poesia (%5ek), haur eta gazte literatura (%2k), antzerkia (%1ek) eta bestelakoak (%5ek).

☑ Datu hauek Espainiako Estatutuan literatura irakurleek gehien irakurtzen dituzten generoekin konparatzen baditugu ez dago ia alderik, hala baina Euskadin nobela orokorrean eta nobela beltza, poliziakoa pixka bat gehiago irakurtzen dira (bi kasuetan bost puntuko aldeaz).

---

☑ El género literario más leído por las y los lectores de literatura y entretenimiento (considerando que son el 60,2% de la población de la CAPV) es la novela en general (55%). Seguidamente se leen la novela histórica (30%) y la novela de aventuras (24%). Tienen un número menor de lectores la novela negra, policíaca (17%), los best-sellers (14%), las biografías (13%) y los libros de divulgación, información (10%). Son aún menos las y los lectores de novelas sentimentales, de amor (9%), ensayos (7%), libros de cocina (6%), cuentos y relatos cortos (6%), poesía (5%), tebeos, literatura infantil y juvenil (2%), teatro (1%) y otros géneros (5%).

☑ Si comparamos estos datos con los géneros que más leen los lectores de literatura del Estado no observamos casi diferencias, aunque en Euskadi se leen ligeramente más las novelas en general y la novela negra, policíaca (con cinco puntos de diferencia en ambos casos).

# Liburuen irakurketa ohiturak / *Hábitos de lectura de libros*

## Maiztasun handienez irakurtzen diren literatur generoak
## *Géneros literarios que se leen con mayor frecuencia*

(KOLEKTIBOKA I / *POR COLECTIVOS I*)

**Ondoren irakurriko dizkizudan literatur generoen artetik esadazu zeintzuk diren gehien irakurtzen dituzun hiruak, lanerako behar dituzunak kontatu gabe** / *De los siguientes géneros literarios que voy a leer a continuación, ¿cuáles de ellos suele Ud. leer con mayor frecuencia (exceptuando los que requiera para su trabajo)?**

| LITERATURA IRAKURLEAK BAKARRIK (BIZTANLEEN % 60) *SÓLO LECTORES Y LECTORAS DE LITERATURA (60% DE LA POBLACIÓN)* | 2004KO URRIA *OCTUBRE 2004* | LURRALDEA / *TERRITORIO* | | | SEXUA / *SEXO* | | ADIN TALDEAK / *GRUPOS DE EDAD* | | | | UDALERRIAREN TAMAINA *TAMAÑO MUNICIPIO* | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | ARABA | BIZKAIA | GIPUZKOA | GIZONEZKOA *VARÓN* | EMAKUMEZKOA *MUJER* | 18-29 | 30-45 | 46-64 | ≥65 | TXIKIA *PEQUEÑO* | ERTAINA *MEDIANO* | HIRIBURUA *CAPITAL* |
| NOBELA OROKORREAN / *NOVELA EN GENERAL* | 55 | 55 | 52 | 58 | 49 | 59 | 50 | 54 | 60 | 56 | 56 | 54 | 54 |
| NOBELA HISTORIKOA / *NOVELA HISTÓRICA* | 30 | 33 | 29 | 29 | 33 | 27 | 22 | 33 | 32 | 32 | 28 | 29 | 31 |
| ABENTURA NOBELA / *NOVELA DE AVENTURAS* | 24 | 24 | 25 | 21 | 28 | 20 | 31 | 27 | 17 | 13 | 19 | 26 | 23 |
| NOBELA BELTZA, POLIZIAKOA / *NOVELA NEGRA, POLICÍACA* | 17 | 17 | 19 | 14 | 19 | 15 | 20 | 18 | 16 | 11 | 15 | 18 | 17 |
| BEST-SELLERRAK / *BEST-SELLER* | 14 | 18 | 15 | 9 | 13 | 15 | 17 | 16 | 12 | 7 | 11 | 12 | 17 |
| BIOGRAFIAK / *BIOGRAFÍAS* | 13 | 19 | 13 | 11 | 12 | 13 | 9 | 10 | 16 | 23 | 12 | 10 | 17 |
| ZIENTZIA FIKZIOA / *CIENCIA FICCIÓN* | 11 | 13 | 11 | 11 | 17 | 7 | 19 | 11 | 9 | 2 | 8 | 12 | 13 |
| DIBULGAZIOA, INFORMAZIOZKOA / *DE DIVULGACIÓN, INFORMACIÓN* | 10 | 11 | 10 | 10 | 12 | 9 | 9 | 10 | 13 | 7 | 12 | 8 | 11 |
| NOBELA SENTIMENTALA, AMODIOZKOA / *NOVELA SENTIMENTAL, DE AMOR* | 9 | 8 | 11 | 8 | 1 | 16 | 11 | 9 | 8 | 9 | 9 | 11 | 7 |
| SAIAKERA / *ENSAYO* | 7 | 8 | 7 | 5 | 8 | 6 | 6 | 5 | 10 | 7 | 7 | 6 | 8 |
| SUKALDARITZA / *LIBROS DE COCINA* | 6 | 11 | 4 | 9 | 4 | 8 | 2 | 6 | 8 | 14 | 7 | 4 | 9 |
| IPUINAK, NARRAZIO LABURRAK / *CUENTOS, RELATOS CORTOS* | 6 | 8 | 6 | 6 | 5 | 7 | 4 | 6 | 8 | 6 | 8 | 4 | 8 |
| POESIA / *POESÍA* | 5 | 8 | 4 | 5 | 3 | 6 | 6 | 4 | 4 | 5 | 5 | 4 | 6 |
| HAUR ETA GAZTE LITERATURA / *INFANTIL Y JUVENIL* | 2 | 2 | 1 | 3 | 1 | 2 | 1 | 3 | 1 | 1 | 3 | 1 | 2 |
| ANTZERKIA / *TEATRO* | 1 | 2 | 1 | 2 | 1 | 2 | 2 | 1 | 2 | 1 | 1 | 1 | 2 |
| BESTELAKOAK / *OTROS GÉNEROS LITERARIOS* | 5 | 3 | 6 | 5 | 6 | 5 | 5 | 6 | 5 | 6 | 7 | 4 | 6 |
| ED-EE / *NS-NC* | 1 | 0 | 1 | 2 | 1 | 1 | 2 | 2 | 1 | 1 | 2 | 2 | 1 |

* ERANTZUNEN BATURA EZ DA 100 HAINBAT ERANTZUN EMAN AHAL ZIRELAKO / *LAS RESPUESTAS NO SUMAN 100 PORQUE SE PODÍAN DAR VARIAS RESPUESTAS.*

☑ Gizon irakurleek emakumeek baino maizago irakurtzen dituzte nobela historikoak, abentura nobelak, nobela beltza eta zientzia fikzioa eta emakumeek gehiago nobela orokorrean, nobela sentimental, amodiozkoa (gizonen %1ek soilik irakurtzen dituzte), sukaldaritza liburuak eta poesia.

☑ Zenbat eta helduago, orduan eta maizago irakurtzen dira nobelak orokorrean (65 urtetik gora berriro gutxitzen den arte), biografiak eta sukaldaritza liburuak eta, aldiz, gutxiagotan abentura nobelak, nobela beltza, best-sellerrak eta zientzia fikzioa. Gainera, nobela historikoa maizago irakurtzen dute 29 urtetik gorakoek.

☑ Herriaren tamaina handitu ahala, maizago irakurtzen dira bestsellerrak eta zientzia fikzioa. Biografiak ere hiriburuetan apur bat gehiago irakurtzen dira eta abentura nobela herri ertainetan.

☑ Los hombres lectores leen con mayor frecuencia novelas históricas, novelas de aventuras, novela negra y ciencia ficción y las mujeres, por el contrario, novela en general, novelas sentimentales, de amor (únicamente un 1% de los hombres los leen), libros de cocina y poesía.

☑ Cuanto más mayor se leen más frecuentemente novelas en general (hasta que vuelve a descender a partir de los 65 años), biografías y libros de cocina y por el contrario, con menor frecuencia novelas de aventuras, novela negra, best-sellers y ciencia ficción. Además, la novela histórica se lee más frecuentemente a partir de los 29 años.

☑ A medida que aumenta el tamaño del municipio se leen con más los bestsellers y la ciencia ficción. Leen ligeramente más biografías en las capitales y novela de aventuras en los medianos.

# Liburuen irakurketa ohiturak / *Hábitos de lectura de libros*

## Maiztasun handienez irakurtzen diren literatur generoak
## *Géneros literarios que se leen con mayor frecuencia*

(KOLEKTIBOKA II / *POR COLECTIVOS II)*

**Ondoren irakurriko dizkizudan literatur generoen artetik esadazu zeintzuk diren gehien irakurtzen dituzun hiruak, lanerako behar dituzunak kontatu gabe** / *De los siguientes géneros literarios que voy a leer a continuación, ¿cuáles de ellos suele Ud. leer con mayor frecuencia (exceptuando los que requiera para su trabajo)?**

| LITERATURA IRAKURLEAK BAKARRIK (BIZTANLEEN % 60) / *SÓLO LECTORES Y LECTORAS DE LITERATURA (60% DE LA POBLACIÓN)* | 2004KO URRIA / OCTUBRE 2004 | IKASKETA MAILA / *NIVEL DE ESTUDIOS* | | | | HAUTEMANDAKO KLASE SOZIALA / *CLASE SOCIAL SENTIDA* | | | IRAKURLE MOTA / *TIPO DE LECTOR* | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | <LEHEN MAILAKOAK / <PRIMARIOS | LEHEN MAILAKOAK / PRIMARIOS | BIGARREN MAILAKOAK / SECUNDARIOS | GOI-MAILAKOAK / SUPERIORES | ALTUA / ALTA | ERTAINA / MEDIA | BAXUA / BAJA | OHIKO IRAKURLEA / LECTOR HABITUAL | ALDIZKAKO IRAKURLEA / LECTOR OCASIONAL |
| NOBELA OROKORREAN / *NOVELA EN GENERAL* | 55 | 56 | 55 | 53 | 56 | 57 | 55 | 53 | 55 | 55 |
| NOBELA HISTORIKOA / *NOVELA HISTÓRICA* | 30 | 23 | 29 | 28 | 34 | 46 | 29 | 30 | 30 | 25 |
| ABENTURA NOBELA / *NOVELA DE AVENTURAS* | 24 | 22 | 20 | 27 | 24 | 24 | 23 | 24 | 23 | 25 |
| NOBELA BELTZA, POLIZIAKOA / *NOVELA NEGRA, POLICÍACA* | 17 | 12 | 15 | 16 | 21 | 12 | 18 | 15 | 18 | 13 |
| BEST-SELLERRAK / *BEST-SELLER* | 14 | 3 | 10 | 15 | 20 | 13 | 14 | 13 | 15 | 8 |
| BIOGRAFIAK / *BIOGRAFÍAS* | 13 | 17 | 14 | 12 | 11 | 13 | 13 | 11 | 14 | 9 |
| ZIENTZIA FIKZIOA / *CIENCIA FICCIÓN* | 11 | 3 | 7 | 17 | 10 | 15 | 11 | 12 | 12 | 9 |
| DIBULGAZIOA, INFORMAZIOZKOA / *DE DIVULGACIÓN, INFORMACIÓN* | 10 | 4 | 13 | 9 | 11 | 10 | 10 | 12 | 11 | 7 |
| NOBELA SENTIMENTALA, AMODIOZKOA / *NOVELA SENTIMENTAL, DE AMOR* | 9 | 12 | 12 | 9 | 6 | 3 | 10 | 7 | 9 | 15 |
| SAIAKERA / *ENSAYO* | 7 | 5 | 5 | 4 | 13 | 12 | 7 | 6 | 7 | 6 |
| SUKALDARITZA / *LIBROS DE COCINA* | 6 | 13 | 11 | 5 | 3 | 4 | 5 | 11 | 6 | 8 |
| IPUINAK, NARRAZIO LABURRAK / *CUENTOS, RELATOS CORTOS* | 6 | 5 | 7 | 5 | 7 | 6 | 5 | 9 | 6 | 7 |
| POESIA / *POESÍA* | 5 | 4 | 5 | 4 | 7 | 6 | 5 | 6 | 5 | 3 |
| HAUR ETA GAZTE LITERATURA / *INFANTIL Y JUVENIL* | 2 | 3 | 2 | 2 | 1 | 0 | 2 | 3 | 2 | 2 |
| ANTZERKIA / *TEATRO* | 1 | 1 | 1 | 1 | 2 | 0 | 1 | 2 | 1 | 2 |
| BESTELAKOAK / *OTROS GÉNEROS LITERARIOS* | 5 | 8 | 5 | 5 | 7 | 12 | 4 | 8 | 5 | 7 |
| ED-EE / *NS-NC* | 1 | 1 | 1 | 2 | 1 | 0 | 2 | 1 | 1 | 2 |

* ERANTZUNEN BATURA EZ DA 100 HAINBAT ERANTZUN EMAN AHAL ZIRELAKO / *LAS RESPUESTAS NO SUMAN 100 PORQUE SE PODÍAN DAR VARIAS RESPUESTAS.*

☑ Oro har ikasketa maila gehitu ahala, maizago irakurtzen dira literatur genero guztiak baina kontrakoa gertatzen da biografiak, nobela sentimentala, amodiozkoa eta sukaldaritza liburuen kasuan eta ez dago alderik nobela orokorrari dagokionean.

☑ Klase soziala igo ahala, maizago irakurtzen dira nobela historikoak eta aldiz, gutxiagotan sukaldaritza liburuak eta komikiak. Saiakera ere klase altukoek gehiago irakurtzen dute eta nobela sentimentala, amodiozkoa gutxiago.

☑ Oro har, ohiko irakurleek aldizkakoek baino zertxobait maizago irakurtzen dituzte genero desberdinak, nobela sentimentala, amodiozkoa ezik eta nobela orokorrean ez dago alderik.

☑ En general, a medida que asciende el nivel de estudios se leen con mayor frecuencia todos los géneros pero sucede lo contrario con las biografías, la novela sentimental, de amor y los libros de cocina y no hay diferencias respecto a la novela en general.

☑ A medida que asciende la clase social se leen más frecuentemente las novelas históricas y con menor frecuencia, los libros de cocina y los cómics. En la clase alta, además se leen con mayor frecuencia los ensayos y menos la novela sentimental, de amor.

☑ En general, las y los lectores habituales leen con alguna mayor frecuencia los diferentes géneros excepto la novela sentimental y no hay diferencias respecto a la novela en general.

# Liburuen irakurketa ohiturak / *Hábitos de lectura de libros*

## Irakurtzen diren liburuen hizkuntza / *Idioma de los libros que se leen*

(GUZTIZKOAK / *TOTALES*)

**Normalean gaztelaniazko liburuak irakurtzen dituzu? Eta euskarazkoak? Eta beste hizkuntzetakoak?** / *¿Suele leer Ud. habitualmente libros en castellano? ¿Y en euskera? ¿Y en otros idiomas?*

| BAIEZKOEN % / *% DE RESPUESTAS AFIRMATIVAS*<br>LIBURU IRAKURLEAK BAKARRIK (BIZTANLEEN % 68)<br>*SÓLO LECTORES Y LECTORAS DE LIBROS (68% DE LA POBLACIÓN)* | EAE 2004KO URRIA<br>*CAPV OCTUBRE 2004* |
|---|---|
| GAZTELANIAZKOAK / *CASTELLANO* | 99 |
| EUSKARAZKOAK / *EUSKERA* | 15 |
| BESTE HIZKUNTZETAKOAK / *OTROS IDIOMAS* | 6 |

☑ EAEko liburu irakurle ia guztiek (biztanleriaren %68,4 direla kontuan hartuz) irakurtzen dituzte liburuak gaztelaniaz. Euskaraz liburirik irakurtzen dutenak %15 dira eta beste hizkuntzaren batean soilik %6.

☑ La práctica totalidad de lectores de libros de la CAPV (considerando que son el 68,4% de la población) leen libros en castellano. Quienes leen libros en euskera son el 15% y en otros idiomas únicamente el 6%.

# Liburuen irakurketa ohiturak / *Hábitos de lectura de libros*

## Irakurtzen diren liburuen hizkuntza / *Idioma de los libros que se leen*

(KOLEKTIBOKA / *POR COLECTIVOS)*

**Normalean gaztelaniazko liburuak irakurtzen dituzu? Eta euskarazkoak? Eta beste hizkuntzetakoak?** / *¿Suele leer Ud. habitualmente libros en castellano? ¿Y en euskera? ¿Y en otros idiomas? **

| BAIEZKOEN % / % DE RESPUESTAS AFIRMATIVAS — LIBURU IRAKURLEAK BAKARRIK (BIZTANLEEN % 68) / *SÓLO LECTORES Y LECTORAS DE LIBROS (68% DE LA POBLACIÓN)* | 2004KO URRIA / *OCTUBRE 2004* | LURRALDEA / *TERRITORIO* | | | SEXUA / *SEXO* | | ADIN TALDEAK / *GRUPOS DE EDAD* | | | | UDALERRIAREN TAMAINA / *TAMAÑO MUNICIPIO* | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | ARABA | BIZKAIA | GIPUZKOA | GIZONEZKOA / *VARÓN* | EMAKUMEZKOA / *MUJER* | 18-29 | 30-45 | 46-64 | ≥65 | TXIKIA / *PEQUEÑO* | ERTAINA / *MEDIANO* | HIRIBURUA / *CAPITAL* |
| GAZTELANIAZKOAK / *CASTELLANO* | 99 | 99 | 99 | 98 | 98 | 99 | 99 | 99 | 99 | 97 | 98 | 99 | 99 |
| EUSKARAZKOAK / *EUSKERA* | 15 | 10 | 12 | 22 | 16 | 14 | 25 | 14 | 9 | 7 | 27 | 12 | 11 |
| BESTE HIZKUNTZETAKOAK / *OTROS IDIOMAS* | 6 | 9 | 5 | 5 | 5 | 6 | 8 | 7 | 2 | 3 | 5 | 4 | 7 |

| | IKASKETA MAILA / *NIVEL DE ESTUDIOS* | | | | HAUTEMANDAKO KLASE SOZIALA / *CLASE SOCIAL SENTIDA* | | | IRAKURLE MOTA / *TIPO DE LECTOR* | | EUSKARAREN EZAGUTZA / *CONOCIMIENTO DE EUSKERA* | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | <LEHEN MAILAKOAK / <PRIMARIOS | LEHEN MAILAKOAK / PRIMARIOS | BIGARREN MAILAKOAK / SECUNDARIOS | GOI-MAILAKOAK / SUPERIORES | ALTUA / ALTA | ERTAINA / MEDIA | BAXUA / BAJA | OHIKO IRAKURLEA / LECTOR HABITUAL | ALDIZKAKO IRAKURLEA / LECTOR OCASIONAL | EZ / *NO* | PIXKA BAT / *ALGO* | BAI / *SÍ* |
| GAZTELANIAZKOAK / *CASTELLANO* | 98 | 98 | 99 | 99 | 96 | 99 | 99 | 99 | 98 | 99 | 99 | 98 |
| EUSKARAZKOAK / *EUSKERA* | 7 | 9 | 15 | 23 | 15 | 16 | 11 | 16 | 10 | 0 | 4 | 43 |
| BESTE HIZKUNTZETAKOAK / *OTROS IDIOMAS* | 0 | 2 | 4 | 13 | 17 | 6 | 2 | 6 | 4 | 3 | 7 | 6 |

☑ Gaztelaniaz irakurtzen diren liburuetan ez dago inolako alderik aztertu ditugun taldeetan.

☑ Euskarazko liburuak gehiago irakurtzen dira Gipuzkoan eta herri txikietan, apur bat gehiago baita klase altu eta ertainekoen eta ohiko irakurleen artean. Halaber, gehiago irakurtzen dira irakurleak zenbat eta gazteago izan, zenbat eta ikasketa maila altuagoa eduki eta/edo euskararen ezagutza maila hobea izan.

☑ 45 urtez azpikoek besteek baino gehiago irakurtzen dituzte liburuak beste hizkuntzetan, halaxe gertatzen da herritar irakurleen ikasketa mailak eta/edo klase sozialak gora egin ahala ere.

☑ No hay diferencias respecto a la lectura de libros en castellano en los colectivos estudiados.

☑ Los libros en euskera se leen más en Gipuzkoa, en los municipios pequeños y las y los lectores habituales. Así mismo, se leen más cuanto más joven se es, mayor nivel de estudios y/o nivel de conocimiento del euskera exista.

☑ Quienes tienen 45 o menos años leen libros en otros idiomas más que el resto, sucede lo mismo a medida que asciende el nivel de estudios y/o la clase social de las y los ciudadanos lectores.

# Liburuen irakurketa ohiturak / *Hábitos de lectura de libros*

## Liburuen aukeraketarako irizpideak / *Criterios para la elección de los libros*

(GUZTIZKOAK / *TOTALES*)

**Zein liburu irakurriko duzun erabakitzean zein irizpide edukitzen duzu gehien kontutan?** / *A la hora de elegir qué libro va a leer, ¿cuál es el criterio que tiene más en cuenta?*

| LITERATURA IRAKURLEAK BAKARRIK (BIZTANLEEN % 60) / *SÓLO LECTORES Y LECTORAS DE LITERATURA (60% DE LA POBLACIÓN)* | EAE 2004KO URRIA / *CAPV OCTUBRE 2004* | ESPAINIAKO ESTATUA 2003KO OTSAILA / *ESTADO ESPAÑOL FEBRERO 2003* * |
|---|---|---|
| NORBERE IRIZPIDE PROPIOA / *SU PROPIO CRITERIO* | **68** | 70 |
| FAMILIARTEKOEN EDO LAGUNEN IRITZIA / *LA ORIENTACIÓN DE FAMILIARES O AMIGOS* | **21** | 17 |
| IRAKASLE EDOTA ESPEZIALISTEN IRITZIA / *LA ORIENTACIÓN DE PROFESORES Y/O ESPECIALISTAS* | **2** | 3 |
| KOMUNIKABIDEETAKO INFORMAZIOA / *LA INFORMACIÓN DE MEDIOS DE COMUNICACIÓN* | **5** | 7 |
| BESTELAKO IRIZPIDEAK / *OTROS CRITERIOS* | **2** | 2 |
| ED-EE / *NS-NC* | **1** | 1 |
| (EHUNEKO BERTIKALAK) / *(PORCENTAJES VERTICALES)* | 100 | 100 |

* CIS (CENTRO DE INVESTIGACIONES SOCIOLÓGICAS): 2.478 IKERKETA:" AISIALDIA ETA IRAKURKETA OHITURAK ", 2003KO OTSAILA / *CIS (CENTRO DE INVESTIGACIONES SOCIOLÓGICAS): ESTUDIO Nº 2.478:"TIEMPO LIBRE Y HÁBITOS DE LECTURA"", FEBRERO 2003*




☑ EAEn literatura eta entretenimenduzko liburu irakurleen artean (biztanleen %60,2 direla kontuan hartuz) %68k bere irizpide propioak erabiltzen dituzte gehien zein liburu irakurri erabakitzeko orduan eta beste %21ek senide eta lagunen iritzia. Oso jende gutxik dio komunikabideetako informazioei (%5ek), irakasle edo adituen iritziei eta bestelako irizpideei (%2k) jaramon egiten dionik.

☑ Espainiako Estatuan literatura eta entretenimenduzko liburu irakurleek eta hemengoek liburuak aukeratzeko erabiltzen duten irizpide nagusiaren ehunekoetan ez dago ia alderik.

☑ El 68% de las y los lectores de libros de literatura y entretenimiento de la CAPV (considerando que son el 60,2% de la población) siguen principalmente su propio criterio a la hora de elegir el libro que van a leer y el 21% la orientación de familiares y amigos. Muy poca gente dice hacer caso de la información de los medios de comunicación (5%), de los profesores o especialistas y de otros criterios (2%).

☑ Comparando el criterio princpal para la elección de los libros de lectura entre las y los lectores de literatura y entretenimiento en Estado español y aquí no hay casi diferencias.

# Liburuen irakurketa ohiturak / *Hábitos de lectura de libros*

## Liburuen aukeraketarako irizpideak / *Criterios para la elección de los libros*

(KOLEKTIBOKA I / *POR COLECTIVOS I)*

**Zein liburu irakurriko duzun erabakitzean zein irizpide edukitzen duzu gehien kontutan?** / *A la hora de elegir qué libro va a leer, ¿cuál es el criterio que tiene más en cuenta?*

| LITERATURA IRAKURLEAK BAKARRIK (BIZTANLEEN % 60) *SÓLO LECTORES Y LECTORAS DE LITERATURA (60% DE LA POBLACIÓN)* | 2004KO URRIA *OCTUBRE 2004* | LURRALDEA / *TERRITORIO* | | | SEXUA / *SEXO* | | ADIN TALDEAK / *GRUPOS DE EDAD* | | | | UDALERRIAREN TAMAINA *TAMAÑO MUNICIPIO* | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | ARABA | BIZKAIA | GIPUZKOA | GIZONEZKOA *VARÓN* | EMAKUMEZKOA *MUJER* | 18-29 | 30-45 | 46-64 | ≥65 | TXIKIA *PEQUEÑO* | ERTAINA *MEDIANO* | HIRIBURUA *CAPITAL* |
| NORBERE IRIZPIDE PROPIOA / *SU PROPIO CRITERIO* | 68 | 64 | 71 | 65 | 70 | 67 | 67 | 69 | 69 | 69 | 71 | 70 | 66 |
| FAMILIARTEKOEN EDO LAGUNEN IRITZIA / *LA ORIENTACIÓN DE FAMILIARES O AMIGOS* | 21 | 23 | 20 | 24 | 20 | 22 | 25 | 19 | 18 | 25 | 17 | 21 | 25 |
| IRAKASLE EDOTA ESPEZIALISTEN IRITZIA / *LA ORIENTACIÓN DE PROFESORES Y/O ESPECIALISTAS* | 2 | 3 | 2 | 2 | 1 | 3 | 2 | 2 | 3 | 0 | 3 | 2 | 2 |
| KOMUNIKABIDEETAKO INFORMAZIOA / *LA INFORMACIÓN DE MEDIOS DE COMUNICACIÓN* | 5 | 7 | 4 | 6 | 5 | 5 | 4 | 6 | 6 | 3 | 8 | 4 | 5 |
| BESTELAKO IRIZPIDEAK / *OTROS CRITERIOS* | 2 | 2 | 2 | 2 | 2 | 2 | 1 | 3 | 3 | 1 | 2 | 3 | 2 |
| ED-EE / *NS-NC* | 1 | 0 | 1 | 1 | 1 | 1 | 1 | 0 | 1 | 1 | 0 | 1 | 1 |
| (EHUNEKO BERTIKALAK) / *(PORCENTAJES VERTICALES)* | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 |

☑ Liburuen aukeraketa dela eta, Bizkaian beste lurraldeetan baino zerbait gehiago jarraitzen dute irakurleek euren irizpide propioa.

☑ Adin talde gazteenak (18-29 urte) eta zaharrenak (65 urte edo gehiago) senide eta lagunen iritziak besteek baino zertxobait gehiago hartzen dituzte kontuan. Bestalde, 65 urtetik gora irakasle edota espezialisten iritziei ez zaie jaramonik egiten.

☑ Herriaren tamaina hazi ahala, norbere irizpidea pixka bat gutxiago jarraitzen da (%71k herri txikietan eta %66k hiriburuetan) eta familia edota lagunen iritzia gehiago (herri txikietan %17k eta hiriburuetan %25 izateraino). Gainera, herri txikietan komunikabideen informaziori besteetan baino jaramon gehixeago egiten diote.

☑ Respecto a la elección de los libros de lectura, las y los lectores de Bizkaia siguen su propio criterio algo más que en el resto de los territorios.

☑ El grupo de edad más joven (18-29 años) y el mayor (65 o más años) toman algo más en consideración el criterio de los familiares y amigos. Por otro lado, a partir de los 65 años no se siguen las opiniones de profesores o especialistas.

☑ A medida que aumenta el tamaño del municipio, pierde peso ligeramente el criterio propio (71% en los municipios pequeños y 66% en las capitales) y crece la orientación de familiares y amigos (del 17% en los municipios pequeños hasta el 25% en las capitales). Además, en los municipios pequeños siguen algo más la información ofrecida en los medios de comunicación.

# Liburuen irakurketa ohiturak / *Hábitos de lectura de libros*

## Liburuen aukeraketarako irizpideak / *Criterios para la elección de los libros*

(KOLEKTIBOKA II / *POR COLECTIVOS II)*

**Zein liburu irakurriko duzun erabakitzean zein irizpide edukitzen duzu gehien kontutan?** / *A la hora de elegir qué libro va a leer, ¿cuál es el criterio que tiene más en cuenta?*

| LITERATURA IRAKURLEAK BAKARRIK (BIZTANLEEN % 60) / *SÓLO LECTORES Y LECTORAS DE LITERATURA (60% DE LA POBLACIÓN)* | 2004KO URRIA / *OCTUBRE 2004* | IKASKETA MAILA / *NIVEL DE ESTUDIOS* | | | | HAUTEMANDAKO KLASE SOZIALA / *CLASE SOCIAL SENTIDA* | | | IRAKURLE MOTA / *TIPO DE LECTOR* | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | <LEHEN MAILAKOAK <PRIMARIOS | LEHEN MAILAKOAK PRIMARIOS | BIGARREN MAILAKOAK SECUNDARIOS | GOI-MAILAKOAK SUPERIORES | ALTUA ALTA | ERTAINA MEDIA | BAXUA BAJA | OHIKO IRAKURLEA LECTOR HABITUAL | ALDIZKAKO IRAKURLEA LECTOR OCASIONAL |
| ZEURE IRIZPIDE PROPIOA / *SU PROPIO CRITERIO* | 68 | 78 | 65 | 69 | 68 | 69 | 71 | 62 | 69 | 65 |
| FAMILIARTEKOEN EDO LAGUNEN IRITZIA / *LA ORIENTACIÓN DE FAMILIARES O AMIGOS* | 21 | 18 | 24 | 21 | 21 | 19 | 20 | 26 | 21 | 24 |
| IRAKASLE EDOTA ESPEZIALISTEN IRITZIA / *LA ORIENTACIÓN DE PROFESORES Y/O ESPECIALISTAS* | 2 | 1 | 2 | 2 | 3 | 4 | 2 | 2 | 2 | 3 |
| KOMUNIKABIDEETAKO INFORMAZIOA / *LA INFORMACIÓN DE MEDIOS DE COMUNICACIÓN* | 5 | 4 | 6 | 5 | 5 | 4 | 5 | 5 | 5 | 5 |
| BESTELAKO IRIZPIDEAK / *OTROS CRITERIOS* | 2 | 0 | 2 | 2 | 3 | 3 | 2 | 4 | 2 | 2 |
| ED-EE / *NS-NC* | 1 | 0 | 1 | 1 | 1 | 0 | 1 | 0 | 1 | 1 |
| (EHUNEKO BERTIKALAK) / (*PORCENTAJES VERTICALES*) | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 | 100 |

☑ Behe mailako ikasketak baino gutxiago dituztenek besteek baino gehiago jarraitzen diote euren irizpide propioari (%78k).

☑ Klase sozial baxukoek senideen edo lagunen iritziari besteek baino zertxobait kasu gehiago egiten diete (%26k) eta gutxiago euren irizpide propioari (%62k).

☑ Quienes no tienen estudios primarios siguen más que los demás su propio criterio (78%).

☑ Las y los de clase social baja siguen menos que los otros su criterio propio (62%) y ligeramente más el criterio de la familia y las amistades (26%).

# Zehaztasun teknikoak / *Ficha técnica*

Informazio bilketa **2004ko irailaren 21etik urriaren 4ra bitartean** egin zen –biak barne- galdesorta egituratu eta itxia erabiliz, Euskal Autonomia Erkidegoko (EAEko) hiru lurraldeetarako lagin adierazgarri bati etxean egindako banakako elkarrizketen bidez.

**Lagina**, 18 urte edo gehiagoko biztanleriari zuzendua, honela banatu zen: 609 pertsona Araban, 1266 Bizkaian eta 973 Gipuzkoan, beraz, 2848 pertsona elkarrizketatu ziren guztira. Gizabanakoen hautaketa prozedura polietapiko eta estratifikatuaren bidez egin zen, ausazko ibilbideak erabiliz –214 laginketa abiapunturekin (*)-, ondoren pertsonak sexuaren, adinaren eta lan egoeraren araberako kuoten bidez aukeratuz. Emaitzak hiru lurraldeetako biztanleria zentsuaren eta 2004ko Hauteskunde Orokorretako boto oroimenaren arabera haztatu dira.

Ikerketaren **diseinua,** emaitzen **azterketa eta txostenaren idazketa** Prospekzio Soziologikoen Kabineteari dagozkio soilik. Bestaldetik, informazio bilketa Askatasunaren hiribidea, 17-19, 2004 Donostia helbidean dagoen *Ikertalde* enpresak egin zuen.

2848 pertsonako lagin honi dagokion **lagin errorearen** estimazioa, erabat ausazkoak diren laginketei egozgarria, ±%1,97koa da EAE osorako, %95,5eko konfiantza mailarako, p=q=0,5 izanik.

Inkesten %51,2 telefono bidez **kontrolatu** egin dira eta %14,5 berriz, etxean bertan. Horrez gain, jasotako galdetegi guztietan kontrol informatiko egokiak egin dira –logika, koherentzia eta heinari buruzkoak-.

Datuen **fidagarritasuna eta baliotasuna** bermatua dago, bai Euskal Autonomia Erkidegorako (EAErako) eta baita lurralde bakoitzerako ere, lagin adierazgarri egokia erabiliz eta inkestaren azken emaitzen eta argitaratutako beste kanpo erreferentzia objektibo batzuen arteko desberdintasunen ebaluazioa eginez, azken hau beti ere, datu alderagarriak dauden kasuetan. Zehatzago, ondoko aldagaiei buruz ari gara: batetik 2004ko Hauteskunde Nagusietako botoaren banaketa erreala eta bestetik adina, sexua, ikasketa maila, lan egoera eta euskararen ezagutza mailari buruzko datu ofizialak.

(*) Hasiera puntu fisiko zehatza ausaz lortu zen hauteskunde sekzio bakoitzeko kale "zatien" multzoen artean (azterketarako unitate geografiko txikiena), Eustatek egindako kale izendegien arabera.

La recogida de información se realizó entre **el 21 de septiembre y el 4 de octubre de 2004** -ambos inclusive- a través de entrevista individual mediante cuestionario estructurado y cerrado, realizada a domicilio a una muestra representativa de la población de cada uno de los Territorios Históricos de la Comunidad Autónoma del País Vasco (CAPV).

La **muestra**, dirigida a una población de 18 y más años, se distribuyó del siguiente modo: 609 personas en Araba, 1266 en Bizkaia y 973 en Gipuzkoa, lo que supone un total de 2848 personas entrevistadas. La selección se realizó por procedimiento polietápico y estratificado, siguiendo rutas aleatorias -a partir de un total de 214 puntos de muestreo (*)- y con selección de los individuos por cuotas de sexo, edad y situación laboral, siendo posteriormente ponderados los resultados en base a la población y al recuerdo de voto en las Elecciones Generales de 2004, en cada uno de los tres Territorios.

El **diseño** de la investigación, el **análisis** de los resultados y la **redacción del informe** es responsabilidad exclusiva del Gabinete de Prospección Sociológica. La recogida de información fue realizada por la empresa *Ikertalde,* sita en la calle Avenida de la Libertad, 17-19, 20004, Donostia-San Sebastián.

El **error muestral** correspondiente a esta muestra de 2848 individuos, y atribuible en el caso teórico de que la muestra hubiera sido estrictamente aleatoria, se cifra en un ±1,97% para el conjunto de la CAPV, con un nivel de confianza de 95,5% y p=q=0,5.

Se ha llevado a cabo **un control telefónico** del 51,2% de las encuestas y un control domiciliario del 14,5% de las mismas. Asimismo, se han realizado todos los controles informáticos pertinentes -lógicos, de coherencia y de rango- en cada uno de los cuestionarios recogidos.

La **fiabilidad y validez** de los datos queda garantizada en base al empleo de una muestra adecuadamente representativa, tanto para el conjunto de la Comunidad Autónoma del País Vasco (CAPV) como para cada uno de los tres Territorios Históricos, así como mediante la evaluación de las diferencias entre los resultados finales de la encuesta con otras referencias externas objetivas publicadas, siempre que existen datos contrastables. Nos referimos, concretamente, a la distribución oficial real de voto en las Elecciones Generales de 2004 y a las cifras oficiales de edad, sexo, nivel de estudios, situación laboral y nivel de euskaldunización.

(*) El lugar físico concreto de inicio se obtuvo aleatoriamente del conjunto de "tramos" de calles incluidos en cada sección electoral (unidad geográfica mínima de análisis), según los callejeros elaborados por el Eustat.